
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



**EGOERA
EKONOMIKOA
ETA LAN
HARREMANAK
EAE-N
2023AN**

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO
DE RELACIONES
LABORALES**

Urkixo Zumarkalea, 2, 3. solairua
48008 Bilbo - Bizkaia
T 94 479 21 00
www.crl-lhk.eus

**EGOERA
EKONOMIKOA
ETA LAN
HARREMANAK
EAE-N
2023AN**

AURKEZPENA	8
SARRERA	10
1. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOAREN ETA LAN HARREMANEN EZAUGARRI NAGUSIAK 2023AN	14
2. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA	30
2.1 INGURUNE EKONOMIKOA.....	30
2.2 EAE-KO EKONOMIA	32
3. ENPLEGUA, KONTRATAZIOA ETA LANEKO KOSTUAK	42
3.1. SARRERA.....	42
3.2. LAN MERKATUA ETA ENPLEGUA EAE-N.....	43
3.2.1. BIZTANLERIA AKTIBOA.....	43
3.2.2. BIZTANLERIA OKUPATUA.....	45
3.2.3. BIZTANLERIA LANGABETUA.....	49
3.3. JAKINARAZITAKO LANEKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA (EAE).....	54
3.3.1. BILAKAERA OROKORRA ETA ERROTAZIOA	54
3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	58
3.5. SOLDATEN BILAKAERARI BURUZKO AURRETIAZKO GOGOETAK.....	64
3.6. LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA	66
3.7. LANEKO KOSTUAREN HIRUHILEKOKO INKESTA.....	68
3.8. LANEKO PREZIOEN INDIZEA.....	72
4. LAN HARREMANAK	76
4.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	76
4.1.1. SARRERA.....	76
4.1.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEEN EZAUGARRIAK.....	76
4.1.3. 2023KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK.....	78

4.1.4.	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2023. URTEAN	83
4.1.5.	NEGOZIAZIOAREN EMAITZAK 2023AN.....	96
4.1.6.	2023AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATU ETA SINATU ZITUZTEN ERAKUNDEAK	108
4.1.7.	HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N	112
4.1.8.	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTORE PUBLIKOAN.....	114
4.2.	LANEKO GATAZKAK	116
4.2.1.	ALDERDI NAGUSIAK	116
4.2.2.	LANEKO GREBAK EAE-N.....	116
4.2.3.	PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK.....	122
4.3.	ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK.....	126
4.3.1.	SARRERA. ARAU ESPARRUA.....	126
4.3.2.	EAE-KO ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	126
4.3.3.	EAE-KO ADMINISTRAZIOK BAIMENDUTAKO EDO HARI KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	128
4.4.	LANEKO EZBEHAR TASA.....	132
4.4.1	LANEKO EZBEHAR TASAREN BILAKAERA HISTORIKOA (EAE ESTATUA; 2013- 2022).....	132
4.4.2	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N ETA ESTATUAN 2023AN: ALDERDI NAGUSIAK	133
4.4.3	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA, SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA	137
4.4.4	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA, SEXUAREN ARABERA.....	140
4.5.	HAUTESKUNDE SINDIKALAK	142
ERANSKINA. EAE-KO SEKTOREKO HITZARMENEN ZERRENDA ETA HORIEN EGOERA 2023KO ABENDUAREN 31N		147

AURKEZPENA

Lan Harremanen Kontseiluak, zeinaren eginkizunen artean baitago Euskal Autonomia Erkidegoko lan-egoera islatzen duen memoria bat egitea urtero, ondoren aurkezten den txostena onartu zuen 2024ko ekainaren 20ko ohiko osoko bilkuran.

Bertan, zalantzarik gabe, akordioen bidea errekuiperatu izana nabarmentzen da, eta hori albiste ona da enpresentzat zein langileentzat, eta, gainera, eragin positiboa du gizarte osoan.

Bada, 2023an garatutako negoziazio-jarduera biziaren ondorioz (bereziki esanguratsua sektore-eremuan), txostena egin zen egunean (2024ko lehen seihilekoa) eskura zeuden datuek baikortasun moderatua eragiten dute. Hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa azken urteetako handiena da, eta, gainera, iraungita zeuden zenbait hitzarmen esanguratsuren errekuiperazioa gertatu da. Horri gehitu behar zaio Gizarte Segurantzako afiliazioa maximo historikoetan dagoela, langabezia-tasa txikiena dela 2008az geroztik, eta inflazioaren gorakadak askoz ere apalagoak direla orain dela ez hainbeste denbora gertatutakoak baino.

Hala ere, adierazi behar da lan-merkatua ur-lamina bat bezalakoa dela, eta edozein elementuk sor ditzakeela haren oreka mehatxatzen duten uhinak. Ildo horretatik, erronka garrantzitsuak aurreikusten dira, gure etorkizunerako erabakigarriak izango direnak, besteak beste, tentsio geopolitikoak, erronka demografikoa eta gero eta deskarbonizatuagoa den ekonomiara egokitzea. Gai horietako batzuek nabarmen gairiditzen dute gure eremua, baina beste batzuek gure sistemaren egiturazko elementuei eragiten diete (edo eragingo diete) eta zuzenean lotuta daude kontratu sozialarekin.

Txosten honen bidez, lan-merkatuaren erronkei buruzko hausnarketan lagundu nahi dugu. Izan ere, aipatutako elementuetako edozeinek sortutako uhin biziak, besteak beste, nahi gabeko inpaktua eragin dezakete, iraganean ikusi dugun bezala, eta horrek eragin negatiboa du lan-harremanetan.

Ez nuke amaitu nahi txosten hau egitea ahalbidetu duen erakundeen lankidetzak eskertu gabe. Horri dagokionez, aipatzekoak dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, Eustat, Lanbide, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE delakoa) eta Bizkaiko SEPEren Okupazioen Behatokia.

Emilia M. Málaga Pérez
Presidente

SARRERA


Txosten hau, "Egoera ekonomikoa eta lan-harremanak EAEn 2023an" izenekoak, 2024ko urtarrilaren eta maiatzaren artean egingina, Lan Harremanen Kontseiluak egiten duen hogeita zortzigarren txostena da.

Txostena lau kapitulutuan egituratuta dago, aurreko edizioetan bezala. Egindako analisiaren ondorio eta aurkikuntza garrantzitsuenak azaltzen ditu lehenengo kapituluak, "EAEko egoera ekonomikoaren eta lan-harremanen ezaugarri nagusiak 2023an" izenekoak.

Bigarren kapituluak, "EAEko egoera ekonomikoa" izenekoak, EAEko ekonomiaren ingurunea eta bilakaera aztertzen ditu, labur.

Hirugarren kapituluak, "Enplegua, kontratazioa eta laneko kostuak" izenburua duenak, EAEko lan-merkatuaren hainbat alderdi aztertzen ditu (okupazioa, langabezia, kontratazioa, etab.).

Negoiazio kolektiboa laugarren kapituluan aztertzen da, "Lan-harremanak" izenekoan. Kapitulu horren barruan, negoziazio-dinamika eta emaitza nagusiak aztertzeaz gain, honako hauek ere aztertzen dira: hitzarmenen inaplikazioak, laneko gatazkak, enplegu-erregulazioko espedienteak, laneko ezbehar-tasa eta hauteskunde sindikalen emaitzak.



**EAE-KO
EGOERA
EKONOMIKOAREN ETA
LAN HARREMANEN
EZAUGARRI
NAGUSIAK
2023AN**

1. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOAREN ETA LAN HARREMANEN EZAUGARRI NAGUSIAK 2023AN

NDFren kalkuluen arabera, 2023an¹ % 3,2 hazi zen munduko ekonomia, hau da, 2022an (% 3,5) baino hiru hamarren gutxiago.


Tentsio geopolitiko gogorrek nazioarteko testuingurua baldintzaten jarraitu zuten, eta ekonomia aurreratuen BPGa % 1,6 hazi zen, aurreko ekitaldian baino ehuneko puntu bat gutxiago. Bestetik, hazten eta garatzen ari diren herrialdeek bilakaera dinamikoagoa izan zuten berriz ere. Horietan, ekonomia % 4,3 hazi zen 2023an, aurreko urtearekin alderatuta (2022an % 4,1).

Eurogunean % 0,4 baino ez zen hazi, Ukrainako gerraren ondorioen eta Alemaniako ekonomiaren beherakadaren (-% 0,3) eraginez; izan ere, Alemania da Batasuneko motor ekonomiko nagusia.

Europako ekonomia handien artean, Espainiak % 2,5ko hazkundera izan zuen, Frantziak eta Italiak baino dezente handiagoa (% 0,9 bi kasuetan). Familien eta administrazio publikoen amaierako kontsumoa hazi izanaren ondorioz egin zuen gora, batez ere, Espainiako ekonomiak. Izan ere, kanpoko eskariak 8 hamarreneko ekarpena baino ez zion egin BPGari 2023an.

1.1. GRAFIKOA

EAE-KO, ESTATUKO ETA EUROGUNEKO BPG-A. Urte batetik besterako aldakuntza-tasa



Iturria: Eustat, EIN eta Eurostat. 2024ko martxoa.

EAERI dagokionez, ekonomia % 1,8 hazi zen, 2021ean eta 2022an erregistratutako hazkunde nabarmenen ostean (% 6 eta % 5,4, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, 2022aren amaierarako, jada, EAeko BPGa pandemiaren aurretik erregistratutakoa baino handiagoa zen. Estatuan, berriz, 2023ra arte itxaron

¹ NDF, WEO txostena. 2024ko apirila.

behar izan zuten 2019ko maila gainditzeko.

Estatuan bezala, EAEn ere barne-eskarian oinarritu zen 2023ko hazkundera. Barne-eskariaren ekarpena 1,7 puntukoa izan zen, eta kanpoko sektorearen ekarpena hamarren batekoa baino ez.

Sektorearen arabera, zerbitzuen sektorea (+% 2,4), eraikuntza (+% 2,1) eta industria (+% 0,3) hazi egin ziren 2023an, baina aurreko ekitaldian baino neurri txikiagoan. Bestetik, lehen sektoreak jaitsiera apalagoa izan zuen (-% 3, eta aurreko ekitaldian -% 8,7).

EAEko ekonomiaren produktibitatearen bilakaerari dagokionez, 2023an % 0,1eko hazkunde txikia izan zuen ageriko produktibitateak, aurreko urtearekin alderatuta.


Prezioen bilakaerarekin lotuta, 2023an batez beste % 3,6 hazi zen KPIa EAEn, hau da, 2022an (% 8) baino dezente gutxiago.

2023an zehar, prezioen urte arteko hazkunderaren erritmoa pixkanaka jaisten joan zen. Urtarrilean ia % 6koa zen hazkunde-tasa (% 5,6 EAEn, % 5,9 Estatuan), eta abenduan % 3 ingurukoa (% 3,1 EAEn eta Estatuan).

Etorkizunera begira, posible da EAEn eta gure inguruko ekonomien hazkundera apal mantentzea, ziurgabetasunak altua izaten jarraitzen baitu hainbat faktoreren ondorioz, adibidez: gerra-gatazkak, tentsio geopolitikoak eta interes-tasen bilakaera.


1.2. GRAFIKOA

BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA). 2008-2023



* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.
 ** Behin-behineko datuak.
 Iturria: BJA (Eustat).


Enpleguaren bilakaerari dagokionez, BJAREN arabera, 2023an 971.300 pertsona zeuden okupatuta, aurreko urtean baino 9.100 gehiago (+% 0,9). Soldatapeko langileen kopurua 8.300 pertsona hazi zen (+% 1,1). Aldiz, soldatapekoak ez diren langileen kopurua 800 pertsona bakarrik hazi zen: urte arteko % 0,5eko hazkundera.

1.3. GRAFIKOA**LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA* (%)**

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak. Iturria: BJA (Eustat).

Langabezia-tasa % 7,6ra jaitsi zen 2023an. Hala, 2022an erregistratutakoa (% 8,5) baino ia puntu bat baxuagoa izan zen. Hori baino langabezia-tasa baxuagoa topatzeko, 2008ko ekitaldiraino (% 3,8) egin behar dugu atzera. Halaber, generoaren arabera aldea murriztu egin zen, baina emakumeen langabezia-tasak altuagoa izaten jarraitu zuen gizonenak baino: % 7,9 eta % 7,5, hurrenez hurren.

1.4. GRAFIKOA**GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA). 2008-2023**

Iturria: Gizarte Segurantza.

Afiliazioaren bilakaerari dagokionez², 2023ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua (hileko batezbestekoa) milioi bat pertsona baino apur bat handiagoa izan zen EAEn (1.012.947 pertsona), azken urteetako zifrarik altuena.

Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsona kopurua hazi egin zen; 20.620 pertsona gehiago izan ziren (guztira 812.339), eta horrek eragin zuen guztizko afiliazioaren hazkundera, 18.870 pertsonakoa (+% 1,9). Izan ere, Erregimen Orokorreko hazkunderak konpentsatu egin zuen Langile Autonomoen Erregimen Berezian izandako jaitsiera, -1.735 pertsonakoa.

1.1 TAULA

LANEKO ALTA EGOERAN DAUDEN AFILIATUAK EAE-N, ERREGIMENAREN ARABERA (HILEKO BATEZBESTEKOA)

Erregimena	2022ko abe.	2023ko abe.	Aldakuntza 2023/2022
Langile Autonomoen Erregimen Berezia	165.228	163.493	-1,1
Itsasoko Langileen Erregimen Berezia (Besteren kontura)	3.008	3.109	3,4
Itsasoko Langileen Erregimen Berezia (Norbere kontura)	288	247	-14,2
NLSB (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia)	3.768	3.658	-2,9
Erregimen Orokorra (Etxeko Langileen Sistema Berezia)	28.081	28.152	0,3
Erregimen Orokorra (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia)	1.985	1.949	-1,8
Erregimen orokorra	791.719	812.339	2,6
SISTEMA GUZTIRA	994.077	1.012.947	1,9

Iturria: Gizarte Segurantza.

Lanaldi osoko kontratu mugagabea zuten afiliatu kopuruaren hazkundera (+18.186 pertsona hazi zen 2022ko abenduaren eta 2023ko abenduaren artean) eragin zuen Erregimen Orokorreko gorakada hori, batez ere. Aldiz, aldi baterako kontratuak zituzten afiliatuen kopurua murriztu egin zen: -4.497 pertsona gutxiago izan ziren. Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea zuten afiliatuen kopurua jaitsi egin zen (5.201 pertsona gutxiago), eta aldizkako finkoen kopurua ere jaitsi egin zen (1.774 pertsona gutxiago).

² Afiliatu kopuruak ez du zertan bat etorri langile kopuruarekin. Izan ere, afiliatuta egoteko beharra sortzen duten lan-harremanak edo egoerak dira zenbatzen direnak. Hau da, pertsona bakar batek erregimen beraren barruan edo zenbait erregimenetan hainbat lan-harreman baditu, dituen afiliazio-egoera bakoitzeko kontatzen da. Etxeko Langileen Sistema Berezia kasuan eta Nekazaritzako Besteren Konturako Langileen Sistema Berezia kasuan, altan dauden pertsonak bakarrik zenbatzen dira, eta ez lan-harremanak.

1.2. TAULA**EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDIAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)**

	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2022ko abe.	437.092	98.709	27.201	100.633	45.852	82.233	791.719
2023ko abe.	455.278	103.910	28.975	98.706	43.282	82.188	812.339
Aldeak 2023-2022	18.186	5.201	1.774	-1.927	-2.570	-45	20.620
Aldakuntza % 2023/2022	4,2	5,3	6,5	-1,9	-5,6	-0,1	2,6

(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantzza.


Beste batzuk³ ataleko afiliatuak (gehienak funtzionarioak) alde batera uzten baditugu, eta lan-kontratua duten afiliatuak bi talde handitan banatzen baditugu (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), honakoa ondorioztatu dezakegu: 2023ko abenduan, afiliatuen % 76,6k kontratu mugagabea zuten; 2022an (% 75,5) baino 1,1 puntu gehiago eta 2019an (% 66,8) baino ia 10 puntu gehiago.

Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen partaidetzak txikia izaten jarraitzen badu ere, apur bat handitu da horien pisua; 2022an lan-kontratua zuten afiliatu guztien % 3,8 ziren ("Beste batzuk" kanpoan utzita), eta orain % 4.

Halaber, atzerriko pertsonak, gizon zein emakumeek, EAEn afiliazioari egindako ekarpen garrantzitsua nabarmendu behar da. 2022ko abenduaren eta 2023ko abenduaren artean 8.412 pertsonako tasan ugaritu zen Gizarte Segurantzza afiliatutako atzerriko pertsonen kopurua.

³"Beste batzuk" atal barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

1.5. GRAFIKOA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTA DAUDEN ETA LAN KONTRATUA DUTEN PERTSONEN* BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA).

(*) Ez ditu barne hartzen kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zainzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.

2022an indarrean sartu zen lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuten. Ondorioz, 2022an zehar nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.

2022aren aurreko urteetan, urte bakoitzean EAEn sinatzen ziren kontratuen % 90 aldi baterakoak ziren (2019an, % 91,7); 2022an, berriz, % 75,5era jaitsi zen ehuneko hori. Bestalde, 2019. urtean sinatutako kontratu guztien artetik, % 8,3 ziren mugagabeak; 2022an, guztizkoaren % 24,5 izan ziren mota horretakoak.


Banaketa hori ia aldaketarik gabe mantendu zen 2023an. Urte horretan 730.146 kontratu sinatu ziren; horietatik % 25,5 (186.492) mugagabeak izan ziren, eta gainerako % 74,5ak (543.654) aldi baterakoak.

1.3. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, URTEAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA**

	2019	2022	2023	ALDAKUNTZA TASA 23/22
Mugagabeak	83.931	199.995	186.492	-% 6,8
Aldizkako finkoak	4.333	36.748	36.376	-% 1,0
Gainerako mugagabeak	79.598	163.247	150.116	-% 8,0
Aldi baterakoak	924.244	615.724	543.654	-% 11,7
Praktikak eta formakuntzakoak	7.704	7.102	6.296	-% 11,3
Gainerako aldi baterakoak	916.540	608.622	537.358	-% 11,7
GUZTIRA	1.008.175	815.719	730.146	-% 10,5

Iturria: SEPE.

Enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko pertsonen dagokienez, krisi ekonomiko eta sanitarioaren faserik larriena gainditu ondoren nabarmen murriztu ziren ABEEE-en eraginpeko pertsonak.

1.6. GRAFIKOA**EAE-N BAIMENDUTAKO EDO KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO PERTSONA KOPURUAREN BILAKAERA. 1993-2023.**

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2023an zehar, enplegu-erregulazioko 276 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 7.404 pertsonari eragin zieten. Zifra horiek aurreko urtekoak baino baxuagoak izan ziren: urte arteko -% 51,2 eta -% 62,6-ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan bezala, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek (ABEEE) eragin zieten pertsona gehienei (2023an % 88,8), eta 828 langileri eragin zieten lan-harremana iraungitzeko espedienteek, guztizkoaren % 11,2ri.

Hala, lan-harremana iraungitzeko espedienteen eraginpeko pertsona kopurua % 89,5 hazi zen aurreko urtetik: 2022an 437 pertsonari eragin zieten espediente horiek, eta 2023an 828 pertsonari.

1.4. TAULA.

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ARRAZOIAREN ARABERA. 2023. URTEA


	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa-arrazoiak edo ekoizpen-arrazoiak	231	7.190	497	5.887	806
Ezinbestekoak	45	214	28	164	22
Guztira	276	7.404	525	6.051	828

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Negoiazio kolektiboaren bilakaerari dagokionez, 2023a amaitzean, langileen % 63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), % 30,6k luzapen egoeran zituzten, eta % 5,6k bakarrik zituzten hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako daturik onenak dira, bai hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoari dagokionez, bai hitzarmenak iraungita dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez.

1.7. GRAFIKOA


EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31KO DATUAK)



Urtearen hasieran, hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa aurreko urtekoaren antzekoa zen, baina urtearen amaieran hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoak % 60 gainditzea ahalbidetu zuten 2023an zehar lortutako akordioek.

Gainera, bi sektore-hitzarmen sinatu zituzten, Gipuzkoako Ostalaritza Enpresen Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena, iraungita baitzeuden. Horri esker, hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa % 5,6ra jaitsi zen ekitaldiaren amaieran (34.424 pertsona).

1.8. GRAFIKOA


**NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERAGINPEKO PERTSONEN BILAKAERA EAE-N
(ABENDUAREN 31KO DATUAK)**


Lurralde eremuaren (EAE/Estatua) arabera analisiak erakusten duenez, 2023an aurrera jarraitu zuen gure negoziazio eremu propioak berreskuratzeko prozesuak. EAEen negoziatutako hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko langile kopurua 13.000 langile baino gehiago areagotu zen, eta 404.952 pertsonara heldu zen. EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenen eraginpeko langileen kopurua, berriz, 1.000 pertsona baino apur bat gehiago hazi zen eta 170.301 pertsonara heldu zen ekitaldiaren amaieran.

Eremu funtzionalen arabera (enpresa/sektorea), 2023aren amaieran, enpresa-hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 60,3k eta sektore-hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 65ek eguneratuta zituzten haien hitzarmenak. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, adierazle hori ia 7 puntu hazi zen enpresa-hitzarmenen kasuan, eta 22 puntu baino gehiago sektore-hitzarmenen kasuan.

Negoiazio-prozesuen iraupenari dagokionez, mahaia eratzen den egunetik sektore-hitzarmenak sinatzen diren egunera igarotzen den denbora-tarte luzea nabarmendu behar da. Batez beste, 624 egun behar izan zituzten 2023an indarrean zeuden sektore-hitzarmenen kasuan.

1.9. GRAFIKOA
URTE BAKOITZEAN EAE-N SINATZEN DIREN ETA INDARREAN DAUDEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOIAZIO-PROZESUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA





EAEn indarrean dauden hitzarmenetan % 4,22ko soldata-igoera hitzartu zuten 2023rako. EAEn negoziatutako hitzarmenetan adostutako soldata-igoera % 4,59koa izan zen. EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan, berriz, % 3,51koa.

1.5. TAULA
2022RAKO ETA 2023RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK*

	SOLDATA IGOERA	
	2022	2023
EAE, guztira	% 4,08	% 4,22
EAEn negoziatutakoak	% 4,80	% 4,59
Araba	% 4,78	% 2,96
Bizkaia	% 4,29	% 4,48
Gipuzkoa	% 5,76	% 5,62
Lurralde artekoak	% 2,39	% 3,03
Estatu-eremuak	% 2,89	% 3,51

* Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.
 ** EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.
 Iturria: LHK.

1.10. GRAFIKOA**EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA****1.11. GRAFIKOA****EAE. KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERAK ABENDUAN ETA KPI-AREN BATEZ BESTEKO IGOERA URTE BAKOITZEAN**

Igoera handienak Gipuzkoan negoziatutako hitzarmenetan topa ditzakegu; batez besteko igoera % 5,62koa izan zen lurralde horretan. Aldiz, igoera txikiak Araban negoziatutako hitzarmenetan (% 2,96), lurralde arteko eremukoetan (% 3,03) eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan (% 3,51) izan ziren.

Indarrean dauden hitzarmen gehienak hainbat urtetarako negoziatzen jarraitzen dira. Hala, hiru urterako edo gehiagorako negoziatu diren eta indarrean dauden hitzarmenek babesten dituzte langileen % 91,5.

Gatazken bilakaerari dagokionez, 2023an zehar 325 laneko greba erregistratu ziren EAEn eta 58.307 pertsonak parte hartu zuen horietan. Lan egin gabeko lanaldien kopurua 169.836koa izan zen. Greba-kopurua -% 5 murriztu zen, eraginpeko langileen kopurua -% 45,5 eta lan egin gabeko lanaldien kopurua -% 55,8.

**1.6. TAULA
LANEKO GREBAK (EAE)**

	GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2010	298	38.090	179.519	128	602	37,7
2011	240	18.640	83.935	78	350	36,0
2012	278	21.600	130.930	78	471	48,5
2013	350	37.020	140.391	106	401	30,3
2014	236	17.126	56.648	73	240	26,5
2015	184	10.608	18.222	58	99	13,7
2016	164	13.735	58.157	84	355	33,9
2017	214	59.505	96.423	278	451	13,0
2018	264	48.696	110.838	184	420	18,2
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3
2020	190	25.642	59.741	135	314	18,6
2021	248	14.848	140.775	60	568	75,8
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7
2023	325	58.307	169.836	179	523	23,3

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Sektore ekonomikoaren arabera analisiak erakusten duenez, 2023an zerbitzuen sektorekoak izan ziren lan egin gabeko lanaldien % 52,2. Aurreko bi ekitaldian industria-sektorekoak izan ziren lan egin gabeko lanaldi gehienak. Zentzu horretan, 2022an eragin nabarmena izan zuen Bizkaiko industria siderometalurgikoko gatazka.

Horrekin lotuta, negoziazio kolektiboko prozesuetako gatazken ondorioz sektoreko greba-deialdiak egoteak edo ez egoteak eragin nabarmena du, bai lan egin gabeko lanaldi kopuruan, bai lanaldi horiek industrian edo zerbitzuen sektorean pilatzean. Hortaz, sektoreko gatazka batzuek azal ditzakete urte arteko aldakuntzak.

Laneko istripuen bilakaerari dagokionez (lanaldian edo "in itinere"), 2023an urte arteko -% 1,2ko jaitsiera izan zen. Guztira 36.128 pertsonari eragin zieten istripu horiek, 2019an baino gutxiagori (37.106 pertsona).

Pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta (2019. urtea), baja eragin zuten

lanaldi barruko istripuak -% 2,8 gutxitu ziren, eta baja eragin zuten "in itinere" istripuak -% 1,7.

1.7. TAULA

LANEKO ISTRIPUAK (LANALDIAN ETA IN ITINERE) EAE-N, LARRITASUNAREN ARABERA

	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Guztira
2019	36.870	206	30	37.106
2020	29.979	196	27	30.202
2021	34.606	210	35	34.851
2022	36.291	252	30	36.573
2023	35.924	174	30	36.128

Iturria: Osalan.

Larritasunaren arabera, 2022arekin alderatua, murriztu egin ziren laneko istripu (lanaldian eta in itinere) arinak (-% 1) zein larriak (-% 31). Istripu hilgarrien kopurua ez zen aldatu. 2023an baja eragin zuten istripu guztien (lanaldian eta in itinere) % 99,4 arinak izan ziren, % 0,5 larriak eta gainerako % 0,1ak hilgarriak.

2023an EAEn hil ziren 30 pertsonen artetik (26 lanaldian eta 4 "in itinere"), 26 gizonak ziren eta 4 emakumeak.

Amaitzeko, nabarmentzekoa da azken urteetako daturik onenak eskuratu direla 2023aren amaieran, bai negoziazio kolektiboari dagokionez, bai lan-merkatuari dagokionez. Hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehuneko azken urteetako handiena da (% 63,8), eta hitzarmenak iraungita dituzten pertsonen kopurua (% 5,6), azken urteetako txikiena. Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruak historiako zifrarik altuenak eskuratu ditu, langabezia-tasak beheranzko joera du eta laneko gatazkak nabarmen jaitsi dira aurreko urtetik.

Dena den, ziurgabetasun handia dago. Batez ere, tentsio geopolitikoaren, inflazioaren eta interes-tasek etorkizunean izan dezaketenen bilakaeraren eta epe ertainean defizita murrizteko eta zergak sendotzeko prozesuak garatzeko beharrendu ondorioz.

2

**EAE-KO
EGOERA
EKONOMIKOA**

2.1 INGURUNE EKONOMIKOA

2023an % 3,2 hazi zen munduko ekonomia, hau da, 2022an baino hiru hamarren gutxiago

NDFren kalkuluen arabera, 2023an % 3,2 hazi zen munduko ekonomia, hau da, 2022an (% 3,5) baino hiru hamarren gutxiago.

Tentsio geopolitiko gogorrek nazioarteko testuingurua baldintzatzten jarraitu zuten, eta ekonomia aurreratuek % 1,6 hazi ziren, aurreko ekitaldian baino ehuneko puntu bat gutxiago.

Bestetik, hazten eta garatzen ari diren herrialdeek bilakaera dinamikoagoa izan zuten berriz ere. Horietan, ekonomia % 4,3 hazi zen 2023an, aurreko urtearekin alderatuta (2022an % 4,1).

Erakunde horrek 2024ko apirilean egindako aurreikuspenen arabera, munduko ekonomia % 3 baino zerbait gehiago haziko da 2024an eta 2025ean, eta hazkunde apala izango dute ekonomia aurreratuek (% 1,7 eta % 1,8ko hazkundeak aurreikusten dira 2024rako eta 2025erako, hurrenez hurren). Beste behin, hazkunde handiagoak espero dira hazten eta garatzen ari diren herrialdeetako ekonomietan (% 4,2 bi ekitaldietan).

***Barne Produktu Gordina (BPG):** ekonomia baten tamaina osoa baloratzeko erabiltzen den neurria. Honela kalkulatzen da: askotariko sektore instituzionalen edo jarduera adarren balio erantsi gordinen batura, gehi zergak, ken produktuen gaineko dirulaguntzak. Iturria: Eustat.*

Dena den, aurreikuspen horiek zuhurtziaz hartu behar dira. Izan ere, eragin negatiboa izan lezakete hainbat faktorek, hala nola lehengaien prezioaren igoerak, shock geopolitikoek edo moneta-politikaren gogortze posibleak. Era berean, ez dira ahaztu behar Txinan espero baino hazkunde txikiagoa izateak edo zergen sendotze posible batek izan ditzaketan ondorioak.

Eurogunean % 0,4 baino ez zen hazi 2023an, Ukrainako gerraren ondorioen eta Alemaniako ekonomiaren beherakadaren (-% 0,3) eraginez; izan ere, Alemania da Batasuneko motor ekonomiko nagusia.

Espainiako ekonomia % 2,5 hazi zen 2023an, eta pandemiaren aurreko maila gainditu zuen azkenean

Europako ekonomia handien artean, Espainiak % 2,5ko hazkundera izan zuen, Frantziak eta Italiak baino dezente handiagoa (% 0,9 bi kasuetan).

Hala, Espainiako ekonomia aurreko ekitaldian baino nabarmen gutxiago hazi zen (% 2,5ko hazkundera, eta 2022an % 5,8koa), eta BPGaren urte arteko hazkundera txikitzen joan zen 2023ko ondoz ondoko hiruhilekoetan zehar (% 4,1 lehenengoan, % 2 bigarrean, % 1,9 hirugarrenean eta % 2 laugarrenean).

Sektoreka, zerbitzuak % 3,2 hazi ziren 2023an, eta hazkunde handiena izan zuten hurrengoak eraikuntza (% 2,3) eta industria-sektorea (% 1,8) izan ziren. Aldiz, lehen sektoreak atzera egin zuen (-% 1,9), baina aurreko urtean baino askoz gutxiago (2022an -% 19,8).

2.1. TAULA

BPG-AREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAREN BILAKAERA ETA AURREIKUSPENAK

	Urtekoa			Aurreikuspenak	
	2021	2022	2023	2024	2025
MUNDUKO BPG	6,5	3,5	3,2	3,2	3,2
Ekonomia aurreratuak	5,7	2,6	1,6	1,7	1,8
Eurogunea	5,9	3,4	0,4	0,8	1,5
Alemania	3,2	1,8	-0,3	0,2	1,3
Espainia	6,4	5,8	2,5	1,9	2,1
Frantzia	6,3	2,5	0,9	0,7	1,4
Italia	8,3	4,0	0,9	0,7	0,7
Erresuma Batua	8,7	4,3	0,1	0,5	1,5
Estatu Batuak	5,8	1,9	2,5	2,7	1,9
Japonia	2,6	1,0	1,9	0,9	1,0
Ekonomia sortu berriak eta garapen bidean daudenak	7,0	4,1	4,3	4,2	4,2
Brasil	4,8	3,0	2,9	2,2	2,1
Txina	8,5	3,0	5,2	4,6	4,1
India	9,7	7,0	7,8	6,8	6,5

Iturria: NDF, WEO txostena. 2024ko apirilean eguneratua.


2023an, familien eta administrazio publikoen amaierako kontsumoa hazi izanaren ondorioz egin zuen gora, batez ere, Espainiako ekonomiak. Izan ere, kanpoko eskariak 8 hamarreneko ekarpena baino ez zion egin.

Zehazki, barne-eskariak ehuneko 1,7 puntuko ekarpena egin zion Estatuko BPGaren hazkunderari 2023an (2022an 2,9). Kanpo-eskariaren ekarpena, berriz, aipatu dugun moduan, zortzi hamarrenekoa baino ez zen izan (2,9 puntukoa aurreko ekitaldian).

Aurreko urtearekin alderatuta, familien amaierako kontsumoaren gastua % 1,8 hazi zen 2023an, eta administrazio publikoena % 3,8 hazi zen. Kapitalaren eraketa gordina, berriz, 2022an % 1,4 hazi ondoren, -% 0,4 murriztu zen 2023an.

2.1. GRAFIKOA

EAE-KO ETA ESTATUKO BPG-AREN ETA ENPLEGUAREN MAILA (2000-2023) (INDIZE ZENBAKIAK: 2000-100 BALIOAK)



Iturria: LHK-k egina, Eustaten eta EINen datuetan oinarrituta. (2024ko martxoa).

2.2 EAE-KO EKONOMIA

EAEko ekonomia % 1,8 hazi zen 2023an, eta enplegua (lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta) % 1,7 hazi zen

2023an EAEko ekonomia % 1,8 hazi zen, 2021ean eta 2022an erregistratutako hazkunde nabarmenen ostean (% 6 eta % 5,4, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, 2022aren amaierarako, jada, EAEko BPGa pandemiaren aurretik erregistratutakoa baino handiagoa zen. Estatuan, berriz, 2023ra arte itxaron behar izan zuten 2019ko maila gainditzeko.

Bestetik, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta⁴, % 1,7 hazi zen.

⁴ Honela kalkulatzen dira lanaldi osoko lanpostu baliokideak: lan egindako ordu guztiak zati lanaldi osoko lanpostuetan lan egindako orduen urteko batezbestekoa. Jarduera bat aurrera eramateko lanaldi osoko zenbat langile behar diren jakiteko aukera ematen digu horrek. Adibidez, ABEEE egoeran dagoen pertsona kopurua areagotuko balitz, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak behera egingo luke, baina ez lioke eragingo biztanleria okupatuari. Gauza bera gertatuko litzateke lehen lanaldi osoan lan egiten zuten eta orain lanaldi partzialean lan egiten duten langileen kopurua handituko balitz.

2.2. TAULA


EAE-KO BPG-A ETA ENPLEGUA, HIRUHILEKOAREN ARABERA

		BPG (Kateatutako bolumenaren indizea)	Lanaldi osoko lanpostu baliokideak
Urteko batezbestekoa	2019	112,0	974.811
	2020	101,2	914.369
	2021	107,3	939.512
	2022	113,1	965.960
	2023	115,1	982.055
4. hiruhilekoa	2019	112,9	978.335
	2020	104,4	936.517
	2021	110,2	952.773
	2022	113,9	970.015
	2023	115,8	988.299

Iturria: Eustat. 2024ko martxoa.

2.2. GRAFIKOA

EAE-KO BPG-AREN ETA ENPLEGUAREN* URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA, HIRUHILEKOAREN ARABERA




* Lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta.

Iturria: Eustat. 2024ko martxoa.

0.3. GRAFIKOA

EAE-KO, ESTATUKO ETA EUROGUNEKO BPG-A. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA (%)



Iturria: Eustat, EIN eta Eurostat (2024ko martxoa).

2023an barne-ekariak ehuneko 1,7 puntuko ekarpena egin zion EAEko hazkundeari, eta kanpo-sektoreak, hamarren batekoa

Estatuan bezala, EAEn ere barne-ekarian oinarritu zen 2023ko hazkundera. Barne-ekariaren ekarpena 1,7 puntukoa izan zen, eta kanpoko sektorearen ekarpena hamarren batekoa baino ez.

Aurreko urtearekin alderatuta, kontsumo pribatuak urte arteko % 1,5eko hazkundera izan zuen 2023an. Inbertsioa, berriz, % 2,1 hazi zen. Bestetik, kontsumo publikoa % 1,8 hazi zen.

2.3. TAULA

EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA (EKARPENAK)

Urte batetik besterako aldakuntza-tasa

	2022 (a)	2023(e)
Barne-ekariak BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	6,7	1,7
Kanpo-saldoak BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	-1,2	0,1
BPG	5,4	1,8

(a) Aurrerapena.

(e) Estimazioa.

(1) BPGaren aldakuntzari egindako ekarpenaren/kenketaren ehuneko puntuak.

Iturria: Eustat. 2024ko martxoa.

Zerbitzuen sektorea (% 2,4) eta eraikuntza (% 2,1) izan ziren dinamikoenak 2023an. Industria-sektorea, berriz, % 0,3 bakarrik hazi zen.

Sektorearen arabera, zerbitzuen sektorea (+% 2,4), eraikuntza (+% 2,1) eta industria (+% 0,3) hazi egin ziren 2023an, baina aurreko ekitaldian baino neurri txikiagoan. Bestetik, lehen sektoreak jaitsiera apalagoa izan zuen (-% 3, eta aurreko ekitaldian -% 8,7).

2.4. TAULA

EAE-KO ALDAGAI MAKROEKONOMIKOAK (Urte arteko aldakuntza-tasa)

	2019	2020	2021	2022 ^(a)	2023*
ESKARIA					
Azken kontsumoaren gastua	2,0	-8,9	5,2	6,0	1,5
- Familien eta horien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeen azken kontsumoa	1,7	-12,1	5,8	7,7	1,5
- Administrazio Publikoen azken kontsumoa	3,1	2,9	3,2	0,7	1,8
Kapital Eraketa Gordina	3,3	-12,1	5,9	8,7	2,1
Barne-eskaria	2,3	-9,7	5,3	6,7	1,7
Esportazioak, guztira	-0,2	-15,9	10,7	17,1	1,2
Inportazioak, guztira	0,0	-15,8	9,4	18,7	1,0
BPG	2,2	-9,6	6,0	5,4	1,8
ESKAINNTZA					
Lehen sektorea	5,9	-16,9	15,1	-8,7	-3,0
Industria	1,4	-12,2	5,3	4,7	0,3
- Manufaktura-industria	1,1	-13,1	9,0	4,4	0,5
Eraikuntza	2,4	-14,4	1,0	6,7	2,1
Zerbitzuak	2,5	-7,9	6,6	5,9	2,4
- Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	2,2	-20,4	15,6	14,6	3,7
- Administrazio Publikoak, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	3,2	1,1	2,3	0,9	2,3
- Gainerako zerbitzuak	2,4	-4,3	4,1	3,2	1,6
Oinarrizko prezioei erantsitako balioa	2,3	-9,4	6,1	5,5	1,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	-11,9	5,2	4,6	1,6
BPG	2,2	-9,6	6,0	5,4	1,8
Pertsona okupatuak (lanaldi osoko lanpostu baliokideak)	1,5	-6,2	2,7	2,8	1,7
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,7	-3,6	3,2	2,6	0,1

(a) Aurrerapena.

(*) Estimazioa.

Iturria: Eustat. 2023ko martxoa.


EAEko ekonomiaren ageriko produktibitatea % 0,1 hazi zen 2023an

Ageriko produktibitatea: BPGa zati lanaldi osoko lanpostu baliokideetako enplegua.

EAEko ekonomiaren produktibitateari dagokionez, 2023an % 0,1eko hazkunde txikia izan zuen ageriko produktibitateak, aurreko urtearekin alderatuta.

2.4. GRAFIKOA


AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN* BILAKAERA EAE-N (2008. URTEA=100)



* BPG (kateatutako bolumenaren indizea) / Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: LHK-k egina, Eustaten datuetan oinarrituta (Kontu Ekonomikoak, 2024ko martxoa).

2.5. GRAFIKOA

AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN* HAZKUNDEEN BILAKAERA EAE-N (AURREKO URTEAREKIKO HAZKUNDEAK)



* BPG (kateatutako bolumenaren indizea) / Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: LHK-k egina, Eustaten datuetan oinarrituta (Kontu Ekonomikoak, 2024ko martxoa).

2.5. TAULA**BARNE PRODUKTU GORDINAREN BILAKAERA (ERRENTA, EAE)**

PREZIO ARRUNTAK (OINARRIA 2015), MILIOI EURO								
	BANAKETA EHUNEKOTAN				BANAKETA EHUNEKOTAN			
	2019	2020	2021	2022 ^(a)	2019	2020	2021	2022 ^(a)
Soldatapekoen ordainsaria (1)	37.434	35.749	37.673	40.135	47,06	49,77	48,27	46,52
Ustiapenaren soberakin gordina (2)=(3)+(4)	33.759	29.086	32.269	37.267	42,44	40,49	41,35	43,20
Ustiapenaren soberakin garbia (3)	25.797	21.474	24.573	28.902	32,43	29,90	31,49	33,50
Kapital finkoaren kontsumoa (4)	7.961	7.611	7.696	8.365	10,01	10,60	9,86	9,70
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak (5)	8.345	6.994	8.097	8.865	10,50	9,74	10,38	10,28
Merkatuko prezioen BPG (1)+(2)+(5)	79.537	71.829	78.039	86.266	100,00	100,00	100,00	100,00

(a): Aurrerapena.

Iturria: Eustat. 2024ko martxoa.

BPGa aztertzean errentaren banaketa aintzat hartzen badugu⁵, ikuspegi makroekonomikotik, 2022an soldatapekoen ordainsariak EAEko BPGaren % 46,52 ordezkatu zuten, ustiapenaren soberakin gordinak % 43,2, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek gainerako % 10,28a. Errentaren banaketa hori 2019koarekin alderatuz gero (pandemiaren urteak kanpoan utzita), soldatapekoen ordainketa 0,54 puntu murriztu zen, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbien partaidetza 0,22 puntu. Aldiz, 2019arekin alderatuta, 0,76 puntu hazi zen ustiapenaren soberakin gordina, eta BPGaren % 43,2koa izatera iritsi zen 2022an.

2023ko abenduan EAEko KPIa % 3,1ekoa zen, eta azpiko inflazioa % 3,9koa

Prezioen bilakaerarekin lotuta, 2023an batez beste % 3,6 hazi zen KPIa EAEn, hau da, 2022an (% 8) baino dezente gutxiago.

2023an zehar, prezioen urte arteko hazkundearen erritmoa pixkanaka jaisten joan zen. Urtarrilean ia % 6koa zen hazkunde-tasa (% 5,6 EAEn, % 5,9 Estatuan), eta abenduan % 3 ingurukoa (% 3,1 EAEn eta Estatuan).

⁵ Honekin lotuta, aipatu beharrekoa da EAEko BPGaren banaketari dagozkion datuak (errenten aldetik) urtebeteko atzerapenarekin jartzen dituztela eskuragarri, kapitulu honetan emandako gainerako informazioarekin alderatuta.

2.6. TAULA**KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA (KPI, 2023)**

	EAE	ESTATUA
Indize orokorra (urteko batezbestekoa)*	3,6	3,5
Indize orokorra**	3,1	3,1
<i>Azpikoa**</i>	3,9	3,8

* 2023ko batez besteko balioaren aldakuntza-tasa, 2022ko batez besteko balioarekiko.

** Urte arteko aldakuntza-tasak, abendutik abendura.

Iturria: LHK-k egina, EINen datuetan oinarrituta.

Azpiko inflazioa: prezioen indize orokorraren aldakuntza, prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kontuan hartu gabe, horien prezioek gorabehera handiagoak izaten dituztelako.

2023ko abenduan, EAEko KPIaren urte arteko hazkundera % 3,1ekoa izan zen. 2022ko abenduan, berriz, urte arteko hazkundera % 5,4koa zen.

Etorkizunera begira, erakunde nagusiek hazkunde apala izango dela aurreikusten dute, eta inflazio-tasak, ziur asko, baxuagoak izango direla. Hala ere, ziurgabetasuna handia da oraindik

Azkenik, etorkizunera begira, EAEren eta gure inguruko ekonomien hazkundera apal mantenduko da, ziurgabetasunak altua izaten jarraitzen baitu hainbat faktoreren ondorioz, adibidez: gerra-gatazkak, tentsio geopolitikoak eta inflazioaren eta interes-tasen bilakaera.

ONDORIOAK

- 2023an % 3,2 hazi zen munduko ekonomia, hau da, 2022an baino hiru hamarren gutxiago.
- Espainiako ekonomia % 2,5 hazi zen 2023an, eta pandemiaren aurreko jarduera maila gainditu zuen azkenean.
- EAEko BPGa (2022aren amaierarako pandemiaren aurreko mailara iritsi zen) % 1,8 hazi zen, eta enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, % 1,7 hazi zen.
- Estatuan bezala, EAEn ere barne-eskarian oinarritu zen 2023ko hazkundea. Barne-eskariaren ekarpena 1,7 puntukoa izan zen, eta kanpoko sektorearen ekarpena hamarren batekoa baino ez.
- 2023ko alderdirik garrantzitsuenetako bat prezioen hazkundea moteldu izana izan zen.
- 2023ko abenduan, EAEko KPIaren urte arteko hazkundea % 3,1era jaitsi zen, eta azpiko inflazioa % 3,9koa izan zen.

3

ENPLEGUA, KONTRATAZIOA ETA LANEKO KOSTUAK

3.1. SARRERA

Gure Erkidegoko lan-merkatuaren egoera aztertuko dugu kapitulu honetan. Horretarako, estatistika eta erregistro administratibo nagusiak erabiliko ditugu.

Informazioa ikuspegi bikoitzetik eskaintzen da: laginaren ikuspegitik eta erregistroaren ikuspegitik. Izan ere, erabilitako iturriak osagarritzat hartzen ditugu, eta analisia hobetzen laguntzen dute.

EAEko biztanleria aktiboa, okupatua eta langabetua aztertzeko, Eustatek argitaratzen duen Biztanleriaren Jardueraren Araberako inkesta (BJA) erabiliko dugu. Eta, Estatuaren kasuan, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) eta honakoen inguruan argitaratutako datuak erabiliko ditugu: erregistratutako langabezia, jakinarazitako kontratazioa eta Gizarte Segurantzako afiliazioa.

Aipatu beharrekoa da txosten hau egin dugun unean behin-behinekoa dela 2023ko BJAr buruzko informazioa, kapitulu honetan erabili duguna eta 2024ko urtarrilaren 19an argitaratua. Hortaz, informazio horrek aldaketa txiki batzuk izan ditzake Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) behin-betiko datuak argitaratzen dituenean.

Azkenik, 2023ko ekitaldiko informazioa aztertzeko aurreko urteetako emaitzekin alderatu badugu ere, egokitzat ikusi dugunean 2019ko datuekin alderatu dugu informazioa, hau da, pandemia agertu aurreko urteko datuekin. Izan ere, pandemiak inpaktu handia izan zuen 2020an eta 2021ean.

3.2. LAN MERKATUA ETA ENPLEGUA EAE-N

3.2.1. BIZTANLERIA AKTIBOA

2023an 7.800 pertsonako hazkundera izan zuen EAEko biztanleria ez-aktiboak, aurreko urtearekin alderatuta; biztanleria aktiboa, berriz, ez zen apenas aldatu

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) argitaratzen duen Biztanleriaren Jardueraren Araberako inkestaren (BJA) arabera, 2023an 7.400 pertsonako hazkundera izan zuen 15 urtetik gorako biztanleriak, aurreko urtearekin alderatuta. Biztanleria aktiboa ia berdin mantendu zen (400 pertsona gutxiago), eta biztanleria ez-aktiboa 7.800 pertsona handitu zen (+% 1).

Dena den, 2023ko datuak 2019koekin alderatzen baditugu, pandemiaren aurretik baino maila baxuagoan dago oraindik ere biztanleria aktiboa (3.400 pertsona gutxiago; -% 0,3). Biztanleria ez-aktiboa, berriz, aipatutako ekitaldian baino 20.300 pertsona handiagoa da (+% 2,5).

Biztanleria aktiboa: Hamasei urte edo gehiago izanik, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten (pertsona okupatuak) edo horretarako prest dauden eta ordaindutako enpleguaren bila ari diren pertsonak (pertsona langabetuak) osatzen dute biztanleria aktiboa. Iturria: Eustat.

Biztanleria ez-aktiboa: Honako egoeretako batean dagoen biztanleria:

- Pentsioa jasotzen.
- Irakaskuntza motaren bat jasotzen.
- Etxeko lanak egiten edo partekatzen.
- Oinarrizko jardueretarako laguntza beharrean (euren burua garbitu, jantzi, mugitu...).
- Boluntariora sozialeko zereginak egiten.
- Beste biztanle ez-aktibo batzuk (eskolatu gabeko adingabeak, oposizioak, errentadunak, etab.).

Iturria: Eustat.

Sexuaren arabera, gizon aktiboaren kopurua -% 0,2 murriztu zen aurreko urtetik. Biztanleria aktiboaren baitako emakumeen kopurua, berriz, % 0,2 hazi zen. Bestetik, biztanleria ez-aktiboak urte arteko +% 1eko hazkundera izan zuen, eta gizonen zein emakumeen kopuruak egin zuen gora (+% 1,4 eta +% 0,7, hurrenez hurren).

Biztanleriaren pixkanakako zahartzeak, zalantzarik gabe, lagundu egiten dio biztanleria ez-aktiboaren hazkunderari; eta biztanleria aktiboaren adin-tarteak aztertzean ere nabari da. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, biztanleria aktiboak behera egin zuen tarteko estratuan, 25-44 urte artekoan (-% 2,5). Aldiz, gora egin zuen gazteenen (+% 0,9) eta adinekoen kasuan (+% 1,9).

3. 1. TAULA**16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN ETA EZ-AKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2022-2023**

	BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)		ALDAKUNTZA TASAK
	2022	2023**	23/22
≥ 16 urteko biztanleria	1.864,7	1.872,1	0,4
Sexuaren arabera			
Gizonak	895,2	898,6	0,4
Emakumeak	969,5	973,5	0,4
Adinaren arabera			
16-24 urte	185,1	192,1	3,8
25-44 urte	498,0	486,2	-2,4
45 eta gehiago	1.181,5	1.193,9	1,0
Biztanleria ez-aktiboa	812,7	820,5	1,0
Sexuaren arabera			
Gizonak	347,4	352,1	1,4
Emakumeak	465,3	468,4	0,7
Adinaren arabera			
16-24 urte	128,0	134,5	5,1
25-44 urte	58,2	57,4	-1,4
45 eta gehiago	626,5	628,6	0,3
Biztanleria aktiboa	1.052,0	1.051,6	0,0
Sexuaren arabera			
Gizonak	547,8	546,5	-0,2
Emakumeak	504,2	505,1	0,2
Adinaren arabera			
16-24 urte	57,1	57,6	0,9
25-44 urte	439,9	428,8	-2,5
45 eta gehiago	555,0	565,3	1,9

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Jarduera-tasa % 56,2koa izan zen 2023an, hau da, 2022an baino bi hamarren baxuagoa, eta 2019an (% 56,9) baino zazpi hamarren baxuagoa. Gizonen eta emakumeen arteko aldea ehuneko 8,9 puntukoa izan zen 2023an, aurreko urtean baino baxuagoa (2022an 9,2 puntukoa).

2023an bi hamarren jaitsi zen jarduera-tasa (% 56,2), 2022an erregistratutakoarekin alderatuta

Jarduera-tasa: 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean aktiboak diren biztanleen proportzioa. Iturria: Eustat.

Adin-tartearen arabera, aurreko urtearekin alderatuta, adineko pertsonen kasuan bakarrik hazi zen jarduera-tasa (2022an % 47 eta 2023an % 47,3). Aldiz, behera egin zuten gazteenen jarduera-tasak (% 30,8tik % 30era) eta 25 eta 44 urte artekoen jarduera-tasak (% 88,3tik % 88,2ra).

Aitzitik, Estatuan 2023an % 58,9ra igo zen jarduera-tasa (2022an % 58,5koa izan zen).

3.2. TAULA

JARDUERA TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2022-2023

	EAE*		ESTATUA	
	2022	2023**	2022	2023
Jarduera-tasa	56,4	56,2	58,5	58,9
Sexuaren arabera				
Gizonak	61,2	60,8	63,9	64,0
Emakumeak	52,0	51,9	53,4	54,0
Adinaren arabera				
16-24 urte	30,8	30,0	36,4	37,1
25-44 urte	88,3	88,2	87,8	88,3
45 eta gehiago	47,0	47,3	47,7	48,2

Jarduera-tasa: Biztanleria aktiboa/16 urteko eta gehiagoko biztanleria.

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat). BAI (EIN).

3.2.2. BIZTANLERIA OKUPATUA


2023an 9.100 pertsonako hazkundera izan zuen biztanleria okupatuak, eta 971.300 pertsonatara iritsi zen

BJAren arabera, 2023an 971.300 pertsonatara igo zen EAeko biztanle okupatuaren kopurua: aurreko urtean baino 9.100 gehiago ziren (+% 0,9), eta 2019an (951.200) baino 20.100 gehiago.

Biztanleria okupatua: Ordaindutako enplegua duten edo jarduera independenteren bat egiten duten pertsonak, eta, lanik egin ez arren, haien enpleguarekin lotura formala mantentzen dutenak. Nolabaiteko ordainsaria jasotzen bada edo 3 hilabete baino gutxiagoko epean lanera itzultzea aurreikusten bada, lotura formala dagoela esan daiteke. Iturria: Eustat.

3.1. GRAFIKOA

BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA). 2008-2023



* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

3.3. TAULA**BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN, ADINAREN ETA EGOERA PROFESIONALAREN ARABERA. 2022-2023**

		BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)		ALDAKUNTZA TASA
		2022	2023**	23/22
Biztanleria okupatua		962,2	971,3	0,9
Sexuaren arabera	Gizonak	503,6	505,8	0,4
	Emakumeak	458,6	465,5	1,5
Adinaren arabera	16-24 urte	45,7	47,5	3,9
	25-44 urte	402,0	392,6	-2,3
	45 eta gehiago	514,5	531,2	3,2
Egoera profesionalaren arabera	Soldatapeko pertsonak	788,8	797,1	1,1
	Soldatapekoak ez diren pertsonak	173,4	174,2	0,5

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Biztanleria okupatuak 2023an izandako urte arteko hazkundera handiagoa izan zen emakumeen artean, gizonen artean baino (+% 1,5 eta +% 0,4, hurrenez hurren).

Adin-tarteen arabera, pertsona okupatuen kopuruak 25 eta 44 urte artekoen artean baino ez zuen izan urte arteko jaitsiera (-% 2,3). Gazteenen kasuan eta adin nagusieneko pertsonen taldean gora egin zuen okupatuen kopuruak (+% 3,9 eta +% 3,2, hurrenez hurren).

3.4. TAULA**SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, KONTRATU MOTAREN ARABERA. 2022-2023**

	SOLDATAPEKO PERTSONA OKUPATUAK (MILAKA)		ALDAKUNTZA TASA
	2022	2023**	23/22
GUZTIRA	788,8	797,1	1,1
Kontratu mugagabea	576,4	621,0	7,7
Aldi baterako kontratua	204,0	170,9	-16,2
Kontraturik gabe eta beste batzuk	8,3	5,2	-37,3

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

2023an 8.300 pertsonako urte arteko hazkundera izan zuen soldatapeko langileen kopuruak; soldatapekoak ez diren kopuruak, berriz, 800 pertsonako hazkundera baino ez zuen izan

Egoera profesionalaren arabera aztertuta, 2023an soldatapeko langileen kopurua 8.300 pertsona hazi zela ikus daiteke: urte arteko % 1,1eko hazkundera. Aldiz, soldatapekoak ez diren langileen kopurua 800 pertsona bakarrik hazi zen: urte arteko % 0,5eko hazkundera.

3.5. TAULA

SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2022-2023

SEXUA	KONTRATU MOTA	2022		2023**	
		MILAKA	%	MILAKA	%
Gizonak	GUZTIRA	394,6	100,0	398,0	100,0
	Mugagabea	303,9	77,0	325,6	81,8
	Aldi baterakoa	88,4	22,4	71,5	18,0
	Kontraturik gabe eta beste batzuk	2,4	0,6	0,9	0,2
Emakumeak	GUZTIRA	394,1	100,0	399,1	100,0
	Mugagabea	272,6	69,2	295,5	74,0
	Aldi baterakoa	115,6	29,3	99,4	24,9
	Kontraturik gabe eta beste batzuk	5,9	1,5	4,2	1,1

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.


Iturria: BJA (Eustat).

2023an % 21,4koa izan zen behin-behinekotasun tasa, aurreko ekitaldian baino ehuneko 4,5 puntu baxuagoa eta 2019an baino ia ehuneko 10 puntu baxuagoa

Behin-behinekotasun tasa soldatapeko langileen % 21,4ra jaitsi zen 2023an. Hala, 2022an erregistratutakoa baino ehuneko 4,5 puntu baxuagoa izan zen, eta 2019an izandakoa baino ehuneko 9,4 txikiagoa.

3.2. GRAFIKOA

EAE-KO SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN KONTRATU MOTAREN ARABERAKO BANAKETA PORTZENTUALAREN BILAKAERA*. 2009-2023



* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Enplegu-tasa: Pertsona okupatuen proportzioa 16 urte (beteta) eta gehiagoko biztanleria osoaren artean. Iturria: Eustat.

Enplegu-tasari dagokionez, hau da, 16 urte eta gehiago dituzten biztanle guztien gainean pertsona okupatuek duten proportzioari dagokionez, aurreko urtean baino hiru hamarren handiagoa izan zen 2023an, % 51,9koa.

Estatu-mailan, EAEn baino intentsitate handiagoaz hazi zen enplegu-tasa 2023an (% 51,7), aurreko urtearekin alderatuta, eta ia gure erkidegoko tasa berdindu zuen.

3.6. TAULA

ENPLEGU TASAREN BILAKAERA EAE-N* ETA ESTATUAN. 2022-2023

	2022	2023
EAE	51,6	51,9**
Estatua	50,9	51,7

Enplegu-tasa: Biztanleria okupatua/16 urteko eta gehiagoko biztanleria.

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.


** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat) eta BAI (EIN).

EAEko gizonen enplegu-tasa emakumeena baino dezente handiagoa da oraindik ere (% 56,3 eta % 47,8, hurrenez hurren). Hala ere, 2019arekin alderatuta, zortzi hamarren murriztu da bien arteko aldea.

3.3. GRAFIKOA

ENPLEGU TASAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN ARABERA (%). 2008-2023



* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Azkenik, aipatzekoa da lanean dagoen biztanleriaren zahartze progresiboak erronka handiak ekarriko dizkiola gizarte osoari. Izan ere, aurreikuspenen arabera, etorkizunean, lan-merkatua uzten dutenen kopurua handiagoa izango da lan-merkatura sartzen direnena baino. Aldi berean, biztanleria ez-aktiboaren pisu erlatiboa hazi egingo da EAEn eta Estatu osoan.

3.2.3. BIZTANLERIA LANGABETUA

2023an 9.400 biztanle langabetu gutxiago zeuden 2022an baino

2022an, murrizketak desagertzearekin eta jarduera berreskuratzearekin batera, biztanleria langabetuak behera egin zuen. 2023an berriz ere jaitsi zen langabetu kopurua, eta aurreko urtean baino 9.400 langabetu gutxiago erregistratu ziren (-% 10,5).

Langabezia-egoeran zeuden pertsonen kopuruak behera egin zuen gizonen kasuan (-% 7,9) eta, bereziki, emakumeen kasuan (-% 12,9). Bi kasuetan, 2019ko kopuruak baino baxuagoak izan ziren 2023koak.

Adin-tartearen arabera, 2023an langabetuen kopuruak adin-tarte guztietan izan zuen urte arteko jaitsiera eta, oro har, 2019ko zifrak baino baxuagoak erregistratu ziren, hau da, pandemia agertu aurreko ekitaldikoak baino baxuagoak. Jaitsiera handiena 44 urtetik gorakoan artean gertatu zen; % 15,8ko jaitsiera, aurreko urtearekiko.

3.7. TAULA

BIZTANLERIA LANGABETUA EAE-N

	BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)*		ALDAKUNTZA TASA
	2022	2023**	23/22
Biztanleria langabetua	89,8	80,4	-10,5
Sexuaren arabera			
Gizonak	44,2	40,7	-7,9
Emakumeak	45,6	39,7	-12,9
Adinaren arabera			
16-24 urte	11,4	10,1	-11,4
25-44 urte	37,9	36,2	-4,5
45 eta gehiago	40,5	34,1	-15,8

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).


Langabezia-tasa % 7,6ra jaitsi zen 2023an: 2008ko ekitaldiaz geroztiko langabezia-tasarik baxuenera

Langabezia-tasa % 7,6ra jaitsi zen 2023an. Hala, 2022an erregistratutakoa (% 8,5) baino ia puntu bat baxuagoa izan zen. Hori baino langabezia-tasa baxuagoa topatzeko, 2008ko ekitaldiraino (% 3,8) egin behar dugu atzera.

Generoaren araberako aldea murriztu egin zen 2023an, baina emakumeen langabezia-tasak altuagoa izaten jarraitu zuen gizonenak baino: % 7,9 eta % 7,5, hurrenez hurren. Bi kasuetan, langabezia-tasa 2019an erregistratutakoa (% 9,1 gizonen kasuan eta % 10,7 emakumeen kasuan) baino baxuagoa izan zen 2023an.

3.4. GRAFIKOA

GIZONEN, EMAKUMEEN ETA GAZTEEN LANGABEZIA EAE-N*. URTEKO BATEZBESTEKOA (MILAKA PERTSONA)




* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak. Iturria: BJA (Eustat).

Generoaren araberako aldea murriztu egin zen 2023an, baina emakumeen langabezia-tasak altuagoa izaten jarraitu zuen gizonen langabezia-tasak baino: % 7,9 eta % 7,5 hurrenez hurren

3.5. GRAFIKOA

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA* (%)



■ Gizonak ■ Emakumeak ■ Guztira

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak. Iturria: BJA (Eustat).

Adin-tarte guztietan egin zuen behera langabezia-tasak

Aurreko ekitaldian bezala, 2023an adingabeek zuten langabezia-tasarik altuena (% 17,6). Hurrengoak, distantzia dezentera, 25 eta 44 urte arteko pertsonak izan ziren (% 8,4) eta, azkenak, adin handienekoak (% 6).

Adin talde guztien kasuan, pandemiaren aurreko mailatik behera kokatu zen langabezia-tasa 2023an.

Estatuari dagokionez, 2023an langabezia-tasa % 12,2ekoa izan zen, EAEn erregistratutakoa baino ehuneko 4,6 puntu altuagoa, eta bereziki deigarria da gazteenen arteko aldea: % 17,6ko langabezia-tasa EAEn, eta % 28,7ekoa Estatuan.

3.8. TAULA LANGABEZIA TASA EAE-N* ETA ESTATUAN


	EAE		ESTATUA	
	2022	2023**	2022	2023
Urteko batezbestekoa	8,5	7,6	13,0	12,2
Sexuaren arabera				
Gizonak	8,1	7,5	11,4	10,7
Emakumeak	9,0	7,9	14,9	13,9
Adinaren arabera				
16-24 urte	20,0	17,6	29,7	28,7
25-44 urte	8,6	8,4	12,5	11,7
45 eta gehiago	7,3	6,0	11,2	10,3

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat) BAI (EIN).

3.6. GRAFIKOA LANGABEZIA TASA EAE-N* (%)



* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Lurraldearen arabera, 2023an modu orokortuan hobetu zen langabezia-tasa, aurreko ekitaldiarekiko zein 2019arekiko, gizonen zein emakumeen kasuan, eta, bereziki, Araban.

3.9. TAULA

LANGABEZIA TASA EAE-N*, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2022			2023**		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
EAE	8,5	8,1	9,0	7,6	7,5	7,9
Araba	9,5	9,5	9,4	7,8	8,0	7,5
Bizkaia	9,3	8,6	10,0	8,5	8,2	8,8
Gipuzkoa	6,9	6,6	7,3	6,3	6,1	6,5

* 2024ko urtarrilaren 19an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.


Iturria: BJA (Eustat).

Erregistratutako langabeziari dagokionez, 2023ko abenduaren amaieran 107.779 pertsona zeuden erregistratuta Lanbiden langabezia-egoeran (erregistratutako langabezia). Hortaz, erregistratutako langabeziak urte arteko -% 2,7ko jaitsiera izan zuen.

Dena den, lan-eskatzailen, okupatuaren edo langabezia-egoeran zeudenen kopuruak (296.704) urte arteko % 6,6ko hazkundera izan zuen 2023aren amaieran. 2019ko abenduarekin alderatuta, berriz, % 9,5ko hazkundera izan zuen (270.999 pertsona 2019aren amaieran). Talde hau askoz ere handiagoa da erregistratutako langabeziaren estatistikak kontuan hartzen dituen pertsonen taldea baino, eta barne hartzen ditu enplegu-eskatzaille okupatuak, prestasun mugatua dutenak eta 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) haren erregistratutako langabeziaren estatistikan txertatzen ez dituen beste kolektibo batzuk, hala nola ikasleak edota dirulaguntza jasotzen duten nekazaritzako aldi baterako langileak.

Erregistratutako Langabezia: Hilaren azken egunean alta-egoeran dauden lan-eskari guztiak, SEPEk erregistratutakoak, Erregistratutako Langabezia neurtzeko irizpide estatistikoak ezartzen dituen 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) deskribatzen dituen lan-egoerei dagozkienak kanpoan utzita.

Gogoratu beharreako da enplegu-bulegoek eta BJAK metodologia desberdinak erabiltzen dituztela langabezia erregistratzeko, eta horregatik direla datuak desberdinak. Gainera, iturrien maiztasuna ere desberdina da; BJAREN kasuan hiruhilekoko eta urteko datuak jasotzen dituzte eta, erregistratutako langabeziaren kasuan, hilekoak.

3.7. GRAFIKOA**EAE-N ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. HILEKO BILAKAERA**

Iturria: SEPE.

3.3. JAKINARAZITAKO LANEKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA (EAE)

3.3.1. BILAKAERA OROKORRA ETA ERROTAZIOA

Atal honetan, jakinarazitako kontratazioaren bilakaera aztertuko dugu, hau da, urtean zehar sinatutako kontratu finkoen edo aldi baterako kontratuen kopurua aztertuko dugu. Ondoren, 3.4 puntuan, Gizarte Segurantzako afiliazioak 2023ko abenduan zuen egoera aztertuko dugu.

Lan-merkatuaren dinamismoaren eta sortzen den enpleguaren ezaugarrien inguruko informazioa ematen digute SEPEri jakinarazitako sinatutako kontratuen kopuruari eta ezaugarriei buruzko datuek.

Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua handitzen laguntzen du laneko kontratu berriak sinatzeak. Dena den, kontratazioa handitzeak ez du beti afiliazioaren hazkundera eragiten. Izan ere, afiliatuen kopurua murriztu egin daiteke lana galtzen duten pertsonak, jubilatzen direnak edo hiltzen direnak areagotzen badira.

Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua 2022an indarrean sartu zenetik, nabarmen murriztu da aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi da kontratu finkoen kopurua, batez ere aldizkako kontratu finkoena

2022an indarrean sartu zen lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuten. Ondorioz, 2022an zehar nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.

2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratuen % 90 aldi baterakoak ziren (2019an, % 91,7); 2022an, berriz, % 75,5era jaitsi zen ehuneko hori. Bestalde, 2019. urtean sinatutako kontratu guztien artetik, % 8,3 ziren mugagabeak; 2022an, guztizkoaren % 24,5 izan ziren mota horretakoak.

Banaketa hori ia aldaketarik gabe mantendu zen 2023an. Urte horretan 730.146 kontratu sinatu ziren; horietatik % 25,5 (186.492) mugagabeak izan ziren, eta gainerako % 74,5ak (543.654) aldi baterakoak.

3.10. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

	2022	2023	BANAKETA 2023 (%)	ALDAKUNTZA TASA 23/22
GUZTIRA	815.719	730.146	% 100,0	-% 10,5
Mugagabeak	199.995	186.492	% 25,5	-% 6,8
Aldi baterakoak	615.724	543.654	% 74,5	-% 11,7

Iturria: SEPE.

2023an, jakinarazitako kontratu guztien kopurua $-10,5\%$ jaitsi zen, aurreko urtearekiko; aldi baterako kontratuak $-11,7\%$ murriztu ziren eta, mugagabeak, $-6,8\%$. Urte arteko jaitsiera txikiena izan zuen kontratu mota aldizkako finkoa izan zen, -1% bakarrik murriztu baitzen 2022arekiko.

Hala ere, sinatutako kontratu kopurua murriztu bazen ere, EAEn 2023ko abenduan Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden pertsonen kopurua milioi batetik gorakoa izan zen, azken urteetako zifrarik altuena.

3.11. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU MOTAREN ARABERA

	2022	2023	ALDAKUNTZA TASA 23/22
Mugagabeak	199.995	186.492	$-6,8\%$
Aldizkako finkoak	36.748	36.376	$-1,0\%$
Gainerako mugagabeak	163.247	150.116	$-8,0\%$
Aldi baterakoak	615.724	543.654	$-11,7\%$
Praktikak eta formakuntzakoak	7.102	6.296	$-11,3\%$
Gainerako aldi baterakoak	608.622	537.358	$-11,7\%$
GUZTIRA	815.719	730.146	$-10,5\%$

Iturria: SEPE.

2023an $-6,8\%$ murriztu zen sinatutako kontratu mugagabeen kopurua, eta $-11,7\%$ aldi baterako kontratuen kopurua. Urte arteko jaitsiera txikiena izan zuen kontratu mota aldizkako finkoa izan zen, -1% bakarrik murriztu baitzen aurreko urtearekiko

3.12. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2022	2023	ALDAKUNTZA TASA 23/22
Mugagabeak Gizonak	102.698	98.254	$-4,3\%$
Aldizkako finkoak	19.613	19.444	$-0,9\%$
Gainerako mugagabeak	83.085	78.810	$-5,1\%$
Aldi baterakoak	303.696	259.613	$-14,5\%$
Praktikak eta formakuntzakoak	4.546	3.959	$-12,9\%$
Gainerako aldi baterakoak	299.150	255.654	$-14,5\%$
GIZONAK GUZTIRA	406.394	357.867	$-11,9\%$
Mugagabeak Emakumeak	97.297	88.238	$-9,3\%$
Aldizkako finkoak	17.135	16.932	$-1,2\%$
Gainerako mugagabeak	80.162	71.306	$-11,0\%$
Aldi baterakoak	312.028	284.041	$-9,0\%$
Praktikak eta formakuntzakoak	2.556	2.337	$-8,6\%$
Gainerako aldi baterakoak	309.472	281.704	$-9,0\%$
EMAKUMEAK GUZTIRA	409.325	372.279	$-9,1\%$
GUZTIRA	815.719	730.146	$-10,5\%$

Iturria: SEPE.

Sexuaren arabera, 2022arekin alderatuta, jakinarazitako kontratu kopurua apur bat gehiago jaitsi zen gizonen kasuan (-% 11,9), emakumeen kasuan baino (-% 9,1).

Aldi baterako kontratuak haien iraupenaren arabera aztertuz gero, ikus dezakegu iraupen laburrenekoak (7 egun edo gutxiagokoak, eta 8 egun eta 1 hilabete artekoak) eta zehaztu gabeko iraupena zutenak izan zirela gehienak: 2023an formalizatutako aldi baterako kontratu guztien % 79,2.

3.13. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BILAKAERA, KONTRATUAREN IRAUPENAREN ARABERA. 2022-2023

	7 EGUN EDO GUTXIAGO	8 EGUN ETA 1 HILABETE ARTEAN	1 ETA 3 HILABETE ARTEAN	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN	6 HILABETE ETA 1 URTE ARTEAN	1 URTE BAINO GEHIAGO	ZEHAZTU GABEA	GUZTIRA
2022	233.704	113.461	69.129	42.810	13.184	4.147	139.289	615.724
2023	229.992	103.759	65.162	32.742	11.906	3.543	96.550	543.654
Banaketa 2022	% 38,0	% 18,4	% 11,2	% 7,0	% 2,1	% 0,7	% 22,6	% 100,0
Banaketa 2023	% 42,3	% 19,1	% 12,0	% 6,0	% 2,2	% 0,7	% 17,8	% 100,0


Iturria: SEPE.

Pertsona bakoitzak urtean sinatutako kontratu kopuruak behera egin zuen berriro 2023an, eta 2,51n kokatu zen, azken urteetako baliorik baxuenean

Errotazio-indizea: kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsona kopuruaren arteko zatidura.

3.8. GRAFIKOA

ERROTATIOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: SEPEren Informazioa Aztertze Sistemak. 2024ko urtarrilean eguneratutako datuak.

Sinatutako guztizko kontratu kopurua jaitsi izanari esker eta aldi baterako kontratazioaren jaitsiera handiari esker, txandakatzeak (pertsona bakoitzak urtean sinatutako kontratu kopurua) behera egin du berriro, eta 2,51n kokatu da; aztertutako aldiko (2008-2023) baliorik baxuena da.

3.14. TAULA**JAKINARAZITAKO KONTRATUAK ETA KONTRATATUKO PERTSONAK EAE-N, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Jakinarazitako kontratuak (1)	145.851	356.417	227.878	730.146
Kontrataturako pertsonak (2)	57.764	141.976	91.609	291.349
<i>Errotazioa (1)/(2)</i>	<i>2,52</i>	<i>2,51</i>	<i>2,49</i>	<i>2,51</i>

Iturria: SEPEren Informazioa Aztertzeko Sistema. 2024ko urtarrilean eguneratutako datuak.


Hala, sinatutako kontratu kopuruaren aldakuntzak lan-merkatuan izan duen eragina hobeto ulertzeko, Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera aztertu behar da, kontratu motaren arabera. Horixe egingo dugu hurrengo epigrafean.

3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA ⁶

2023ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu-kopurua (hileko batezbestekoa) milioi bat pertsonatik gorakoa izan zen, azken urteetako zifrarik altuena

3.9. GRAFIKOA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONA KOPURUA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA). 2008-2023



Iturria: Gizarte Segurantza.

2023ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua (hileko batezbestekoa) milioi bat pertsona baino apur bat handiagoa izan zen EAEn (1.012.947 pertsona), azken urteetako zifrarik altuena.

Erregimen Orokorrean 20.620 afiliatu gehiago zeuden 2022an baino; aldiz, Langile Autonomoen Erregimen Bereziko afiliatu kopurua -1.735 pertsona jaitsi zen

Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsona kopurua hazi egin zen; 20.620 pertsona gehiago izan ziren, eta horrek eragin zuen guztizko afiliazioaren hazkundea, 18.870 pertsonakoa (+% 1,9). Izan ere, Erregimen Orokorreko hazkundeak konpentsatu egin zuen Langile Autonomoen Erregimen Berezian izandako jaitsiera, -1.735 pertsonakoa.

Gainerako erregimenetan, aldakuntza absolutuak oso txikiak izan ziren, eta eragin txikia izan zuten afiliatuen kopuru totallean. Zehazki, Etxeko Langileen Sistema Berezian inskribatutako pertsona kopurua apur bat baino ez zen hazi: 2022aren amaieran 28.081 pertsona zeuden afiliatuta, eta 2023ko abenduan 28.152.

⁶Afiliatuen kopurua ez dator bat, nahitaez, langileen kopuruarekin. Lan-harremanak edo afiliatuta egoteko betebeharrak sortzen duten egoerak dira; hau da, pertsona bera zenbat aldiz kontabilizatzen den estatistiketan afiliazio-egoera gisa, dela lan-harreman bat baino gehiago dituelako erregimen berean, dela harreman bat baino gehiagotan dituelako. Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko langileen kasuan eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziko langileen kasuan, altan dauden eta lan-harremanak ez dituzten pertsonak kontabilizatzen dira.

3.15. TAULA**LANEKO ALTA EGOERAN DAUDEN AFILIATUAK EAE-N, ERREGIMENAREN ARABERA
(HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOAK)**

Erregimena	Sexua	2022ko abe.	2023ko abe.	Aldakuntza 2023/2022
AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA	Gizonak	101.610	100.204	-1,4
	Emakumeak	63.617	63.287	-0,5
	Guztira	165.228	163.493	-1,1
ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Besteren kontura)	Gizonak	2.724	2.793	2,5
	Emakumeak	284	316	11,3
	Guztira	3.008	3.109	3,4
ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Norbere kontura)	Gizonak	203	176	-13,3
	Emakumeak	85	71	-16,5
	Guztira	288	247	-14,2
NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA	Gizonak	2.331	2.263	-2,9
	Emakumeak	1.436	1.394	-2,9
	Guztira	3.768	3.658	-2,9
ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEENTZAKO ERREGIMEN BEREZIA)	Gizonak	1.107	1.124	1,5
	Emakumeak	26.973	27.028	0,2
	Guztira	28.081	28.152	0,3
ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	Gizonak	1.700	1.672	-1,6
	Emakumeak	285	277	-2,8
	Guztira	1.985	1.949	-1,8
ERREGIMEN OROKORRA	Gizonak	405.602	414.989	2,3
	Emakumeak	386.117	397.351	2,9
	Guztira	791.719	812.339	2,6
SISTEMA GUZTIRA		994.077	1.012.947	1,9

Iturria: Gizarte Segurantza.

EAEko afiliatu kopuruaren hazkundearen zatirik handiena sektore pribatuan gertatu zen: 12.909 afiliatu gehiago. Sektore publikoko afiliatu kopuruak, berriz, 5.961 pertsonako hazkundera baino ez zuen izan. Termino erlatiboetan, langile publikoen kopurua % 3,9 hazi zen aurreko urteko hilabete berarekiko, eta sektore pribatuko langile kopurua % 1,5 bakarrik hazi zen.

3.16 TAULA.**EAE-N AFILIATUTAKO PERTSONAK, SEKTORE PUBLIKOAK EDO PRIBATUAK
DIREN KONTUAN HARTUTA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOAK)**

	2022ko abe.	2023ko abe.	Aldea 2022-2023	Aldakuntza 2023/2022
Estatukoa	7.541	7.877	336	% 4,5
Erkidegokoa	106.313	110.878	4.565	% 4,3
Tokikoa	39.442	40.501	1.059	% 2,7
Sektore Publikoa, guztira	153.295	159.256	5.961	% 3,9
Sektore Pribatua, guztira	840.782	853.691	12.909	% 1,5
Sistema guztira	994.077	1.012.947	18.870	% 1,9

Iturria: Gizarte Segurantza.

Bestetik, atzerriko pertsonak, gizon zein emakumeek, EAEn afiliazioari egindako ekarpen garrantzitsua nabarmendu behar da. 2022ko abenduaren eta 2023ko abenduaren artean 8.412 pertsonako tasan ugaritu zen Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerriko pertsonen kopurua.

3.17. TAULA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLEAK (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)

	Hileko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduaren 31n		ALDAKUNTZA TASA
	2022	2023	23/22
Gizonak	45.480	50.216	10,4
Emakumeak	37.742	41.420	9,7
Guztira	83.223	91.635	10,1

Iturria: Gizarte Segurantza.

Aipatu dugun moduan, EAEn Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsona kopurua hazi egin zen: 20.620 pertsona gehiago izan ziren 2022ko abenduaren eta 2023ko abenduaren artean. Lanaldi osoko kontratu mugagabea zuten afiliatu kopuruaren hazkundeak (+18.186 pertsona) eragin zuen gorakada hori, batez ere. Aldiz, aldi baterako kontratuak zituzten afiliatuen kopurua murriztu egin zen: 4.497 pertsona gutxiago izan ziren. Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea zuten afiliatuen kopurua jaitsi egin zen (5.201 pertsona gutxiago), eta aldizkako finkoen kopurua ere jaitsi egin zen (1.774 pertsona gutxiago).

3.18. TAULA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, KONTRATU ETA LANALDI MOTAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)

	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2022ko abe.	437.092	98.709	27.201	100.633	45.852	82.233	791.719
2023ko abe.	455.278	103.910	28.975	98.706	43.282	82.188	812.339
Aldeak 2023-2022	18.186	5.201	1.774	-1.927	-2.570	-45	20.620
Aldakuntza % 2023/2022	4,2	5,3	6,5	-1,9	-5,6	-0,1	2,6


(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta laneoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.

2023aren amaieran, lanaldi osoko kontratu mugagabe batekin Gizarte Segurantzaren afiliatutakoen kopurua 18.186 pertsonako hazi zen, eta aldizkako langile finkoen kopurua 1.774 pertsona hazi zen. Lanaldi osoko aldi baterako kontratua zuten pertsonen kopuruak, berriz, 1.927 pertsonako jaitsiera izan zuen

3.10. GRAFIKOA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONEN ALDAKUNTZA ABSOLUTUA, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDIAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA). 2022KO ABENDUA - 2023KO ABENDUA



(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.


Beste batzuk⁷ ataleko afiliatuak (gehienak funtzionarioak) alde batera uzten baditugu, eta lan-kontratuak duten afiliatuak bi talde handitan banatzen baditugu (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratuak dutenak), honakoa ondorioztatu dezakegu: 2023ko abenduan, afiliatuen % 76,6k kontratu mugagabea zuten; 2022an (% 75,5) baino 1,1 puntu gehiago eta 2019an (% 66,8) baino ia 10 puntu gehiago.

⁷“Beste batzuk” atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Erregimen Orokorreko afiliazioa bi bloke handitan banatuta, hau da, kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak, 2023ko abenduan kontratu mugagabea zuten afiliatuen % 76,6k⁸: 2022an baino 1,1 puntu gehiago eta 2019an (% 66,8) baino ia 10 puntu gehiago

3.11. GRAFIKOA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTA DAUDEN ETA LAN KONTRATUA DUTEN PERTSONEN* BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)



(*) Ez ditu barne hartzen kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantzza.

Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen partaidetzak txikia izaten jarraitzen badu ere, apur bat handitu da horien pisua; 2022an lan-kontratua zuten afiliatu guztien % 3,8 ziren ("Beste batzuk" kanpoan utzita), eta orain % 4 dira.

3.19. TAULA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, SEKTOREAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)

	Afiliatutako pertsonak		Aldakuntza tasa
	2022ko abe.	2023ko abe.	
Lehen sektorea	1.209	1.284	6,2
Eraikuntza	36.580	37.251	1,8
Industria	156.251	158.427	1,4
Zerbitzuak	597.680	615.377	3,0
Guztira	791.719	812.339	2,6

Iturria: Gizarte Segurantzza.

⁸Adierazi den bezala, Erregimen Orokorreko afiliatuen kopurua ez dator nahitaez bat langileen kopuruarekin. Lan-harremanak edo afiliatuta egoteko betebeharrak sortzen duten egoerak dira; hau da, pertsona berak zenbat afiliazio-egoera dituen, hainbat aldiz kontabilizatzen da estatistiketan.

Sektorearen araberako banaketari dagokionez, 2023ko abenduan urte arteko hazkundera izan zuen afiliazioak, modu orokortuan: zerbitzuen sektorean 17.697 kotizatzaile gehiago zeuden (+% 3), industrian 2.176 gehiago (+% 1,4), eraikuntzan 671 gehiago (+% 1,8) eta lehen sektorean 75 (+% 6,2).

Azkenik, 2023aren amaieran, 57.911 enpresa zeuden Gizarte Segurantzaren izena emanda⁹. Hortaz, urte arteko % 0,2ko hazkundera izan zen (2022an -% 0,6). Oraindik ere 2019ko maila baino apur bat beherago gaude (ekitaldi horretan 58.958 enpresa zeuden izena emanda).

3.20. TAULA

GIZARTE SEGURANTZAN IZENA EMANDAKO ENPRESAK. ENPRESA KOPURUA (URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31N)

	ESTATUA (*)	EAE (*)	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2008	1.332.090	63.081	10.271	33.446	21.726
2009	1.264.689	61.576	10.018	32.670	21.242
2010	1.323.810	61.904	10.182	32.873	21.236
2011	1.292.153	60.873	10.030	32.313	20.903
2012	1.248.381	59.024	9.658	31.316	20.367
2013	1.246.167	57.442	9.379	30.276	20.027
2014	1.255.613	58.062	9.489	30.482	20.309
2015	1.286.565	58.700	9.579	30.860	20.543
2016	1.312.345	58.951	9.657	31.004	20.673
2017	1.326.161	59.045	9.663	31.070	20.728
2018	1.346.629	59.263	9.679	31.277	20.787
2019	1.340.415	58.958	9.657	31.183	20.656
2020	1.295.656	57.522	9.384	30.467	20.193
2021	1.332.390	58.145	9.438	30.845	20.458
2022	1.329.897	57.820	9.427	30.661	20.402
2023	1.338.191	57.911	9.458	30.790	20.382

(*) Estatuko enpresen guztizkoak ez du zertan bat etorri autonomia-erkidego bakoitzeko enpresen baturarekin. Izan ere, autonomia-erkidego bakoitzeko datuak erkidego horretan lantokiren bat duten enpresei dagozkie, eta enpresa batek hainbat autonomia-erkidegotan izan ditzake lantokiak. Arrazoi bera dela eta, autonomia-erkidegoko enpresen guztizkoak ez du zertan bat etorri lurralde historiko bakoitzeko enpresen baturarekin.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

2023aren amaieran EAEn Gizarte Segurantzaren izena emanda zeuden enpresen kopurua hazi egin zen aurreko urtearekiko, baina 2019an baino gutxiago erregistratu ziren Estatuan zein EAEn

Lurraldearen arabera, izena emandako enpresen kopuruak urte arteko hazkunde txikia izan zuen Araban eta Bizkaian (+% 0,3 eta +% 0,4, hurrenez hurren). Aldiz, behera egiten jarraitu zuen Gipuzkoan (-% 0,1). Lurralde bakar batean ere ez zuten berreskuratu pandemiaren aurreko maila.

Estatuan ere, urte arteko hazkunde txikia izan zuen izena emandako enpresen kopuruak (+% 0,6), eta, kasu honetan ere, 2019ko zifratik behera kokatu zen.

⁹Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak argitaratutako informazioa, besteren konturako Gizarte Segurantzako Erregimen guztien (Etxeko Langileen Sistema Berezia izan ezik) Kotizazio Kontuen fitxategiaren berriazko ustiapenaren bidez eskuratutakoa. Haien ardurapean langileak dituzten pertsona fisiko enpresariak (langile autonomoak) ere barne hartzen ditu.

3.5. SOLDATEN BILAKAERARI BURUZKO AURRETIAZKO GOGOETAK

Soldaten bilakaera neurtzeko modu bat baino gehiago daude, eta emaitza ezberdina da erabilitako metodologiaren arabera

Azken urteetan soldatek izan duten bilakaera ezagutu nahi badugu, kontuan hartu behar dugu galdera horrek ez duela erantzun bakar bat. Izan ere, aurreko ataletan azaltzen saiatu garen moduan, gaur egun egiten diren erregistroek eta eragiketa estatistikoek errealitate beraren ikuspegi partzialak eskaintzen dituzte, eta emaitzak ezberdinak dira fokua jarri dugun lekuaren arabera eta erabilitako metodologiaren arabera.

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da hurrengo kapituluan aztertuko ditugun hitzarmen kolektiboetan adostutako soldata-igoerek horixe bakarrik hartzen dutela barne: adostutako soldata-igoerak. Kanpoan utzi ditugu enpresaren bilakaeraren eta emaitzen arabera langile batek jaso litzakeen soldataz kanpoko ordainsariak, aparteko orduak, hainbat osagarriren ordainketa (antzinatasuna, txandak, gauak, produktibitatea, helburuen lorpena...), eta horiek langilearen ordainsarien gainean izan lezaketen eragina.

Gainera, hitzarmenean adostutako batez besteko soldata-igoerak ez ditu barne hartzen langileek haien hitzarmenak luzapen egoeran zituzten bitartean beharbada izandako soldata-igoerak, ez dakigulako langile hauei nolabaiteko igoeraren bat aplikatu zaien ala ez. Negoziazio kolektiboaren eraginpean ez dauden langileek, hau da, haien lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez araututa ez dituztenek, izan zitzaketen soldata-igoerak ere ez ditugu gehitu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, IV. kapituluan esan bezala, EAEn eragina duten hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,22koa izan zen 2023an.

Bestetik, langile bakoitzeko laneko kostuari buruzko informazioa ematen du EINek egiten duen Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkestak (LKHI). Soldataren kostuaz gain, beste kostu batzuk ere aintzat hartzen ditu, hala nola soldataz kanpoko ordainsariak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak.

Zentzu horretan, EINek batez besteko laneko kostuaren gaineko informazioa ematen du. Ordainsarien egitura aldatu ez arren, datu hori aldatu egin daiteke urte batetik bestera, enpresa bateko langileen osaera aldatu delako, adibidez, kategorija jakin bateko langile kopurua handitu edo txikitu delako. Edo, osagarri jakin batzuk ordaintzearen edo ez ordaintzearen ondorioz ere alda daiteke.

Hala, aipatu beharrekoa da ABEEE baten eraginpeko pertsonen haien enpresako plantillaren parte izaten jarraitzen dutela, baina ez zaie soldata ordaintzen; horren ordez, zuzenean Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) emandako prestazioak jasotzen dituzte eta, kasu batzuetan, enpresek eurek osatzen dute ordainsaria. Gainera, enpresek egin beharreko gizarte-kotizazioek eta jarduerara itzultzen diren langileen gizarte-kotizazioek nolabaiteko arintzeak izan ditzakete. Horrek guztiak eragina du Hiruhilekoko Inkestak egiten duen laneko kostuaren neurketan.

Testuinguru horretan, aipatutako inkestak erakusten duenez, EAEn % 4,5eko urte arteko hazkundea izan zuen batez besteko laneko kostuak 2023an.

Azkenik, Laneko Prezioen Indizea ere argitaratzen du EINek. Urtero argitaratzen den eragiketa estatistikoa da, eta eskulanaren prezioan izandako aldaketa ahalik eta modu homogeneoenean neurtzea du helburu, egindako lanaren kalitateak eta kantitateak izandako aldaketek neurketari eragin gabe (adibidez, laneko indarraren osaeran, lan egindako ordu kopuruan, kontratu motan, soldatapekoen ezaugarrietan... izandako aldaketek).

Hortaz, kasu honetan, ordainsarien igoerak ez luke kontuan hartuko urte batean edo bestean ordu gehiago edo gutxiago lan egin izana. Izan ere, bi urteren artean eskulanaren kostuak izandako igoerak neurtzea du helburu, osaeraren eragina kontuan hartu gabe.

Gauzak hala, krisi-egoeran dagoen enpresa batek kualifikazio maila baxueneko eta soldata baxueneko langileak kaleratuko balitu, eta gainerako langileak mantenduko balitu, batez beste soldata igo egingo litzateke, aktibo jarraitzen duten langileek kopuru bera kobratzen jarraitu arren. Hain zuzen ere, langile bakoitzeko laneko kostua igo egingo litzateke, baina Laneko Prezioen Indizeak, hasiera batean, ez luke aldaketarik jasango.

Era berean, kontuan izan behar da Laneko Prezioen Indizea kalkulatzeko lanpostuen hautaketa adierazgarria egiten dela, eta denboran zehar jarraitzen dela lanpostu horien bilakaera. Txosten hau egin den unean, eskuragarri dagoen LPIren azken informazioa 2021ari buruzkoa da.

Bestetik, soldata-igoera aztertzeko, beste gauza batzuen artean, kontuan izan behar da prezioen bilakaera, hala, erosteko ahalmena irabazi edo galdu den erabakitzeko. Eta ekonomiaren bilakaera orokorra ere aintzat hartu behar da.

Horrekin lotuta, kontuan izan behar da 2023an zehar prezioen igoerak handia izaten jarraitu zuela. Dena den, aurreko ekitaldian baino gutxiago igo ziren. Hain zuzen ere, 2022ko uztaillean, gure erkidegoko KPIaren urte arteko hazkundea gailurra jo zuen, % 10,5koa izan baitzen (Estatuan % 10,8koa). Ordutik, jaisten joan da urte arteko hazkundearen erritmoa (2022ko abenduan, % 5,4 eta 2023ko abenduan % 3,1).

2023an, batez beste, EAEn % 3,6 hazi zen KPIa eta, Estatu osoan, % 3,5.

Ekonomiaren bilakaerari dagokionez, 2023an % 1,8 hazi zen EAeko BPGa. 2022an (% 5,4) baino hazkunde txikiagoa izan zuen, baina 2023an Eurogunean (% 0,5) izandakoa baino dezente handiagoa.

3.6. LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATA

2023an % 8 hazi zen lanbide arteko gutxieneko soldata, eta 1.080 eurora iritsi zen

2023an % 8ko hazkundera izan zuen lanbide arteko gutxieneko soldatak (LGS). Hala, 80 eurotik 1.080 eurora hazi zen.

Denbora-tarte zabalagoa kontuan hartuta, eta oinarri gisa 2007. urtea (aurreko atzeraldia hasi aurreko urtea) hartuta, 2007-2023 aldian % 89,3 hazi zen lanbide arteko gutxieneko soldata. Aldiz, Estatuko KPIa % 39,7 hazi zen 2007ko urtarriletik 2023ko abendura.

*Besteren konturako langile batek egunean edo hilean jaso behar duen gutxieneko diruzko ordainsari gordina ezartzen du **lanbide arteko gutxieneko soldatak (LGS)**, jardueraren, sexuaren edo adinaren arabera bereizketarik egin gabe.*

3.21. TAULA

LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATA, LGS (ESTATUA)

	LGS (EUROAK/HILABETEKO, 14 ORDAINSAI)	LGS-REN ALDAKUNTZA (2007=100)	Estatuko KPI (URTEKO BATEZBESTEKOAK, 2007=100)
2007	570,6	100,0	100,0
2008	600,0	105,2	104,1
2009	624,0	109,4	103,8
2010	633,3	111,0	105,6
2011	641,4	112,4	109,0
2012	641,4	112,4	111,7
2013	645,3	113,1	113,3
2014	645,3	113,1	113,1
2015	648,6	113,7	112,5
2016	655,2	114,8	112,3
2017	707,7	124,0	114,5
2018	735,9	129,0	116,4
2019	900,0	157,7	117,2
2020	950,0	166,5	116,8
2021 ¹⁰	965,0	169,1	120,5
2022	1.000,0	175,3	130,6
2023	1.080,0	189,3	135,2

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa, EIN.

2007tik 2023ra, ia % 90 hazi da LGS

Eurostatek argitaratutako informazioak estatu kideen LGS alderatzen du, termino homogeneous erabilita (12 ordainsari eta erosketa-ahalmenaren parekotasuna – eap–). Hala, Eurostaten arabera, informazioa eskuragarri duten 21 estatu kideen batezbestekoa (1.167 euro, irizpide horiek kontuan hartuta) baino handiagoa izan zen estatuko LGS 2023an (1.257 euro eap).

¹⁰2021eko irailaz geroztik indarrean.

1.000 eurotik gorako gutxieneko soldata (eap, 12 ordainsari) duten herrialdeen artean Alemania da lehena (1.835), eta honakoak hurrengoak: Luxenburgo (1.789), Belgika (1.703), Holanda (1.684) eta Frantzia (1.570). Horiek guztiak 1.500 eurotik gorako gutxieneko soldatak dituzte, erosketa-ahalmenaren parekotasun-baldintzetan. Jarraian, Eslovenia (1.329), Irlanda (1.305), Espainia (1.257), Polonia (1.230), Lituania (1.072) eta Errumania (1.053) daude.

Dena den, aipatu beharrekoa da azken urte hauetan LGS igo arren, Espainiak ia posizio bera mantendu duela Europako rankingean.

3.22. TAULA

LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATA (EB) EROSKETA-AHALMENAREN PAREKOTASUN-BALDINTZETAN (EUROAK, EAP*)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023 (**)
Alemania	1.349	1.348	1.413	1.423	1.458	1.444	1.478	1.549	1.835
Luxenburgo	1.531	1.503	1.551	1.574	1.582	1.562	1.614	1.670	1.789
Belgika	1.350	1.338	1.354	1.362	1.387	1.420	1.437	1.524	1.703
Holanda	1.318	1.321	1.357	1.387	1.388	1.438	1.458	1.491	1.684
Frantzia	1.301	1.304	1.309	1.315	1.341	1.363	1.387	1.476	1.570
Eslovenia	919	910	930	968	1.020	1.077	1.163	1.187	1.329
Irlanda	1.139	1.195	1.188	1.203	1.214	1.185	1.198	1.212	1.305
Espainia	798	802	871	891	1.094	1.133	1.137	1.187	1.257
Polonia	726	758	799	826	874	986	1.022	1.044	1.230
Lituania	487	560	575	592	816	868	894	932	1.072
Errumania	413	476	540	732	790	832	837	895	1.053
Grezia	775	780	787	787	830	858	863	912	990
Portugal	681	708	730	767	796	821	864	915	987
Kroazia	587	604	634	656	709	763	790	862	969
Malta	858	861	852	864	881	877	894	905	954
Txekiar Errepublika	505	536	592	643	692	730	749	754	948
Hungaria	552	571	625	656	680	692	671	765	887
Estonia	503	546	581	602	636	691	672	692	767
Eslovakia	538	520	528	568	604	655	694	704	763
Letonia	492	497	507	561	552	548	626	599	743
Bulgaria	380	432	459	503	534	559	598	592	679

(*) Erosketa-ahalmenaren parekotasun-baldintzetan.

(**) Zenbatetsitako balioak.

Iturria: Eurostat (2024ko urtarrila).

Soldatak herrialde bakoitzeko prezioen mailaren arabera doitu ezean (erosketa-ahalmenaren parekotasuna), estatuen gutxieneko soldaten arteko aldeak nabarmen handiagoak izango lirateke.

Azkenik, gogoratu beharrekoa da Danimarkak, Italiak, Ziprek, Austriak, Finlandiak eta Suediak ez dutela legez araututako gutxieneko soldatarik. Negoziazio kolektiboa da gutxieneko soldata finkatzeko duten sistema bakarra.

3.7. LANEKO KOSTUAREN HIRUHILEKOKO INKESTA

Aurreko txostenetan bezala, epigrafe honetan, laneko kostuak aztertzeko, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) egindako Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta hartuko dugu erreferentzia gisa. Langile bakoitzeko batez besteko laneko kostuaren bilakaera aztertzen du inkesta horrek, eta barne hartzen ditu soldataren kostua (oinarrizko soldata, soldataren osagarriak, aparteko orduen ordainketak, ezohiko ordainketak eta atzerapenak), soldataz kanpoko ordainsariak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak¹¹.

Laneko kostuaren bilakaera aztertzen hasi aurretik, aurrez esan duguna gogoratzea komeni da, hau da, osaera-efektua deritzonak eragin egin diezaiokeela laneko kostuaren bilakaerari. Enplegua suntsitzen den garaietan, baliteke aldi baterako kontratua duten pertsonak eta batezbestekoa baino soldata baxuagoa duten pertsonak lana galtzea. Ondorioz, handitu egiten da soldata altuagoak dituzten pertsonak guztizkoaren gainean duten pisu erlatiboa, eta, horren eraginez, langile bakoitzeko batez besteko laneko kostuak gora egin dezake. Hala, langileen osaeraren aldaketa horrek laneko kostuaren igoera ekarriko luke.

Osaera-efektua: Lagina osatzen duten kolektiboen pisu erlatiboaren aldaketa, lan-merkatuaren sarrerako eta irteerako fluxuek eraginda.

Aitzitik, enpleguaren hazkunde-faseetan kontrako efektua gerta liteke. Izan ere, lanean dauden pertsonak baino soldata baxuagoak dituzten pertsonak sartuz gero, langile bakoitzeko batez besteko kostua jaitsi egingo litzateke.

Laneko kostua, langile eta hilabete bakoitzeko: Enpresari batentzat hilabete batez pertsona bati lana emateak zer kostu duen neurtzen du. (Laneko kostua, lan-unitate bakoitzeko).

Laneko kostua, benetako lanordu bakoitzeko. Enpresari batentzat benetako lanordu batek zer kostu duen neurtzen du (Laneko kostua, lan-unitate bakoitzeko).

Benetako orduak: Hitzartutako orduen eta aparteko orduen eta/edo ordu osagarrien arteko batura, ken lan egin gabeko orduak; lantokian galdutako orduak ez dira azken multzo horretan sartzen, benetako ordutzat hartzen baitira.

Iturria: EIN.

2023an % 4,5 hazi zen guztizko laneko kostua EAEn, aurreko urtearekin alderatuta

2023an langile bakoitzeko hileko batez besteko laneko kostua 3.441,87 eurokoa izan zen EAEn, aurreko ekitaldian baino % 4,5 handiagoa. Lanordu bakoitzeko benetako laneko kostuaren urte arteko hazkundea % 5koa izan zen.

¹¹Informazio gehiagorako, kontsultatu Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta. EIN. http://www.ine.es/dyns/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736045053&menu=metodologia&idp=1254735976596

Inkesta honek ez du barne hartzen lehen sektoreko informazioa.


Lanordu bakoitzeko benetako laneko kostua % 5 hazi zen aurreko ekitaldiarekiko

Estatu-mailan, langile bakoitzeko laneko kostua 2.993,53 eurokoa izan zen, 2022an baino % 5,5 handiagoa.

Denbora-ikuspegi zabalago batetik, eta 2008a oinarri-urte gisa hartuta, aldi honetan zehar antzeko igoera izan du laneko kostuak EAEn (+% 22,3) eta Estatuan (+% 23,1).

3.12. GRAFIKOA


LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO LANEKO KOSTUAREN BILAKAERA (INDIZEAREN ZENBAKIAK: 2008=100 BALIOAK).



Iturria: EIN.

Sektorearen arabera, EAEn, langile bakoitzeko batez besteko laneko kostu handiena industriak du, 4.256,98 euroekin; hurrengoa, distantzia apur batera, eraikuntza da (3.483,32 euro), eta, azkenik, zerbitzuak (3.221,68 euro). Batez besteko laneko kosturik altuena (industria) eta baxuena (zerbitzua) duten sektoreen arteko aldea 1.035,31 eurokoa da.

Urte arteko hazkundeari dagokionez, industriak erregistratu zuen laneko kostuaren urte arteko hazkunderik handiena (% 6,7); eraikuntza (% 4,9) eta zerbitzuak (% 3,8) izan ziren hurrengoak.

3.13. GRAFIKOA**LANGILE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO LANEKO KOSTUAREN (EUROTAN) ETA SOLDATAPEKO BIZTANLEEN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA), 2008-2023**

*2024ko urtarrilaren 18an argitaratutako datuak.

**Behin-behineko datuak.

Iturriak: Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta BJA (Eustat).

3.23. TAULA**LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO LANEKO KOSTUAREN BANAKETA, EHUNEKOETAN, EAE-N**

	BALIO ABSOLUTUAK			BANAKETA EHUNEKOETAN			ALDAKUNTZA	
	2019	2022	2023	2019	2022	2023	23/22	23/19
Langile bakoitzeko laneko kostua, guztira	3.091,7	3.293,1	3.441,9	100,0	100,0	100,0	4,5	11,3
Langile bakoitzeko soldata-kostua, guztira	2.289,9	2.424,9	2.514,0	74,1	73,6	73,0	3,7	9,8
Beste kostu batzuk	801,7	868,2	927,8	25,9	26,4	27,0	6,9	15,7
Soldataz kanpoko ordainsarien kostua	72,5	83,5	84,8	2,3	2,5	2,5	1,6	16,9
Derrigorrezko kotizazioen kostua	744,8	802,2	862,4	24,1	24,4	25,1	7,5	15,8
Gizarte Segurantzaren dirulaguntzak eta hobariak ¹²	15,7	17,5	19,3	-0,5	-0,5	-0,6	10,5	23,5

Iturria: EIN.

Laneko kostua osagaien arabera aztertuz gero, 2023an osagai guztiak modu orokortuan hazi zirela ikus dezakegu. Gure Erkidegoan, dirulaguntzen eta hobarien atalak izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (% 10,5) eta, Estatuan, soldataz kanpoko ordainketek (% 9,8). Hala, kontuan izan behar da partida horiek langile bakoitzeko kostu osoaren gainean duten pisu erlatiboa oso txikia dela bi kasuetan (guztizkoaren -% 0,6 eta % 2,4, hurrenez hurren).

¹²Enplegatzaileek Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioetan aplikatzen dituzten murrizketak, hobariak eta dirulaguntzak, langileen kolektibo jakin batzuk kontratatu izanagatik edo SEPEk haren aurrekontuaren kontura onartutako laguntzengatik.

3.24. TAULA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO LANEKO KOSTUAREN BANAKETA, EHUNEKOETAN, ESTATUAN

	BALIO ABSOLUTUAK			BANAKETA EHUNEKOETAN			ALDAKUNTZA	
	2019	2022	2023	2019	2022	2023	23/22	23/19
Langile bakoitzeko laneko kostua, guztira	2.630,9	2.838,0	2.993,5	100,0	100,0	100,0	5,5	13,8
Langile bakoitzeko soldata-kostua, guztira	1.955,2	2.115,1	2.216,6	74,3	74,5	74,0	4,8	13,4
Beste kostu batzuk	675,7	722,9	776,9	25,7	25,5	26,0	7,5	15,0
Soldataz kanpoko ordainsarien kostua	67,0	66,3	72,8	2,5	2,3	2,4	9,8	8,6
Derrigorrezko kotizazioen kostua	621,8	671,3	720,0	23,6	23,7	24,1	7,3	15,8
Gizarte Segurantzaren dirulaguntzak eta hobariak ¹³	13,1	14,7	15,9	-0,5	-0,5	-0,5	8,1	20,9

Iturria: EIN.

3.000 eurotik gorako batez besteko laneko kostua duten erkidego bakarrak izaten jarraitzen dute Madril, EAE, Katalunia eta Nafarroak

Autonomia-erkidegoen arabera azterketa konparatiboak erakusten duenez, 2023an EAEk izan zuen bigarren batez besteko laneko kosturik altuena, berriz ere; Madril bakarrik kokatu zen haren aurretik (3.542 euro). EAeren ondoren Nafarroa eta Katalunia kokatu ziren (3.240 eta 3.232 euro, hurrenez hurren), ordena horretan. Denek zuten 3.000 eurotik gorako batez besteko laneko kostua.

Gainerako erkidegoen batez besteko laneko kostuak Estatuko batezbestekoa (2.994 euro) baino baxuagoak izan ziren. Honakoek eskuratu zituzten mailarik baxuenak: Andaluzia (2.654 euro), Murtzia (2.627 euro), Kanariak (2.519 euro) eta Extremadura (2.362 euro).

3.25. TAULA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO LANEKO KOSTUA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN

	HILEKO GUZTIZKO LANEKO KOSTUA*		
	2019	2022	2023
Madril	3.089	3.333	3.542
Euskadi	3.092	3.293	3.442
Nafarroa	2.862	3.043	3.240
Katalunia	2.817	3.056	3.232
GUZTIRA	2.631	2.838	2.994
Balear Uharteak	2.544	2.682	2.936
Asturias	2.692	2.794	2.926
Aragoi	2.549	2.735	2.893
Kantabria	2.541	2.657	2.765
Errioxa	2.400	2.568	2.718
Gaztela eta Leon	2.370	2.563	2.699
Valentziako Erkidegoa	2.350	2.574	2.677
Gaztela-Mantxa	2.331	2.549	2.677
Galizia	2.401	2.551	2.671
Andaluzia	2.316	2.514	2.654
Murtzia	2.307	2.502	2.627
Kanariak	2.240	2.397	2.519
Extremadura	2.165	2.296	2.362

*Urteko batezbestekoa.
Iturria: EIN.

¹³Enpresek Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioetan aplikatzen dituzten murrizketak, hobariak eta dirulaguntzak, langileen kolektibo jakin batzuk kontratatu izanagatik edo SEPEk haren aurrekontuaren kontura onartutako laguntzengatik.

3.8. LANEKO PREZIOEN INDIZEA

Urtero argitaratzen den eragiketa estatistiko jarraitua da Laneko Prezioen Indizea (LPI), eta lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioak denboran zehar izandako aldaketa neurtzea da haren helburua.

Honako lan hau egiteko unean, 2021eko ekitaldikoa da eskuragarri dagoen azken informazioa.

Laneko Prezioen Indizeak erakusten duenez, 2021ean % 2,5 hazi ziren soldatak EAEn

*EINek urtero argitaratzen duen eragiketa estatistiko da **Laneko Prezioen Indizea (LPI)**, eta eskulanaren prezioak izandako aldaketa neurtzea du helburu, egindako lanaren kalitateak eta kantitateak izandako aldaketek neurketari eragin gabe.*


Soldaten bilakaera zintzoki islatzeko helburuz, LPI ez da batezbestekoen arabera neurtzen, Laneko Kostuaren Hiruhilekoko eta Urteko Inkestaren kasuan ez bezala. Horren ordeztu, KPIaren kasuan bezala, lanpostuen hautaketa adierazgarri bat egiten da, denboran zehar horien bilakaera aztertzen da eta, horretan oinarrituta, indize bat sortzen da.

Indize honen arabera, 2021ean +% 2,5 hazi ziren EAEko soldatak, aurreko urtearekin alderatuta. Estatuan, berriz, +% 2,1 hazi ziren.

LPIren bilakaera denbora-ikuspegi zabalagoarekin aztertzen badugu (2008-2021 aldia), antzeko bilakaera ikusten dugu EAEn eta Estatuan. Dena den, EAEn kasuan, aldi horretan metatutako hazkundea +% 13,5koa izan zen eta, Estatuaren kasuan, +% 7,3koa baino ez.

3.14. GRAFIKOA

LPI. BILAKAERA 2008-2021. EUSKADI ETA ESTATUA



Iturria: EIN.

ONDORIOAK

- BJaren arabera, 2023an 9.100 pertsonako kopuruan hazi zen biztanleria okupatua, eta 971.300 pertsonatara iritsi zen; biztanleria langabetua, berriz, 9.400 murriztu zen 2022arekiko. Soldatapeko langileen kopuruak 8.300 pertsonako hazkundera izan zuen; soldatapekoak ez diren kopuruak, berriz, 800 pertsonako hazkundera baino ez zuen izan.
- BJaren arabera, 2023an % 21,4koa izan zen behin-behinekotasun tasa, aurreko ekitaldian baino ehuneko 4,5 puntu baxuagoa eta 2019an baino ia ehuneko 10 puntu baxuagoa.
- Langabezia-tasa % 7,6ra jaitsi zen 2023an: 2008ko (% 3,8) ekitaldiaz geroztiko langabezia-tasarik baxuenera.
- Generoaren arabera aldea murriztu egin zen 2023an, baina emakumeen langabezia-tasak altuagoa izaten jarraitu zuen gizonen langabezia-tasak baino: % 7,9 eta % 7,5, hurrenez hurren.
- 2023an -% 6,8 murriztu zen sinatutako kontratu mugagabeen kopurua, eta -% 11,7 aldi baterako kontratuen kopurua. Urte arteko jaitsiera txikiena izan zuen kontratu mota aldizkako finkoa izan zen, -% 1 bakarrik murriztu baitzen aurreko urtearekiko.
- Pertsona bakoitzak urtean sinatutako kontratu kopuruak behera egin zuen berriro 2023an, eta 2,51n kokatu zen, azken urteetako baliorik baxuenean.
- 2023ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua (hileko batezbestekoa) milioi bat pertsonatik gorakoa izan zen, azken urteetako zifrarik altuena.
- Erregimen Orokorreko afiliazioa bi bloke handitan banatuta, hau da, kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak, 2023ko abenduan kontratu mugagabea zuten afiliatuen % 76,6k¹⁴: 2022an baino 1,1 puntu gehiago eta 2019an (% 66,8) baino ia 10 puntu gehiago.
- 2023aren amaieran EAEn Gizarte Segurantzaz izena emanda zeuden enpresen kopurua hazi egin zen aurreko urtearekiko, baina 2019an baino gutxiago erregistratu ziren Estatuan zein EAEn.
- 2023an % 8 hazi zen lanbide arteko gutxieneko soldata, eta 1.080 eurora iritsi zen.
- 2023an % 4,5 hazi zen guztizko laneko kostua EAEn, aurreko urtearekin alderatuta.

¹⁴Ez ditu barne hartzen kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

4

**LAN
HARREMANAK**

4.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA¹⁵

4.1.1. SARRERA

EAEko negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak laburtzen ditu atal honek. Lehenik eta behin, hitzarmen mota horien eraginpeko langileak aztertuko ditugu eta, gero, gure erkidegoko negoziazio kolektiboaren egitura aztertuko dugu.

Ondoren, negoziazioak 2023an izandako dinamika eta haren emaitzarik esanguratsuenak aztertuko ditugu. Halaber, indarrean dauden hitzarmenak negoziatu eta sinatu dituzten erakundeei buruzko informazioa eskainiko dugu. Azken atalean, EAEn gordailututako hitzarmen kolektiboen inaplikazioak aztertuko ditugu.

Bi urtetik behin, negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du Lan Harremanen Kontseiluak. Funtsean, EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboak identifikatzean eta horien eraginpeko pertsonak zehaztean datza. Horretarako, gure erkidegoko Gizarte Segurantzako kotizazioen kontuak hartzen dira abiapuntuko datutzat, baita administrazio publikoek emandako informazioa ere.

Txosten honetan agertzen diren datuak prestatzeko, 2021ean egindako azterlanaren emaitzak erabili ditugu¹⁶, eta hileroko eguneratu ditugu hitzarmenen unibertsoa eta eraginpeko langileak, argitaratutako enpresa-hitzarmenetatik eskuratutako informazioarekin.

4.1.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEEN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, argi utzi behar da negoziazio kolektiboko hitzarmenen eraginpekoak izan daitezkeen langileen artean ez direla barne hartzen funtzionarioak, horien lan-baldintzak ez direlako hitzarmen kolektiboen bidez finkatzen.

Dena den, negoziazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko pertsonen artean sartu ditugu lan-kontratua duten eta sozietate publikoetan lan egiten duten langile publikoak, baldin eta uneren batean enpresa-hitzarmenen bat sinatu badute.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, lan-baldintzak negoziazio kolektiboko hitzarmenen bidez ezar ditzaketen langileen kopurua 660.000 pertsona baino apur bat baxuagoa da EAEn.

Hala ere, horietako batzuk bakarrik egon dira hitzarmen mota horien babespean noizbait. Izan ere, jarduera batzuetako lan-baldintzak inoiz ez dira egon hitzarmen kolektiboen bidez araututa.

50.000 inguru izango lirateke egoera horretan dauden pertsonak, hau da, soldatapeko langileen % 8 baino apur bat gutxiago (funtzionarioak alde batera utzita, aipatu dugun moduan). Aldiz, negoziazio kolektiboaren eraginpean daude

¹⁵ Lan Harremanen Kontseilua (LHK) da atal honetako informazio-iturria.

¹⁶ Azterlan hau 2020an eguneratzea aurreikusten zen, baina azkenean 2021ean eguneratu zuten, pandemia agertu zen urteko zirkunstantzia bereziek asko zailduko zuketelako lana, eta, urte hartan eguneratu izanez gero, datuak ez ziratekeelako oso adierazgarriak izango.

gainerako % 92ak, 609.000 pertsona inguru.

Hitzarmenaren bidez erregulatuta ez dauden jarduerak 50.000 pertsona inguru hartzen dituzte barne, gehienak emakumeak, eta etxeko lanak egiten dituzten langileak dira gehienak

Hitzarmen bidez erregulatuta ez dauden lanbideen artean askotariko jarduerak topa ditzakegu. Kasu askotan, zerbitzuen sektorearekin lotuta daude, eta gehienbat emakumeek egiten dituzte. Horien artean, etxeko langileak¹⁷ dira gehienak, 27.000 pertsona inguru, baina badira osasun-sektorearen barruko lanbideak ere (adibidez, kontsulta medikoetakoak); askotan, hitzarmen bidez erregulatu gabeko jardueraren bat duten enpresa txikietan lan egiten dute horiek.

Lurraldearen arabera, negozioazio kolektiboko hitzarmenen bidez erregulatu gabeko jardueretan lan egiten duten 50.000 pertsona inguru horien artean, 9.745 Araban bizi dira, 25.906 Bizkaian eta 14.397 Gipuzkoan. Hortaz, gainerako lurraldeetan baino garrantzi erlatibo handiagoa dute Araban, bertako langile kopurua kontuan hartuta.

Puntu honetara iritsita, gogoan hartu behar da, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, Araban inoiz ez dela sektore-hitzarmenik sinatu bulego eta despatxuen sektorerako, ezta merkataritza orokorraren sektorerako ere. Hortaz, arlo horietako langile askok inoiz ez dituzte haien lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez erregulatuta izan.

Erregulatu gabeko jardueren osaera sexuaren arabera aztertuz gero, jarduera horietan lan egiten duten emakumeen kopurua gizonena baino askoz ere altuagoa dela ikus dezakegu. Hain zuzen ere, emakumeak dira hitzarmen bidez erregulatu gabeko jardueretan lan egiten duten pertsonen % 78,5. Aldiz, negozioazio kolektiboaren eraginpeko soldatapeko langileen artean bi sexuen arteko oreka handiagoa dago, gizonak gehiago badira ere (% 55,8 eta % 44,2).

Etxeko lanak egiten dituzten pertsona ia guztiak emakumeak izateaz gain, jarduera hitzarmen kolektibo baten bidez inoiz erregulatu ez duten zerbitzuen sektoreko jarduera askotan (kontsulta medikoak, administrari eta laguntzaileen jarduera batzuk...) emakumeak dira langile gehienak.

**4.1. TAULA
HITZARMEN BIDEZ ERREGULATU GABEKO LANBIDEETAN LAN EGITEN DUTEN EAKO
SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, JARDUERAREN ARABERA***

Etxeko langileak	% 55,9
Kontsulta medikoak eta osasun-jarduerak	% 15,6
Administrazio-zerbitzuak	% 7,2
Nekazaritza eta arrantza	% 6,5
Kultura eta kirola	% 3,5
Gainerako jarduerak	% 11,3
GUZTIRA	% 100,0

* Administrazio publikoetako langileak eta funtzionarioak alde batera utzita.
2021eko Negoziazio Kolektiboaren Egituraren azterketan oinarrituta eskuratutako ehunekoak.

¹⁷ Jarduera horretan lan egiten duten ia pertsona guztiak emakumeak dira.

4.1.3. 2023KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Aipatu dugun moduan, Negoziazio Kolektiboaren Egituraren gaineko azken azterketako datuen arabera, EAEko negoziazio kolektiboak 609.677 pertsonari eragiten die.

Jarraian, negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak, eremu funtzionalak eta hitzarmen kolektiboen egoera azalduko ditugu.

Aurretik, 2012ko lan-erreformak hitzarmenen aurreraeragina aldatu zuela aipatu behar dugu, beste gauza batzuen artean. Hala, hitzarmen kolektiboaren salaketatik urtebete pasatzen bada hitzarmen berririk adostu gabe, hitzarmena indarririk gabe geratuko da, aurkakoa hitzartu ezean, eta iraungitzat hartuko da; eta goragoko mailako hitzarmen kolektibo aplikagarria aplikatuko da, halakorik badago.

Hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe dituzten langileak: Haien hitzarmena iraungi ondoren, aurrekoa ordezkatzeko duen hitzarmen berririk edo babestuko dituen goragoko hitzarmenik ez duten pertsonak.

Hala, helburu estatistikoetarako, haien hitzarmena iraungita duten, aurrekoa ordezkatzeko duen hitzarmen berririk ez duten eta babestuko dituen goragoko hitzarmenik ez duten pertsonen *Hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe dituzten langileak* deitu diegu urteko txosten honetan eta LHKren askotariko argitalpenetan.


Pertsona horiek hitzarmen baten babespean zeuden aipatutako lan-erreforma indarrean sartu aurretik; hortaz, egokia iruditu zaigu gure analisisian sartzen jarraitzea, beste arrazoi batzuen artean, une honetan pertsona asko daudelako hitzarmen baten estaldurarik gabe, eta hitzarmen horiek etorkizunean herritzeko aukerak daudelako.

Hitzarmenak indarrean dituzten langileak: Hitzarmenean bertan zehaztutako indarraldi arruntaren barruan dagoen hitzarmen kolektibo batek babestutako langileak.

Azkenik, aipatzekoa da 2012an ezarritako arau esparrua aldatu egin dela lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu ondoren. Hura indarrean sartu denetik, hitzarmen kolektiboak urtetik urtera luzatuko dira, kontrakoa hitzartu ezean eta alderdiek berariazko salaketa jarri ezean.

Gure Erkidegoan, negozioazio kolektiboaren eraginpeko langileen % 71,9k EAEn barruan negoziatzen dituzte haien hitzarmenak

4.1. GRAFIKOA
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA 2023AN EAEN (ERAGINPEKO PERTSONAK)



2023ko abenduaren 31ko datuak

Indarraldi luzatua duten hitzarmenen eraginpeko langileak: Talde honen barruan sartzen dira indarraldi arrunta amaitu ondoren salatu ez diren hitzarmenen eraginpeko pertsonak eta salaketa jaso ondoren luzapen-egoeran dauden hitzarmenen (aurreraeragineko hitzarmenak) eraginpeko langileak.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA

EAeko negozioazio kolektiboak honako egiturazko ezaugarriak ditu:

EAeko negozioazio kolektiboaren zatirik handiena sektore pribatuari dagokio (eraginpeko pertsonen % 95,4).


- Barne hartzen ditu honakoak: EAEn negoziatutako eta erregistratutako hitzarmenak; gure Erkidegoan hitzarmen espezifikorik ez duten edo hitzarmena iraungita duten sektoreetan eragina duten Estatu-mailako hitzarmen sektorialak; eta EAEn ere lantokiak dituzten enpresen hitzarmenak. Dena den, negozioazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko pertsona gehienek EAEn bertan negoziatzen dituzte hitzarmenak; zehazki, % 71,9k.

- Langile gehienak hitzarmen sektorialen babespean daude. Dena den, lurralde eremu bakoitzean ezberdina da sektoreko eta enpresako negoziazio kolektiboaren pisua. Hala, Bizkaian eta Gipuzkoan sektoreko negoziazioa gailentzen da, modu argian. Aldiz, Araban, negoziazio sektoriala nagusi bada ere, garrantzi handia du enpresa mailako negoziazioak.
- 2023ko abenduaren 31n, negoziazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko soldatapeko langileen % 5,6k iraungita zuten hitzarmena, eta ez zuten babestuko zituen goragoko hitzarmenik. Ia denak sektore pribatuan lan egiten duten pertsonak ziren, aurretik EAEn negoziatutako hitzarmen sektorialen eraginpean zeudenak eta, hitzarmen horiek iraungi ondoren, babestuko zituen goragoko hitzarmenik topatu ez zutenak.

Nabarmendu beharrekoa da gure Erkidegoan ohikoa dela enpresako hitzarmenak sinatzea. Horiek, normalean, hobetu egiten dituzte hitzarmen sektorialeko baldintzak. Dena den, ez dugu horiei buruzko informaziorik, ez direlako argitaratzen eta kasu gehienetan ez direlako lan-agintaritzan gordailutu ere egiten.

4.2. GRAFIKOA

NEGOIZAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA. EREMU FUNTZIONALAK (ERAGINPEKO PERTSONAK)




2023ko abenduaren 31ko datuak

Sektoreko negoziazio kolektiboak 454.736 pertsonari eragiten die, eta enpresakoak 154.941 langileri

Negoiazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko soldatapeko langileak sexuaren arabera banatuta, % 55,8 gizonak dira (340.469 pertsona) eta gainerako % 44,2ak (269.208 pertsona) emakumeak.

4.3. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO HITZARMENEN ERAGINPEKO SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA (2023/12/31)



Negoiazio kolektiboa garatzen den lurralde eremu guztietan gizonak dira gehienak, lurralde arteko eremuan izan ezik. Araba nabarmentzen da, negoziazio kolektiboaren eraginpeko gizonen kopurua emakume kopuruaren ia bikoitza baita, 4.2. taulan ikus daitekeen moduan. Hitzarmen kolektibo guztien (indarrean daudenak, luzatuta eta iraungita) eraginpeko pertsona kopurua jasotzen du taula horrek.

4.2. TAULA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO HITZARMENEN ERAGINPEKO PERTSONEN BANAKETA, SEXUAREN ETA LURRALDE EREMUAREN ARABERA (2023/12/31)

	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
EAE, guztira	340.469	269.208	609.677	% 55,8	% 44,2
EAEn erregistratuak	247.216	191.328	438.544	% 56,4	% 43,6
Araba	40.290	21.858	62.148	% 64,8	% 35,2
Bizkaia	113.453	80.729	194.182	% 58,4	% 41,6
Gipuzkoa	79.814	57.907	137.721	% 58,0	% 42,0
Lurralde artekoak	13.659	30.834	44.493	% 30,7	% 69,3
Estatu-eremukoak	93.253	77.880	171.133	% 54,5	% 45,5

Lurralde arteko eremuan handia da emakumeen ehunekoa, negozioazio eremu horren barruan oso feminizatuta dauden jarduerak daudelako, gehienak zerbitzuen sektorekoak. Adibidez, ikastetxeetako jangeletako zerbitzua, irakaskuntza (gizarte-ekimenekoak eta ikastolak) edo Hezkuntza Saileko eta Osakidetzako garbiketarako kontratak. Hala, emakumeen presentzia % 69,3koa da eremu horretan.

Aurreko urtearekin alderatuta, 2023an hazi egin zen hitzarmenak indarrean zituzten langileen kopurua (388.641 pertsona), eta jaitsi egin zen hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe zituzten pertsonen kopurua (34.424 pertsona)

Jarraian, hitzarmen aplikagarriak eta iraungitako hitzarmenak aztertuko ditugu.

4.3. TAULA

EAE-N APLIKA DAITEZKEEN HITZARMENEN KOPURUA 2023AN ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONAK (2023/12/31)

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	1.195	154.802	200	420.451	1.395	575.253
EAEn erregistratuak	956	114.805	86	290.147	1.042	404.952
Araba	181	23.218	20	33.241	201	56.459
Bizkaia	442	42.205	28	137.780	470	179.985
Gipuzkoa	297	34.078	29	89.937	326	124.015
Lurralde artekoak	36	15.304	9	29.189	45	44.493
Estatu-eremukoak	239	39.997	114	130.304	353	170.301

EAEn aplikagarriak diren hitzarmenen kopurua eta horien eraginpeko biztanle kopurua jasotzen ditu 4.3. taulak. Barne hartzen ditu 2023an zehar indarraldi arruntan dauden hitzarmenak eta luzapen-egoeran eta aurreraeraginean daudenak, hau da, berritzeko daudenak. Era berean, barne hartzen ditu sektoreko edo enpresako hitzarmena iraungita duten, baina goragoko hitzarmen sektorial baten (Estatukoa, lurralde mailakoa edo lurralde artekoa) babesaren duten pertsonak. Izan ere, legez, aplikagarria zitzaien hitzarmena iraungi ondoren, hitzarmen berri horren eraginpean daude.

4.4. TAULA**EAE-N IRAUNGITA DAUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONAK
(2023/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	6	139	21	34.285	27	34.424
EAE n erregistratuak	4	136	18	33.456	22	33.592
Araba	2	84	3	5.605	5	5.689
Bizkaia	0	0	9	14.197	9	14.197
Gipuzkoa	2	52	6	13.654	8	13.706
Lurralde artekoak	0	0	0	0	0	0
Estatu-eremukoak	2	3	3	829	5	832

4.4. taulan zehazten da hitzarmenak iraungita dituzten langileen kopurua. Talde horren barruan sartzen dira haien hitzarmena iraungi ondoren, aurrekoa ordezkatzeko duen hitzarmen berririk edo aplikagarria den goragoko hitzarmenik ez duten soldatapeko pertsonak.

**4.1.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA
2023. URTEAN**

2023aren amaieran langileen % 63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak eta % 5,6k bakarrik zituzten hitzarmenak iraungita. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik eskuratutako daturik onenak dira.


2023a amaitzean, langileen % 63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), % 30,6k luzapen egoeran zituzten, eta % 5,6k bakarrik zituzten hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako daturik onenak dira, bai hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoari dagokionez, bai hitzarmenak iraungita dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez.

Urtearen hasieran, hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa aurreko urtekoaren antzekoa zen, baina urtearen amaieran hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoak % 60 gainditzea ahalbidetu zuten 2023an zehar lortutako akordioek.


Gainera, Gipuzkoako Sukaldaritza arloko Enpresen Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten, iraungita baitzeuden. Horri esker, hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa % 5,6ra jaitsi zen ekitaldiaren amaieran (34.424 pertsona).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta hazi egin ziren hitzarmenak indarrean zituzten gizonen ehunekoa (2022an % 49,5 eta 2023an % 68,1) eta hitzarmenak eguneratuta zituzten emakumeen ehunekoa (2022an % 40 eta 2023an % 58,2).

4.4. GRAFIKOA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2023AN EAE-N




4.5. GRAFIKOA EAE-KO LANGILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, SEXUAREN ETA HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA (2023/12/31)



4.6. GRAFIKOA

EAE-KO LANGILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31KO DATUAK)



2023aren hasieran, langileen % 27k zituzten hitzarmenak eguneratuta. 2022an (% 26,5) eta 2021ean (% 27,2) erregistratutako ehunekoen oso antzekoa da hori.

4.5. TAULA

2023. URTEAN ERREGISTRATU ZITUZTEN ETA EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONAK

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	295	41.536	56	179.046	351	220.582
EAEn erregistratuak	230	29.758	21	118.710	251	148.468
Araba	55	5.827	3	2.862	58	8.689
Bizkaia	91	11.356	6	53.959	97	65.315
Gipuzkoa	80	12.051	9	57.988	89	70.039
Lurralde artekoak	4	524	3	3.901	7	4.425
Estatu-eremukoak	65	11.778	35	60.336	100	72.114

2023an zehar 351 hitzarmen erregistratu ziren. Hala, 220.582 pertsonaren lan-baldintzak berri ziren; kopuru hori aurreko urtekoaren ia bikoitza zen. EAEn 251 hitzarmen erregistratu ziren: 21 sektorekoak eta 230 enpresakoak. Horiek 148.468 pertsonari eman zieten estaldura. EAEn eragina duten Estatu-mailako 100 hitzarmen erregistratu ziren (35 sektorekoak eta 65 enpresakoak), eta horiek 72.114 pertsonari eragin zieten.

4.5. taulan 2023an zehar erregistratutako hitzarmen kolektiboen kopurua adierazten da, baita horien eraginpeko pertsona kopurua ere.

4.6. TAULA**2023AN EAE-N INDARRALDI ARRUNTEAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN KOPURUA ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONAK (2023/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	619	93.435	124	295.206	743	388.641
EAEn erregistratuak	481	64.662	46	188.193	527	252.855
Araba	111	16.551	10	22.186	121	38.737
Bizkaia	199	24.295	16	87.260	215	111.555
Gipuzkoa	157	21.107	15	69.404	172	90.511
Lurralde artekoak	14	2.709	5	9.343	19	12.052
Estatu-eremukoak	138	28.773	78	107.013	216	135.786

2023. urtearen amaieran 743 hitzarmen zeuden indarraldi arruntean, hau da, negoziatzaileek adostutako aplikazio-aldi arruntaren barruan, eta 388.641 langileri eragiten zieten (4.6. taula). 2022an, ekitaldiaren amaieran, 641 hitzarmen zeuden indarrean eta 273.938 pertsonari eragiten zieten.

4.7. TAULA**INDARRALDI LUZATUA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN KOPURUA ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONAK (2023/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	576	61.367	76	125.245	652	186.612
EAEn erregistratuak	475	50.143	40	101.954	515	152.097
Araba	70	6.667	10	11.055	80	17.722
Bizkaia	243	17.910	12	50.520	255	68.430
Gipuzkoa	140	12.971	14	20.533	154	33.504
Lurralde artekoak	22	12.595	4	19.846	26	32.441
Estatu-eremukoak	101	11.224	36	23.291	137	34.515

Indarraldia luzatuta duten eta aurreraeraginean dauden (eta, hortaz, berritzeko zain dauden) hitzarmenen kopurua adierazten du 4.7. taulak, baita hitzarmen horiek aplikatzen zaizkien pertsonen kopurua ere. 2023aren amaieran 186.612 pertsona zeuden egoera horretan. 152.097 pertsonak EAEn barruan negoziatu zituzten haien hitzarmenak, eta 34.515 pertsona Estatuko negoziazioaren eraginpean zeuden.


Hitzarmena iraungita duten pertsonen dagokienez (% 5,6), 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetik izandako baxuena da hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe dituzten pertsonen ehunekoa. Izan ere, 2020an jaisten hasi zen kopurua, 2022an Arabako Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena sinatu zuten eta 2023an Gipuzkoako Sukaldaritza arloko Enpresen Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten.

Dena den, nabarmentzekoa da 34.424 pertsonak oraindik ere hitzarmena berreskuratu gabe jarraitzen dutela, eta ez dutela babesten dituen goragoko beste hitzarmenik. Kasu askotan, egoerak urte dezente daramatza aldatu gabe. Iraungitako hitzarmenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, duten garrantziagatik: Bizkaian, bulegoetako hitzarmena; Gipuzkoan, bulegoetako hitzarmena eta errepede bidezko garraioarena; eta, Araban, metalaren salerosketarena.

BILAKAERA, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA: ENPRESAKOAK/ SEKTOREKOAK

4.7. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2023AN EAE-N, EREMU FUNTZIONALEN ARABERA. ENPRESAKOAK ETA SEKTOREKOAK



- Hitzarmenak iraungita dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak 2023an luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean (eguneratuta) dituzten langileen ehunekoa

Langileen % 74,6 sektoreko negoziazioaren mende daude haien lan-baldintzak zehazteko; gainerako % 25,4ak, berriz, enpresa barruan negoziatzen ditu hitzarmenak

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 2023aren amaieran langileen % 74,6 (454.736 pertsona) sektoreko negoziazioaren mende zeudela haien lan-baldintzak zehazteko, hitzarmenak iraungita zituzten langileak barne hartuta. Gainerako % 25,4ek (154.941), berriz, enpresa mailan negoziatzen zituzten hitzarmenak. Ehuneko horiek ez ziren asko aldatu aurreko urtearekin alderatuta (% 75,5 eta % 24,5, hurrenez hurren, 2022an).

Negoiazio kolektiboak izandako bilakaera eremu funtzionalaren (enpresa/sektorea) arabera aztertuz gero, ikus daiteke enpresa-hitzarmenek babestutako langileen % 60,3k eta sektore-hitzarmenek babestutako langileen % 65ek hitzarmenak eguneratuta zituztela 2023aren amaieran.

Enpresa-hitzarmenen kasuan, ia 7 puntu igo zen ehuneko hori 2022aren amaieratik; orduan, langileen % 53,8k zituzten hitzarmenak indarrean. Sektoreko hitzarmenen kasuan, berriz, 22 puntutik gorako igoera handia izan zen aurreko urtearekin alderatuta (2022 amaitzean % 42,6).


Halaber, hitzarmenak iraungita dituzten pertsona ia guztiek sektore-hitzarmenen eremukoak izaten jarraitzen dute. Hala ere, aipatu dugun moduan, jaitsiera nabarmena izan da aurreko urtetik. 2022an, sektore-hitzarmenen eraginpeko langileen % 9,5k iraungita zituzten hitzarmenak; 2023an, berriz, ehuneko hori % 7,5era jaitsi zen.

Enpresa-hitzarmenen eremu funtzionalaren barruan, hitzarmenak iraungita dituzten pertsonen ehunekoa baxua da. Izan ere, eremu horretan oso dinamikoa da negoziazioa eta, kasu gehienetan, enpresa-hitzarmena iraungita duten pertsonen babesa ematen dieten sektore-hitzarmenak dituzte (lurralde edo estatu-mailakoak).

Sektoreko hitzarmenen eremukoak dira hitzarmenak iraungita dituzten langile ia guztiak, horien kopurua murriztu bada ere

4.8. GRAFIKOA

ENPRESA-HITZARMEN BERRIAK ETA ERREGISTRATUTAKO GAINERAKO ENPRESA-HITZARMENAK



2023an 295 enpresa-hitzarmen erregistratu zituzten. Horien artetik, aurrez hitzarmen propiorik izan ez zuten enpresetan sinatutako akordio berriak izan ziren 52. Gainerako kasuetan, aurrez sinatutako hitzarmenak berriitu zituzten enpresak ziren.

2023an hitzarmen berriak sinatu zituzten 52 enpresa horien batez besteko tamaina¹⁸ 70,4 pertsonakoa zen. Aldiz, 2022an hitzarmen berriak erregistratu zituzten enpresen batez besteko langile kopurua baxuagoa zen, 59 pertsonakoa.

2013an, lan-erreforma indarrean sartu ondoren, enpresa-hitzarmen berri asko sinatu ziren; bereziki, 2013an eta 2014an zehar.

Akordio berri horiek barne hartu zituzten sektore-hitzarmenak iraungita zituzten pertsona asko, baina ez zuten inpaktu nabarmenik izan enpleguan. Izan ere, gure enpresa-ehunaren egituraren ETEak gailentzen dira eta, hortaz, zaila da enpresa-hitzarmenak sinatzearen bidez sektore-hitzarmenak iraungita dituzten langileen zati handi bati estaldura ematea.

2023an igo egin zen erregistratutako enpresa-hitzarmen berrien kopurua, eta 3.660 langileri eman zieten babesa 52 hitzarmen berri horiek.

2023an 52 enpresa-hitzarmen berri erregistratu ziren, eta horiek 3.660 pertsonari eman zieten babesa

Nolanahi ere, aipatzekoa da enpresa mailako negozioazioak estaldura mailan duen eragina mugatua dela. Izan ere, enpresa-hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko langileen kopurua % 25en inguruan mantentzen da azken urteetan, aldakuntza txikiekin (2022an % 26,3 eta 2023an % 26,9).

¹⁸ Enpresa horiek EAEn dituzten langile guztiak (3.660 pertsona) zati hitzarmen berri bat sinatu duten enpresen kopurua (52).

Orokorrean eta ondorio gisa, eremu funtzionalaren arabera, esan daiteke sektore-hitzarmenek jarraitzen dutela langile gehienak babesten. Hala, negoziazio kolektiboko hitzarmenen (indarrean edo luzatuta) eraginpeko pertsonen % 73,1ek sektore-hitzarmenen estaldura jasotzen dute (4.3. taula).

BILAKAERA, LURRALDE EREMUAREN ARABERA

Negoiazio kolektiboaren bilakaera aztertzeko orduan EAEn negoziatutako hitzarmenak eta gure Erkidegoan eragina duten estatu-mailako hitzarmenak alderatuz gero, ikus dezakegu lan-erreforma indarrean sartu zenetik 2018ra arte estatu-mailako hitzarmenak gailentzen zitzazkiela EAEn negoziatutakoei. Izan ere, berritze ezagatik haien hitzarmena galdu zuten soldatapeko langile asko estatu-mailako hitzarmen baten eraginpean geratu ziren.


Hala ere, egoera hori alderantzikatzen hasi zen 2018an eta 2019an, iraungita zeuden EAeko hainbat sektore-hitzarmen berreskuratu ostean; adibidez, eraikinen eta lokalen garbiketako hitzarmena eta metalaren salerosketako hitzarmena, Bizkaian. 2022an, berriz, Arabako industria siderometalurgikoko hitzarmena sinatu zuten, iraungita baitzegoen.

2023an aurrera jarraitu zuen gure negoziazio eremu propioen berreskuratzeak. Beste batzuen artean, Gipuzkoako Sukaldaritza arloko Enpresen Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten; iraungita zeuden horiek.

Aurreko urtearekin alderatuta, EAEn negoziatutako hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko langile kopurua 13.000 langile baino gehiago areagotu zen, eta 404.952 pertsonara heldu zen. EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen eraginpeko langileen kopurua, berriz, 1.000 pertsona baino apur bat gehiago hazi zen eta 170.301 pertsonara heldu zen ekitaldiaren amaieran.

4.9. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERAGINPEKO PERTSONEN BILAKAERA EAE-N (ABENDUAREN 31KO DATUAK)



2023an aurrera jarraitu zuen gure negoziazio kolektiborako eremu propioen pixkanakako errekuperazioak



Eremu horiek 2023an izan zuten bilakaerari dagokionez, EAEen negoziatutako hitzarmenek eta EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenek ekitaldiaren hasieran eta amaieran zuten egoera ikus daiteke 4.10. grafikoan.

Negoiazio kolektiboak hazkunde handiagoa izan du Estatu-mailan. Bertan, urtearen hasieran, handiagoa zen hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa.

2023an zehar, Estatu-mailako langileen % 44,8k berritu zituzten hitzarmenak. EAEen negoziatutako hitzarmenen eraginpeko langileei dagokienez, ordea, % 33,6k bakarrik berritu zituzten akordioak.

Horren guztiaren ondorioz, ekitaldiaren amaieran hitzarmenak eguneratuta zituzten pertsonen ehunekoa askoz altuagoa zen Estatuan (% 79,3) EAEen baino (% 57,6).

4.10. GRAFIKOA

2023/01/01-EAN ETA 2023/12/31-N HITZARMENAK INDARREAN, LUZATUTA EDO IRAUNGITA ZITUZTEN LANGILEAK, EREMUAREN ARABERA

Jarraian, lurralde eremu bakoitzeko negoziazio kolektiboaren egoera laburtzen da¹⁹. Kapitulu honen amaierako eranskinean sektoreko hitzarmenen zerrenda bat topa daiteke, baita 2023ko abenduaren 31n zuten egoera ere.

Araba

Arabaren, ekitaldiaren amaieran, langileen % 62,3k indarrean zuten hitzarmen kolektiboa. Ehuneko hori askoz ere altuagoa da 2022ko abenduan erregistratutakoa baino (% 54,7).

Lurralde eremu horretan hiru sektore-hitzarmen erregistratu ziren: Ehunen salerosketako hitzarmena, Ardoaren industria eta salerosketako hitzarmena, eta Esku-hartze sozialekoa; horiek 2.862 pertsonari eragiten diete. Gainera, 55 enpresa-hitzarmen sinatu ziren, 5.800 langileri baino apur bat gehiagori eragin zietenak.

Bizkaia

Bizkaiari dagokionez, urtearen amaieran langileen % 57,5ek eguneratuta zituzten hitzarmenak, hau da, aurreko urtean (% 33,6) baino askoz ere gehiagok. 2023an lurralde eremu horretan 91 enpresa-hitzarmen erregistratu zituzten, 11.356 pertsona babesten dituztenak, eta 6 sektore-hitzarmen, ia 54.000 pertsona babesten dituztenak. Honakoak nabarmentzen dira, langileen bolumen handia dutelako: Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena (36.000 pertsona baino gehiago), Merkataritza Orokorrekoa (6.000 langile baino gehiago) eta Hirugarren Adinekoen Zentroetako Hitzarmena (5.000 pertsonari baino gehiagori eragiten die).

Urtearen amaieran iraungita zeuden hitzarmenen artean, Bulego eta Despatxuetako Hitzarmena aipatu behar dugu berriz, duen garrantzia dela eta.

Gipuzkoa

Bestetik, 2023aren hasieran Gipuzkoako lurralde historikoak zuen hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehuneko txikiena (% 14,1). Urtearen amaieran, ordea, soldatapeko langileen % 65,7k indarrean zituzten hitzarmenak (2022an % 45,2). Hala, lurralde horretan izan zen hazkunderik handiena. 2023an zehar 80 enpresa-hitzarmen erregistratu ziren, 12.000 pertsonari baino gehiagori estaldura eman zietenak, eta 9 sektore-hitzarmen, ia 58.000 langile babestu zituztenak. Honakoak nabarmendu behar dira, duten garrantzia dela eta: Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena (ia 30.000 langile), Sukaldaritza arloko Enpresen Hitzarmena (iraungita zegoen; ia 11.000 langileri eragiten die) eta Elikaduraren Industria eta Merkataritzakoa (6.000 pertsona baino gehiago).

Eremu horretan iraungitako hitzarmenei dagokienez, hauek nabarmentzen dira, langile asko biltzen baitituzte: Bulego eta Despatxuetako Hitzarmena eta Metalaren Salerosketakoa. Dena den, azken kasu horretan, Merkataritza Orokorreko Hitzarmenaren babesean daude gaur egun langileak, goragokotzat jotzen baita hitzarmen hori.

19 Lurralde historiko bakoitzeko (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eraginpeko biztanle-kopurua kalkulatzeko, lurralde horietako bakoitzean erregistratutako hitzarmenen eraginpeko langileak bakarrik hartu ditugu kontuan. Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan lan egiten duten eta lurralde arteko hitzarmen batek edo estatu-mailako hitzarmen batek eragiten dieten langileak bi eremu horietako batean sartu ditugu.

EAEko lurralde arteko eremua

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, urtearen hasieran oso baxua zen hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa (% 17,4), eta ekitaldiaren amaieran % 27,1ek bakarrik zituzten hitzarmenak indarrean (2022an % 24,1ek).

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Hitzarmen Kolektiboaren ohiko indarraldia 2021ean amaitu zen eta, 2023aren amaieran, luzatuta zegoen. Horrek eragin handia izan zuen aipatutako estaldura maila baxuan. Dena den, aipatu beharrekoa da eremu honetan inork ere ez duela hitzarmena iraungita.

EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenak




EAEen eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, aurreko urtean bezala, ekitaldiaren amaieran erregistratu zen hitzarmenak eguneratua zituzten pertsonen ehunekorik altuena (% 79,3), 2022an (% 60,9) eta 2021ean (% 55,5) eskuratutako ehunekoa baino altuagoa. Aldiz, hitzarmenak iraungita dituzten langileen ehunekoa % 0,5ekoa baino ez da.

2023an zehar 35 sektore-hitzarmen eta 65 enpresa-hitzarmen sinatu zituzten. Horiek 60.336 eta 11.778 pertsonari eragiten zieten, hurrenez hurren.

Eremu horretan erregistratutako hitzarmenen artean, Ingeniaritza eta Azterlanen Bulego Teknikoetako Hitzarmena (ia 19.000 langile), Aholkularitza eta Merkatu Azterlanen Hitzarmena (10.000 langile baino zerbait gutxiago) eta Arautu Gabeko Irakaskuntza eta Prestakuntzako Hitzarmena (8.500 pertsona) aipatu behar dira.

4.11. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2023AN EAE-N, LURRALDE EREMUAREN ARABERA



2023ko urtarrilaren 1eko datuak 2023ko abenduaren 31ko datuak

- Hitzarmenak iraungita dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak 2023an luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa

4.1.5. NEGOZIAZIOAREN EMAITZAK 2023AN

NEGOIAZIO PROZESUEN IRAUPENA

Txosten hau egiteko, negoziatio-mahaia eratzen den egunaren eta erregistratutako hitzarmen kolektiboa sinatzen den egunaren arteko tartea hartu dugu negoziatio-prozesuaren iraupentzat.

Irizpide horretan oinarrituta, EAEn negoziatutako hitzarmenetan eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan prozesu horiek izan duten iraupenari buruzko informazioa eskaintzen dugu.

EAEn negoziatu ziren eta 2023an indarrean zeuden hitzarmenen negoziatio-prozesuen batez besteko iraupena 298koa izan zen (4.8. taula), aurreko urtean baino 10 egun luzeagoa.

Sektoreko hitzarmenen negoziatioaren iraupena 128 egun luzatu zen (2022an 496 egun eta 2023an 624). Gure Erkidegoan negoziatu ziren eta indarrean zeuden enpresako hitzarmenen kasuan, berriz, negoziatio-denbora 6 egun murriztu zen (2022an 272 egun eta 2023an 266 egun).

4.8. TAULA

EAE-N NEGOZIATUTAKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOIAZIO-PROZESUEN IRAUPENA (BATEZ BESTEKO EGUN KOPURUA)

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK:		URTE HONETAN INDARREAN:	
	2022	2023	2022	2023
Guztira	286	313	288	298
Sektorea	530	845	496	624
Enpresa	258	264	272	266

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

EAEn negoziatu ziren eta 2023an erregistratu ziren hitzarmenei dagokienez, negoziatio-prozesuen batez besteko iraupena 27 egun luzatu zen, eta 10 hilabete baino zerbait luzeagoa izan zen (313 egun). Izan ere, 2023an erregistratutako sektoreko hitzarmenen negoziatio-prozesuen iraupena asko luzatu zen (845 egun).

EAEn negoziatutako eta 2023an erregistratutako hitzarmenen negoziatio-prozesuen batez besteko iraupena hazi egin zen eta 313 egunera iritsi zen


Negoziatio-mahaia aspaldi irekita zuten hainbat sektore-hitzarmen sinatu zituzten EAEn. Horri esker, 2023aren amaieran hazi egin zen hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoak, baina, aldi berean, gora egin zuen negoziatio-prozesuen batez besteko iraupenak ere. Aipatu dugun moduan, negoziatio-mahaia eratzen denetik hitzarmenak sinatzen diren arteko tartea hartzen dugu prozesuaren iraupentzat.

Sektoreko hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupenak altua izaten jarraitzen du (4.12. grafikoa), eta 2010aren aurreko urteetako batezbestekotik (300 egun inguru) urrun dago oraindik.

EAEn negoziatutako sektore-hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupena askoz altuagoa da enpresa-hitzarmenak negoziatzeko erabiltzen den denbora baino (624 egun vs. 266 egun)

4.12. GRAFIKOA

EAEN SINATUTA ETA INDARREAN DAUDEN SEKTORE-HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOTIAZIO-PROZESUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA URTE BAKOITZEAN



Era berean, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen kasuan ere gora egin du negoziazio-prozesuen iraupenak, bai indarrean dauden hitzarmenetan, bai 2023an erregistratutakoetan.

4.9. TAULA

ESTATUAN NEGOTIATU DIREN ETA EAEN ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOTIAZIO-PROZESUEN IRAUPENA (BATEZ BESTEKO EGUN KOPURUA)

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK:		URTE HONETAN INDARREAN:	
	2022	2023	2022	2023
Guztira	197	380	273	349
Sektorea	266	389	327	396
Enpresa	147	376	240	323

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

Hala, indarrean dauden estatu-mailako hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupena luzatu egin da. 273 egunekoa zen 2022an, eta 349 egunekoa 2023an.

2023an erregistratutako EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen batez besteko iraupena 380 egunekoa izan zen. 2022an erregistratu zirenean, berriz, 197 egunekoa.

Azkenik, estatu-mailako hitzarmenetan askoz ere laburragoa da sektore-hitzarmenak negoziatzeko erabilitako denbora, gure Erkidegoan baino. Baina, estatu-mailako enpresa-hitzarmenetan alderantzizkoa gertatzen da; izan ere, 2023an, enpresa-hitzarmenak negoziatzeko denbora luzeagoa izan zen EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen kasuan.

HITZARMENEN DENBORA EREMUA

2023an hitzarmena indarrean zuten soldatapeko langileen % 91,5ek hiru urteko edo gehiagoko indarraldiko hitzarmenak negoziatu zituzten

Indarrean dauden hitzarmen gehienak hainbat urtetarako negoziatzen dira oraindik ere, eta hitzarmen mota horien eraginpeko pertsonen ehunekoa hazi egin da aurreko urtetik.

2023an, hitzarmena indarrean zuten langileen % 5,3ri eragiten zieten urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenek; urtebete eta bi urte arteko indarraldia zuten hitzarmenek, % 3,2ri; eta hiru urte edo gehiagoko indarraldia zuten hitzarmenek, langileen % 91,5i.

2022an ehuneko horiek % 9,2, % 7,6 eta % 83,2koak ziren, hurrenez hurren.

Hortaz, 2023an indarrean zeuden hitzarmenen % 95ek eta hitzarmenak indarrean dituzten langileen % 94,7k urtebetetik gorako indarraldia zuten negoziatuta.

4.10. eta 4.11. tauletan ikus daitekeen moduan, lurralde eremu eta eremu funtzional (enpresa/ sektorea) guztietan gailentzen dira urte anitzetarako hitzarmen kolektiboak.

4.13. grafikoan ikusten den moduan, duela hogeitiki baino gehiagotik, argi eta garbi gailentzen dira hiru urterako edo gehiagorako sinatutako hitzarmenak. 2011 eta 2014 artean, apur bat murriztu zen hiru urte edo gehiagorako hitzarmenen pisua, eta bi urteko eta urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenak ugaritu egin ziren. Dena den, 2015etik aurrera berriz ere handitu zen hiru urte edo gehiagorako hitzarmenen pisua, eta horiek maximoa eskuratu zuten 2023an.

4.10. TAULA

2023AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUA, LURRALDE EREMUAREN ARABERA*

	URTE BAT		URTE BAT ETA BI ARTEAN		HIRU URTE EDO GEHIAGO	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	% 5,0	% 5,3	% 10,1	% 3,2	% 84,9	% 91,5
EAEn erregistratuak	% 4,7	% 3,8	% 10,1	% 2,0	% 85,2	% 94,2
Araba	% 2,5	% 0,4	% 8,3	% 2,4	% 89,2	% 97,2
Bizkaia	% 3,7	% 0,4	% 12,1	% 2,3	% 84,2	% 97,3
Gipuzkoa	% 5,2	% 5,6	% 9,3	% 1,8	% 85,5	% 92,6
Lurralde artekoak	% 26,3	% 31,9	% 10,5	% 4,7	% 63,2	% 63,4
Estatu arloa	% 5,6	% 8,1	% 10,2	% 5,4	% 84,2	% 86,5

(* 2023/12/31 arte. Lurralde-eremu bakoitzeko guztizkoaren gaineko ehunekoak.

4.11. TAULA

2023AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUA, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA*


	URTE BAT		URTE BAT ETA BI ARTEAN		HIRU URTE EDO GEHIAGO	
	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKO PERTSONAK (%)	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKO PERTSONAK (%)	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKO PERTSONAK (%)
Guztira	% 5,0	% 5,3	% 10,1	% 3,2	% 84,9	% 91,5
Sektorea	% 6,5	% 4,8	% 4,0	% 2,2	% 89,5	% 93,0
Enpresa	% 4,7	% 6,7	% 11,3	% 6,4	% 84,0	% 86,9

(* 2023/12/31 arte. Eremu funtzional bakoitzeko guztizkoaren gaineko ehunekoak.

Bestetik, hiru sektore-hitzarmen kolektibok indarraldi mugagabea dute Gipuzkoan: Paperaren Fabrikaziokoa, Eraikuntzakoa eta Arte Grafikoetakoa. Hitzarmen horietan, alderdi batzuk urtero negoziatzen dira, adibidez, soldata-igoera eta lanaldia. Beste gai batzuk, berriz, ez dira aldatzen; adibidez, sailkapen profesionala, zigor-erregimena, etab.

Hortaz, txosten hau egiteko orduan, gai nagusietarako (soldata-igoera eta lanaldia) adostutako aldia hartu dugu hitzarmen horien indarralditzat.

4.13. GRAFIKOA

EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUAREN BILAKAERA (URTE BAKOITZEAN INDARREAN DAUDEN HITZARMEN GUZTIEN GAINKO %)**2024aren hasieran, langileen % 52,3k berrituta zuten haien hitzarmena**

Azken urteetan hitzarmenak hainbat urtetarako negoziatzen direnez, ekitaldi bakoitzaren hasieran, urte horretako negoziazio kolektiboaren zati bat eginda egoten da dagoeneko.

Zentzu horretan, 2023an zehar negoziazio kolektiboan emandako aurrerapauso handien ondorioz, 2024aren hasierako egoera nabarmen hobea da aurreko ekitaldietakoa baino.

Hala, 2024ko urtarrilaren leian, luzatuta eta berritzeko zain edo iraungita zeuden 865 hitzarmen, hau da, guztizkoaren % 63,1. Horiek langileen % 47,7ri eragiten diete (307.941 pertsona).

2023aren hasieran, langileen % 73k zituzten hitzarmenak luzatuta edo iraungita. Eta, 2022aren hasieran, % 73,5ek.

2024an 505 hitzarmen daude indarrean (hainbat urtetarako indarraldia), eta horiek 338.502 pertsonari eragiten diete. 2023aren hasieran 390 hitzarmen baino ez zeuden indarrean, eta 162.909 pertsonari eragiten zieten.

EAEn garatzen den negoziazioari dagokionez, 2024aren hasieran 227.512 langilek zuten haien hitzarmena luzatuta edo iraungita (eremu horretako langileen % 49,6k). Aldiz, estatu-mailako hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 42,7 zegoen hitzarmena berritzeko zain edo hitzarmena iraungita (80.429 pertsona).

Aurreko urtearekin alderatuta, urtearen hasieran hitzarmenak berrituta dituzten langileen ehunekoa asko igo da Gipuzkoan (2023an % 14,1 eta 2024an % 60,9) eta Bizkaian (2023an % 24,2 eta 2024an % 53,7), Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenak sinatu baitituzte bi lurralde horietan. Lurralde arteko eremuan,

berriz, akordio gehienak luzapen-egoeran daude.


Eremu funtzionalen arabera, aurreko urtean ez bezala, negoziazioa aurreratuago dago sektore-hitzarmenen eremuan, enpresa-hitzarmenen eremuan baino. 2024aren hasieran, sektore-hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 55,8k eguneratuta zituzten hitzarmenak. Enpresa-hitzarmenen kasuan, berriz, eraginpeko langileen % 41,3k baino ez zituzten hitzarmenak negoziatuta 2024aren hasieran.

SOLDATA IGOERAK

2023an % 4,22koa izan zen EAEn adostutako batez besteko soldata-igoera, eta % 3,46koa Estatu osoan²⁰

EAEn 2023an indarrean zeuden hitzarmenetan (EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak barne) adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,22koa izan zen, Estatu hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera (% 3,46)²⁰ baino 0,76 puntu handiagoa.

4.14. GRAFIKOA
INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK. EAE/ESTATUA²⁰



Iturria: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Igoerarik handiena Gipuzkoan negoziatutako hitzarmenetan ikus dezakegu: batez beste % 5,62. Aldiz, 2023rako hitzartutako batez besteko soldata-igoera honakoetan izan zen baxuena: Araban negoziatutako hitzarmenetan (% 2,96), lurralde artekoetan (% 3,03) eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan (% 3,51).

Orokorrean, gure Erkidegoan negoziatutako hitzarmenetako batez besteko igoera % 4,59koa izan zen. Aldiz, aipatu dugun moduan, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan % 3,51koa izan zen batez besteko igoera.

²⁰ Estatu osorako hitzartutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2024ko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

4.12. TAULA 2022RAKO ETA 2023RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK*

	SOLDATA IGOERA	
	2022	2023
EAE, guztira	% 4,08	% 4,22
EAEn negoziatutakoak	% 4,80	% 4,59
Araba	% 4,78	% 2,96
Bizkaia	% 4,29	% 4,48
Gipuzkoa	% 5,76	% 5,62
Lurralde artekoak	% 2,39	% 3,03
Estatu-mailakoak**	% 2,89	% 3,51

* Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

** EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.

Eremu funtzionalen arabera, soldata-igoerak apur bat handiagoak izan ziren sektore-hitzarmenetan (% 4,25), enpresa-hitzarmenetan (% 4,14) baino. Hori erakusten du 4.17. grafikoak.


Halaber, nabarmentzekoa da soldata KPIaren arabera berrikusteko edo bermatzeko klausulek batez besteko soldata-igoerari egin dioten ekarpena ia nulua izan dela (0,01 puntu). Hortaz, klausula horien eragina albo batera utziz gero, batez besteko soldata-igoera % 4,21ekoa izango zatekeen.

Zentzu horretan, azken urteetan ugaritu egin dira enpresaren helburuak betetzearen arabera baldintzatutako berrikuspen-klausulak, eta horien ondorioak ezin ditugu ezagutu. Aldi berean, murriztu egin dira KPIaren bilakaera bakarrik aintzat hartzen duten soldata bermatzeko klausula konbentzionalak.

Soldata-igoeren bilakaera baloratzeko, 4.16. grafikoan EAEn azken urteetan abenduan izandako urte arteko inflazioa ageri da, baita KPIaren urteko batez besteko igoera ere. 2023an, hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera handiagoa izan zen 2023ko abenduko urte arteko inflazioa baino (% 3,1 EAEn eta Estatuan) eta urte osoan erregistratutako batez besteko inflazioa baino (% 3,6 EAEn eta % 3,5 Estatuan).


4.15. GRAFIKOA


EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA



4.16. GRAFIKOA

EAE. KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERAK ABENDUAN ETA KPI-AREN BATEZ BESTEKO IGOERA URTE BAKOITZEAN



4.17. GRAFIKOA**EAE-N INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK. ENPRESAKOAK/SEKTOREKOAK**

2023an hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera (% 4,22) altuagoa izan zen EAEko abenduako urte arteko inflazioa baino (% 3,1) eta batez besteko inflazioa baino (% 3,6)

4.13. TAULA**INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOERAK EAE-N ETA ESTATUAN, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA***

	EAE					ESTATUA				
	2019	2020	2021	2022	2023	2019	2020	2021	2022	2023
Guztira	2,00	1,69	1,23	4,08	4,22	2,33	1,89	1,47	2,78	3,46
Sektorea	2,07	1,70	1,01	3,86	4,25	2,35	1,91	1,50	2,75	3,47
Enpresa	1,79	1,66	1,92	4,67	4,14	1,94	1,60	1,10	3,22	3,26

* Estatu osorako hitzartutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

Iturriak: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

2023an erregistratutako hitzarmenetako batez besteko soldata-igoera % 4,66koa izan zen: % 4,65ekoa sektore-hitzarmenetan eta % 4,70ekoa enpresa-hitzarmenetan.

4.14. TAULA
2023AN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOERAK*

	SOLDATA IGOERA
	2023
EAE, guztira	% 4,66
EAEn negoziatutakoak	% 5,03
Araba	% 3,92
Bizkaia	% 4,66
Gipuzkoa	% 5,63
Lurralde artekoak	% 3,09
Estatu-mailakoak	% 3,87

*2023ko abenduaren 31 arte erregistratutako hitzarmenak.

2023an erregistratutako hitzarmenek 2023rako aurreikusitako batez besteko igoera (% 4,66) handiagoa da aurreko urteetan erregistratutako hitzarmenek urte bererako aurreikusitako igoera (% 3,64) baino

4.15. TAULA
EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOEREN BILAKAERA (*)

	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO SOLDATA IGOERAK		
	Erreferentziako urtea baino lehen erregistratutako hitzarmenetan	Erreferentziako urtean erregistratutako hitzarmenetan	Indarrean dauden hitzarmen guztietan
2008	4,47	4,37	4,44
2009	2,59	2,69	2,60
2010	2,36	1,80	2,12
2011	3,50	2,70	3,16
2012	2,67	1,24	2,18
2013	1,33	0,76	0,93
2014	0,73	0,47	0,65
2015	0,58	0,68	0,62
2016	0,98	1,05	1,01
2017	1,32	1,68	1,48
2018	1,45	2,15	1,86
2019	1,88	2,25	2,00
2120	1,76	2,25	2,00
2021	1,29	2,25	2,00
2022	4,08	4,08	4,08
2023	3,64	4,66	4,22

(*) Urte bakoitzeko abenduaren 31 arte erregistratutako hitzarmenak.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da 2023an bertan erregistratutako hitzarmenek urte horretarako aurreikusitako soldata-igoera (% 4,66) handiagoa zela aurrez erregistratutako hitzarmenetan 2023rako aurreikusten zen igoera baino (% 3,64).

LANALDIA

2023rako adostutako batez besteko lanaldia 1.698 ordukoa izan zen EAEn aplikatzekoak diren eta indarrean dauden hitzarmenetan, eta 1.749 ordukoa Estatuko hitzarmenetan

4.16. TAULA

2023AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO LANALDIAREN IRAUPENA (URTEKO ORDU KOPURUA) EAE-N ETA ESTATUAN

	2023	
	EAE	ESTATUA (*)
Guztira	1.698	1.749
Sektorea	1.705	1.752
Enpresa	1.679	1.699

(*) Ministerioak 2024ko urtarrilaren 31n emandako informazioa.
Iturriak: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

2023an indarrean zeuden eta baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan EAerako adostutako batez besteko jardunaldia 1.698 ordukoa izan zen. Estatutako hitzartutako batez besteko jardunaldia, berriz, 1.749 ordukoa izan zen.

Sektoreko hitzarmenetan, 2023an EAerako adostutako batez besteko lanaldia 1.705 ordukoa izan zen eta, enpresa-hitzarmenetan, 1.679 ordukoa (4.16. taula). Estatuan, 2023an adostutako batez besteko lanaldia 1.752 ordukoa izan zen sektoreko hitzarmenetan eta 1.699 ordukoa enpresa-hitzarmenetan.

4.17. TAULA

2023AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO LANALDIAREN IRAUPENA (URTEKO ORDU KOPURUA)

	2023	
	EAEn negoziatutakoak	Estatuan erregistratutakoak, EAEn eragina dutenak (*)
Guztira	1.684	1.727
Sektorea	1.687	1.736
Enpresa	1.672	1.694

(*) Ministerioak 2024ko urtarrilaren 31n emandako informazioa.
Iturriak: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Aurreko urteetan bezala, EAEn negoziatutako hitzarmenetan (1.684 ordu) eta EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan (1.727 ordu) adostutako lanaldien arteko ezberdintasunak aipatu behar dira.

EAEn negoziatu ziren eta indarrean zeuden hitzarmenen artean, 2023an hazi egin zen aurreko urtearekiko lanaldia murriztu zuten pertsonen kopurua, baina txikitu egin zen murrizketa horren zenbatekoa

EAEn negoziatu ziren eta 2023an indarrean zeuden hitzarmen guztien artetik, % 9,5ek lanaldiaren murrizketa aurreikusten zuten aurreko urtearekiko (4.18. taula), eta hitzarmenak indarrean zituzten langileen % 12,6 eragin zien horrek.

Aurreko urtearekin alderatuta, gora egin zuen eraginpeko pertsonen kopuruak, baina behera egin zuen murrizketaren zenbatekoak.

4.18. TAULA

INDARREAN DAUDEN ETA AURREKO URTEAREKIKO LANALDIA MURRIZTEN DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN EHUNEKOA ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONAK

	2021		2022		2023	
	Hitzarmenen %	Eraginpeko pertsonen %	Hitzarmenen %	Eraginpeko pertsonen %	Hitzarmenen %	Eraginpeko pertsonen %
EAEn negoziatutako hitzarmenak	12,5	6,3	9,9	10,7	9,5	12,6

Lanaldi-murrizketaren zenbatekoari dagokionez, 2023ko guztizko murrizketaren batezbesteko haztatua 39 minutukoa (0,65 ordu) izan zen, aurreko urtean erregistratutako murrizketa (45 minutu; 0,75 ordu) baino txikiagoa.

4.19. TAULA

HITZARTUTAKO LANALDI-MURRIZKETA. URTEKO ORDU KOPURUA

	2021EKO JARDUNALDIA, 2020AREKIKO	2022KO JARDUNALDIA, 2021AREKIKO	2023KO JARDUNALDIA, 2022AREKIKO
EAEn erregistratuak	0,77	0,75	0,65

4.1.6. 2023AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATU ETA SINATU ZITUZTEN ERAKUNDEAK

ERAKUNDE SINDIKALAK

CCOOk eta UGTk jarraitzen dute hitzarmen gehien sinatzen dituzten sindikatuak izaten, negoziazio-mahaietan duten presentzia kontuan hartuta

Jarraian, erakunde sindikalek negoziazio-mahaietan eta EAEn negoziatutako hitzarmenen (2023an indarraldi arruntean zeudenak) sinaduran duten presentziari buruzko informazioa agertzen da.


Hortaz, atal honetako analititik kanpo utzi ditugu EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak. Hirugarren atalean aztertutako datuen arabera, 2023an 527 hitzarmen erregistratu zituzten EAEn eta horiek indarrean zeuden (kanpoan utzi ditugu luzapen-egoeran eta iraungita zeudenak). Aipatutako hitzarmenek 252.855 pertsonari eragiten zieten.

4.18. grafikoan (hitzarmen kopurua) eta 4.19. grafikoan (pertsona kopurua), ordezkari handiena duten lau sindikatuak 2023an indarrean zeuden hitzarmenetan izan zuten presentziaren eta sinaduraren arteko aldeak jasotzen dira.

2023an indarrean zeuden hitzarmenen % 62,4 sinatu zituen ELAk (2022an % 67,5). 2023an Hitzarmenak EAEn erregistratuta eta indarrean zituzten langileen % 44,4ri eragin zieten horiek (2022an % 51,1).

4.18. GRAFIKOA

GEHIENGOA DUTEN ERAKUNDE SINDIKALEN PRESENTZIA ETA SINADURA INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN* (HITZARMEN KOPURUA)




*EAEn negoziatutako hitzarmenak, 2023an indarraldi arruntean zeudenak.

ELAk sinatutako hitzarmen guztien artetik, % 95,1 enpresa-hitzarmenak ziren eta % 4,9 sektore-hitzarmenak. EAEn negoziatutako sektore-hitzarmenak indarrean zituzten langileen % 40,3 babestu zituzten sindikatu horrek sinatutako 16 sektore-hitzarmenek. Aldiz, ELAk sinatutako 313 enpresa-hitzarmenek, gure Erkidegoan negoziatutako enpresa-hitzarmenak indarrean zituzten langileen % 56,4ri eman zieten estaldura.

Indarrean zeuden hitzarmenen % 32,6 sinatu zituen LABek (2022an % 32,2), eta horiek eraginpeko pertsonen % 55,5i eman zieten estaldura (2022an % 63,5) 25 sektoreko hitzarmen sinatu zituen, 112.582 pertsonari babesa eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko sektore-hitzarmenak zituzten langileen % 59,8); eta 147 enpresa-hitzarmen, 27.636 langileri estaldura eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenak zituzten langileen % 42,7).

4.19. GRAFIKOA

GEHIENGOA DUTEN ERAKUNDE SINDIKALEN PRESENTZIA ETA SINADURA INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN* (ERAGINPEKO PERTSONAK)



*EAEn negoziatutako hitzarmenak, 2023an indarraldi arruntan zeudenak.

CCOOk 154 hitzarmen sinatu zituen, indarreko guztien % 29,2 (2022an % 29,6), eta horiek langileen % 68,6ri eragin zieten (2022an % 78,5). 34 sektoreko hitzarmen sinatu zituen, 146.384 langileri babesa eman zietenak (gure Erkidegoan negoziatutako sektore-hitzarmenen eraginpeko langileen % 77,8); eta 120 enpresa-hitzarmen, 27.131 langileri estaldura eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenak zituzten langileen % 42).

Azterketan barne hartutako hitzarmenen % 25,8 sinatu zituen UGTk (2022an % 24,4), eta hitzarmenak indarrean zituzten pertsonen % 81,2ri eragin zieten horiek. 33 sektoreko hitzarmen sinatu zituen, 179.528 pertsonari babesa eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko sektore-hitzarmenak zituzten langileen % 95,4); eta 103 enpresa-hitzarmen, 25.784 langileri estaldura eman zietenak (gure Erkidegoan negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenak zituzten langileen % 39,9).

CCOO eta UGT izan ziren hitzarmen gehien sinatu zituzten sindikatuak, negoziazio-mahaietan duten presentzia kontuan hartuta (% 83,7 eta % 87,4, hurrenez hurren), ELAren (% 82,3) eta LABen (% 80,7) aurretik.

4.20. TAULA**ORDEZKARI SINDIKALEN PARTAIDETZA 2023AN INDARREAN ZEUDEN EAE-N ERREGISTRATUTAKO HITZARMENEN SINADURAN***

	ELA	LAB	CCOO	UGT	USO	ESK	Beste batzuk	S. gabeak**
Guztira								
Hitzarmen-kopurua	329	172	154	136	28	20	29	44
<i>Indarreko hitzarmen guztien gainerako %</i>	% 62,4	% 32,6	% 29,2	% 25,8	% 5,3	% 3,8	% 5,5	% 8,3
Eraginpeko pertsonak	112.290	140.218	173.515	205.312	7.804	4.147	14.662	6.789
<i>Indarreko hitzarmen guztien gainerako %</i>	% 44,4	% 55,5	% 68,6	% 81,2	% 3,1	% 1,6	% 5,8	% 2,7
Sektorea								
Hitzarmen-kopurua	16	25	34	33	3	0	2	0
<i>Indarreko hitzarmen guztien gainerako %</i>	% 34,8	% 54,3	% 73,9	% 71,7	% 6,5	% 0,0	% 4,3	% 0,0
Eraginpeko pertsonak	75.808	112.582	146.384	179.528	3.123	0	1.756	0
<i>Indarreko hitzarmen guztien gainerako %</i>	% 40,3	% 59,8	% 77,8	% 95,4	% 1,7	% 0,0	% 0,9	% 0,0
Enpresa								
Hitzarmen-kopurua	313	147	120	103	25	20	27	44
<i>Indarreko hitzarmen guztien gainerako %</i>	% 65,1	% 30,6	% 24,9	% 21,4	% 5,2	% 4,2	% 5,6	% 9,1
Eraginpeko pertsonak	36.482	27.636	27.131	25.784	4.681	4.147	12.906	6.789
<i>Indarreko hitzarmen guztien gainerako %</i>	% 56,4	% 42,7	% 42,0	% 39,9	% 7,2	% 6,4	% 20,0	% 10,5

(*) 2023/12/31 arte

(**) Sindikatu gabeak.

ENPRESA ERAKUNDEAK

2023an indarrean zeuden 46 sektore-hitzarmenen artetik, 16 sinatu zituen Confebaskek, 23 beste enpresa-erakunde batzuek eta 7 elkarrekin

2023an indarrean zeuden eta EAEn erregistratu zituzten sektore-hitzarmen kolektiboetatik eskuratutako informaziotik, enpresa-erakunde sinatzaileei buruzkotik (4.21. taulan agertzen da, lurralde eremuaren arabera banakatuta), ondorio hauek atera daitezke.

Lehenik eta behin, 2023an indarrean zeuden 46 sektore-hitzarmenen artetik, zazpi elkarrekin sinatu zituzten Confebask osatzen duten erakundeetako batek (SEA, ADEBGI edo CEBEK) eta beste enpresa-erakundeetako ordezkariak.

Araban, lurralde horretan indarrean zeuden hamar sektore-hitzarmenetatik bost sinatu zituen SEA erakundeak, eta aipatutako eremuko pertsonen % 78,3ri eragin zieten horiek. Beste enpresa-erakunde batzuek beste bost sektore-hitzarmen sinatu zituzten Araban, eta horiek 4.816 pertsonari eman zieten estaldura (eraginpeko pertsonen % 21,7ri).

Bizkaiari dagokionez, 2023an lurralde horretan indarrean zeuden 16 sektore-hitzarmenetatik 11ren sinaduran parte hartu zuen CEBEKek, eta horiek eremu horretako langileen % 96,8ri eragiten zieten. Beste erakunde batzuek 10 sektore-hitzarmen sinatu zituzten (horietako bost CEBEKekin batera), eta eremu horretako hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 38,2ren lan-harremanak erregulatu zituzten.

4.21. TAULA**2023AN EAE-N INDARREAN ZEUDEN SEKTORE-HITZARMEN KOLEKTIBOEN ENPRESA-ERAKUNDE SINATZAILAK**


	CONFEBASK (*)		BESTE ERAKUNDE BATZUK	
	Hitzarmenak	Eraginpeko pertsonak	Hitzarmenak	Eraginpeko pertsonak
EAE, guztira	23	150.830	30	82.893
Araba	5	17.373	5	4.813
Bizkaia	11	84.466	10	33.369
Gipuzkoa	7	48.991	10	33.369
Lurralde artekoak	--	--	5	9.342

(*) Lurralde-mailako hiru erakunde-kidez osatuta: ADEGI (Gipuzkoa), CEBEK (Bizkaia) eta SEA (Araba).

Gipuzkoan, indarreko hamabost sektore-hitzarmenetatik zazpi sinatu zituen ADEGI erakundeak. Horiek sektore-hitzarmenen eraginpeko langileen % 70,6ri eragiten diete. Beste erakunde batzuek hamar sektore-hitzarmen sinatu zituzten (horietako bi ADEGIrekin batera), eta eraginpeko langileen % 48,1en lan-baldintzak arautu zituzten.

Lurralde arteko eremuan, bost sektore-hitzarmen sinatu ziren, eta CONFEBASKE ez zuen horietan parte hartu.

2023an EAEn indarrean zeuden sektore-hitzarmenen % 50 izan ziren Confebasken baitako erakundeek (CE-BEK, ADEGI eta SEA) sinatuak, eta eremu horretako pertsonen % 80,1i eragiten zieten. 46 sektore-hitzarmenetatik 30 sinatu zituzten beste enpresa-erakunde batzuek, eta hitzarmen horien eraginpeko langileen % 44ri eragiten zieten. Horien artean, ostalaritza-sektoreko eta garraio-sektoreko patronalak nabarmentzen dira, duten garrantziagatik.

4.20. GRAFIKOA**ENPRESA-ERAKUNDEEN PARTAIDETZA 2023AN EAE-N ERREGISTRATUTAKO INDARREKO SEKTORE-HITZARMENEN KOLEKTIBOEN SINADURAN***

4.1.7. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK²¹ EAE-N

2023an zehar, 12 inaplikazio gordailutu ziren EAEn, eta horiek 178 pertsonari eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, inaplikazio-kopurua % 45,5 murriztu zen (2022an 22), eta eraginpeko pertsonen kopurua % 47,3 (2022an 338).

Aipatu beharrekoa da oso txikia izaten jarraitzen duela gordailututako inaplikazioen eta eraginpeko pertsonen kopuruak, 2023aren amaieran hitzarmenak indarrean (indarraldi betean eta aurreraeraginean) zituzten langileen kopurua 575.000 pertsonatik gorakoa zela kontuan hartuta.

Aurreko urteetan bezala, inaplikazio gehienetan kontsulta epean lortu zen alderdien arteko akordioa; zehazki, 12 inaplikazioetatik 11tan. Kasu batean hitzarmenaren batzorde paritarioan eskuratu zen akordioa.

2023an EAEn aurkeztutako inaplikazio-kopuruak (12) eta horien eraginpeko pertsonen kopuruak (178 pertsona) oso txikiak izaten jarraitzen dute, hitzarmenak indarrean dituzten langileen kopurua kontuan hartuta

Halaber, aurreko sei urteetan bezala, 2023an ere ez zioten inaplikazio-eskaerarik aurkeztu ORPRICCEri, Estatutuaren araberako Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoari.

Sektorearen arabera, zerbitzu-sektoreko enpresek 7 inaplikazio aurkeztu zituzten, eta horiek 113 pertsonari eragin zieten; industria-sektoreko enpresek 4 inaplikazio aurkeztu zituzten, 57 pertsonari eragin zietenak; eta eraikuntza-sektoreak inaplikazio bakar bat aurkeztu zuen, 8 pertsonari eragin ziena. EAEko lehen sektoreko enpresek ez zuten inaplikazio bakar bat ere aurkeztu.

Soldataren zenbatekoak eta ordainsari-sistemak jarraitzen dute inaplikazioen arrazoi nagusiak izaten


Inaplikazioen arrazoiei dagokienez, soldataren zenbatekoarekin eta/edo ordainsari-sistemarekin lotuta egon ziren 12 inaplikaziotik 8. Lanaldia, ordutegia edo lanorduen banaketa izan ziren 2 inaplikazio aurkezteko arrazoiak, eta lanaldiarekin eta soldatarekin lotutako arrazoiak izan zituzten aurkeztutako beste bi inaplikaziok. 2021ean eta 2022an ere soldatarekin edo ordainsari-sistemekin lotutako gaiak izan ziren inaplikazioaren arrazoiak EAEn aurkeztutako inaplikazio gehienetan.

Aurkeztutako inaplikazio guztien artetik, Gipuzkoako Lan Agintaritzan aurkeztu zituzten 7, eta Bizkaiko Lan Agintaritzan 5. Aldiz, Araban ez zen inaplikaziorik aurkeztu 2023an zehar.

²¹ 2012ko lan-erreformak aukera ematen die enpresei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintza jakin batzuk enpresan ez aplikatzeko, arrazoi ekonomikoak, arrazoi teknikoak, antolaketako arrazoiak edo ekoizpenarekin lotutako arrazoiak daudenean, eta enpresaren eta langileen ordezkarien arteko adostasuna badago. Adostasun batera heldu hezean, hitzarmenaren batzordearen esku utzi liteke desakordioa. Batzorde horrek esku hartzen ez badu edo akordio batera heltzen ez badira, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok akordio eza konpontzen ez badu, alderdietako edozeinek ORPRICCEren esku utzi dezake konponbidea; haren egoitza LHKn dago.

Azkenik, aurreko txostenetan esan bezala, inaplikazioen eraginpeko pertsonen kopurua oso baxua da, eta kasu gehienetan alderdien arteko adostasunaren bidez ebazten dira prozedurak, kontsulta-epean. Ondorioz, hiru alderdiko organoaren esku-hartzeak bazterrekoa izaten jarraitzen du.

4.21. GRAFIKOA EAE. INAPLIKAZIOEN ERAGINPEKO PERTSONAK



4.1.8. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTORE PUBLIKOAN

Sektore publikoan lan egiten duten langileen soldata % 3,5 igo zen 2023an, batez beste

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak (2022ko abenduaren 24ko BOE), 19. artikuluko 2. atalean, honakoa ezartzen du:

"1. 2023. urtean, sektore publikoko langileen ordainsariekin ezin dute ehuneko 2,5etik gorako igoerarik izan, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, betiere alderaketa baldintza berdinetan eginda, bai langile kopuruari dagokionez, bai langileen antzinasunari dagokionez.

2. Halaber, hala dagokionean, honako igoerak aplikatuko zaizkie 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei eta, bi kasuetan, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira eraginkorrak igoerak:

a) Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerarekin lotutako igoera.

2022ko KPIHren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren arteko batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ordainsarien igoera gehigarri bat aplikatuko da, gehienez ere ehuneko 0,5ekoa.

Horretarako, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratzen dituenean, igoera honen aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Akordio bidez, eta BOEn argitaratuko da.

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren igoera Gobernuak Aurrekontuen lege honetan agertzen den taula makroekonomikoan kalkulatuak diren berdina edo handiagoa bada, ordainsarien igoera gehigarri bat aplikatuko da, ehuneko 0,5ekoa."

Gure Erkidegoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen (2022ko abenduaren 30eko EHAA) 19. artikuluko 1. atalaren arabera, 2023. urtean, lan-kontratudunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariekin ezin izango dute % 2,5etik gorako gehikuntza orokorrik izan, 2022ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsariekin.

KPIHren datuak ezagutu ondoren, aipatutako abenduaren 23ko 31/2022 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko publikoko langileen ordainsariak 2023an % 0,5 gehiago igotzea onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak, 2023ko urriaren 3an egindako saioan (2023ko urriaren 17ko EHAA).

Ondoren, 2024an, EINek 2023ko KPIari buruzko datuen aurrerapena argitaratu zuenean, otsailaren 6an, Ministroen Kontseiluak ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria onartu zuen sektore publikoko langileentzat; eta EAEko Gobernu Kontseiluak, 2024ko otsailaren 13ko saioan, % 0,5eko igoera gehigarria adostu

zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan lan egiten duten langileentzat (2024ko otsailaren 27ko EHAA). Hortaz, 2023ko guztizko igoera % 3,5ekoa izan zen, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Tokiko administrazioaren kasuan, EUDELEk eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuek tokiko administrazioako langileentzat 2008an sinatutako Lan Harremanetarako Esparru Akordio Orokorrak (Udalhitz) 2010eko abenduaren 31n galdu zuen indarraldia.

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legean xedatutakoaren arabera, tokiko udalbatzetan eta horien mendeko erakundeetan lan egiten duten pertsonen ere eragiten die legean ezarritako soldata-igoerak.

Administrazio publikoetako langileen eta funtzionarioen urteko lanaldia 1.592 ordukoa izan zen 2023an.

4.2. LANEKO GATAZKAK

4.2.1. ALDERDI NAGUSIAK

2023an zehar, 970 laneko gatazka erregistratu zituzten EAEn. Horietatik 325 grebak izan ziren, eta 645 Precori aurkeztutako gatazkak. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, greba-kopuruak zein horietan parte hartu zuten pertsonen kopuruak behera egin zuten. Aldiz, gora egin zuten Precori aurkeztutako gatazka-kopuruak eta horien eraginpeko pertsonen kopuruak.

4.2.2. TAULA
LANEKO GATAZKAK EAE-N

	LANEKO GREBAK		PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK	
	Gatazka-kopurua	Parte-hartzaileak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko pertsonak
2010	298	38.090	454	128.464
2011	240	18.640	530	109.632
2012	278	21.600	420	72.033
2013	350	37.020	1.349	453.819
2014	236	17.126	581	160.280
2015	184	10.608	573	186.645
2016	164	13.735	613	200.406
2017	214	59.505	494	134.363
2018	264	48.696	476	114.190
2019	308	79.860	464	117.988
2020	190	25.642	590	230.501
2021	248	14.848	576	259.609
2022	342	106.998	525	106.709
2023	325	58.307	645	142.824

Iturria: LHK eta Lan eta Enplegu Saila.

4.2.2. LANEKO GREBAK EAE-N

Aurreko urtearekin alderatuta, 2023an behera egin zuten greba-kopuruak, eraginpeko pertsonen kopuruak eta lan egin gabeko lanaldien kopuruak

2023an zehar 325 laneko greba erregistratu ziren EAEn eta 58.307 pertsonak parte hartu zuen horietan. Lan egin gabeko lanaldien kopurua 169.836koa izan zen.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, greba-kopurua -% 5 jaitsi zen, eraginpeko langileen kopurua -% 45,5 eta lan egin gabeko lanaldien kopurua -% 55,8.

Bizkaiko eraikuntza-sektoreko greba-deialdiak nabarmendu behar dira, horien garrantzia dela eta. Izan ere, EAEko lan egin gabeko lanaldien % 17,7 lotuta egon ziren gatazka horrekin.


4.23. TAULA LANEKO GREBAK (EAE)

	GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2010	298	38.090	179.519	128	602	37,7
2011	240	18.640	83.935	78	350	36,0
2012	278	21.600	130.930	78	471	48,5
2013	350	37.020	140.391	106	401	30,3
2014	236	17.126	56.648	73	240	26,5
2015	184	10.608	18.222	58	99	13,7
2016	164	13.735	58.157	84	355	33,9
2017	214	59.505	96.423	278	451	13,0
2018	264	48.696	110.838	184	420	18,2
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3
2020	190	25.642	59.741	135	314	18,6
2021	248	14.848	140.775	60	568	75,8
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7
2023	325	58.307	169.836	179	523	23,3

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Eremu instituzionala (pribatua/publikoa) kontuan hartuta, greba, partaide eta lan egin gabeko lanaldi gehienak eremu pribatukoak izan ziren, ohiko moduan. Dena den, gogora ekarri behar da iaz erregistratutako greba batzuk, sektore publikokoak ez izan arren, haien jarduera garatzeko Administrazioaren finantzaketaren mende dauden sektoreetan gertatu zirela, hala nola itunpeko irakaskuntzan, Osakidetzako garbiketa-zerbitzuen enpresa emakidadunetan eta Bizkaiko hirugarren adineko egoitzetan. Hiru gatazka horiek, 2023an, lan egin gabeko 21.000 lanaldi baino gehiago batu zituzten.


4.22. GRAFIKOA

GREBETAN LAN EGIN GABEKO LANALDIAK, EREMUAREN ARABERA: PRIBATUA / PUBLIKOA (EAE, 2016-2023)

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Bestetik, 2023an enpresa gatazkekin lotuta zeuden greben % 85,5, baina eraginpeko pertsonen % 25,4 eta lan egin gabeko lanaldien % 40,3 baino ez. Hala, sektoreko gatazkekin lotuta zeuden lan egin gabeko lanaldi gehienak.

4.23. GRAFIKOA

GREBETAN LAN EGIN GABEKO LANALDIAK, SEKTOREAREN ARABERA (EAE, 2016-2023)

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

4.24. TAULA

LANEKO GREBAK, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (EAE)

		GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2018	Guztira	264	48.696	110.838	18,2
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	76	5.546	28.242	40,7
	Eraikuntza	3	69	86	10,0
	Zerbitzuak	185	43.081	82.510	15,3
2019	Guztira	308	79.860	391.830	39,3
	Nekazaritza	1	3	64	170,7
	Industria	75	65.749	318.078	38,7
	Eraikuntza	7	197	785	31,9
	Zerbitzuak	225	13.911	72.903	41,9
2020	Guztira	190	25.642	59.741	18,6
	Nekazaritza	1	3	26	69,3
	Industria	70	7.168	22.135	24,7
	Eraikuntza	3	40	589	117,8
	Zerbitzuak	116	18.431	36.991	16,1
2021	Guztira	248	14.848	140.775	75,8
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	101	8.042	113.921	113,3
	Eraikuntza	13	544	2.946	43,3
	Zerbitzuak	134	6.262	23.908	30,5
2022	Guztira	342	106.998	384.459	28,7
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	95	82.013	306.608	29,9
	Eraikuntza	4	141	2.483	140,9
	Zerbitzuak	243	24.844	75.368	24,3
2023	Guztira	325	58.307	169.836	23,3
	Nekazaritza	1	12	10	6,7
	Industria	102	21.675	49.717	18,3
	Eraikuntza	9	10.100	31.428	24,9
	Zerbitzuak	213	26.520	88.681	26,8

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Grebaren ondorioz lan egin gabeko lanaldi gehienak zerbitzu-sektorean gertatu ziren

Sektoreka, 2023an zerbitzu-sektorearekin lotuta egon ziren greben % 65,5, parte-hartzaileen % 45,5 eta lan egin gabeko lanaldien % 52,2. Zentzu horretan, kontuan izan behar da, 2023an ez bezala, aurreko bi ekitaldietan industria-sektorearekin lotuta egon zirela lan egin gabeko lanaldi gehienak (guztizkoaren % 80,9 eta % 79,8 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren). Zentzu horretan, 2022an eragin berezia izan zuen Bizkaiko industria siderometalurgikoko gatazkak.

4.25. TAULA LANEKO GREBAK (ESTATUA)

	GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2010	984	340.776	671.498	346	682	15,8
2011	777	221.974	485.054	286	624	17,5
2012	878	323.871	1.290.114	369	1.469	31,9
2013	994	448.024	1.098.480	451	1.105	19,6
2014	777	217.047	620.568	279	799	22,9
2015	615	170.528	497.483	277	809	23,3
2016	641	183.120	388.912	286	607	17,0
2017	730	225.723	594.253	309	814	21,1
2018 ⁽¹⁾	726	338.671	907.631	466	1.250	21,4
2019 ⁽²⁾	898	264.454	858.401	294	956	26
2020 ⁽²⁾	487	151.496	540.579	311	1.110	28,5
2021 ⁽²⁾	606	199.026	422.815	328	698	17
2022 ⁽²⁾	679	192.751	709.099	284	1.044	29,4
2023	777	294.750	987.956	379	1.272	26,8

(1) Ez ditu jasotzen greba orokorren datuak, ezta fiskalen, magistratuen eta epaileen greben datuak ere.

(2) Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Estatu osoari dagokionez, 2023an urte arteko hazkundera izan zuten grebek, parte hartu zuten pertsonen eta lan egin gabeko lanaldien (% 14,4, % 52,9 eta % 39,3, hurrenez hurren).

Azkenik, negoziazio kolektiboko prozesuetatik eratorritako sektoreko greben deialdiak egoteak edo ez egoteak eragin handia du, bai lan egin gabeko lanaldien kopuruan, bai horiek industrian edo zerbitzu-sektorean pilotzean. Hala, sektoreko gatazka horiek azal ditzakete egon diren urte arteko aldakuntzek.

4.26. TAULA
LANEKO GREBAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

		GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO	GREBA BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)
2014	EAE	236	17.126	56.648	73	240	26,5	10,2
	Araba	73	3.647	7.956	50	109	17,5	9,5
	Bizkaia	119	11.227	37.570	94	316	26,8	10,1
	Gipuzkoa	44	2.252	11.122	51	253	39,5	11,8
2015	EAE	184	10.608	18.222	58	99	13,7	7,5
	Araba	62	2.901	2.573	47	42	7,1	9,1
	Bizkaia	78	5.175	12.162	66	156	18,8	7,9
	Gipuzkoa	44	2.532	3.487	58	79	11,0	4,4
2016	EAE	164	13.735	58.157	84	355	33,9	15,1
	Araba	48	2.150	5.385	45	112	20,0	11,6
	Bizkaia	73	8.205	26.982	112	370	26,3	12,4
	Gipuzkoa	43	3.380	25.790	79	600	61,0	23,6
2017	EAE	214	59.505	96.423	278	451	13,0	8,1
	Araba	46	11.690	14.774	254	321	10,1	6,0
	Bizkaia	91	26.846	46.087	295	506	13,7	10,0
	Gipuzkoa	77	20.969	35.562	272	462	13,6	7,3
2018	EAE	264	48.696	110.838	184	420	18,2	10,6
	Araba	37	6.705	9.723	181	263	11,6	4,9
	Bizkaia	130	29.172	66.795	224	514	18,3	10,6
	Gipuzkoa	97	12.819	34.320	132	354	21,4	12,8
2019	EAE	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3	13,2
	Araba	52	3.469	9.922	67	191	22,9	5,7
	Bizkaia	119	72.579	345.686	610	2.905	38,1	9,7
	Gipuzkoa	137	3.812	36.222	28	264	76,0	19,0
2020	EAE	190	25.642	59.741	135	314	18,6	11,2
	Araba	41	6.090	9.079	149	221	11,9	4,4
	Bizkaia	58	12.348	30.167	213	520	19,5	15,4
	Gipuzkoa	91	7.204	20.495	79	225	22,8	11,5
2021	EAE	248	14.848	140.775	60	568	75,8	9,1
	Araba	32	2.578	96.718	81	3.022	300,1	14,5
	Bizkaia	153	10.409	39.087	68	255	30,0	9,8
	Gipuzkoa	63	1.861	4.970	30	79	21,4	4,7
2022	EAE	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7	14,7
	Araba	52	15.835	43.819	305	843	22,1	8,7
	Bizkaia	166	81.547	307.017	491	1.850	30,1	14,8
	Gipuzkoa	124	9.616	33.623	78	271	28,0	17,0
2023	EAE	325	58.307	169.836	179	523	23,3	13,2
	Araba	33	7.750	17.832	235	540	18,4	11,8
	Bizkaia	221	37.529	108.237	170	490	23,1	12,0
	Gipuzkoa	71	13.028	43.767	183	616	26,9	17,5

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

4.2.3. PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK

2023an zehar, Lan Harremanen Kontseiluak Preco akordioa (Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa) kudeatzen jarraitu du, haren hiru lurralde-zerbitzuen bidez. 2000ko otsailaren 16an (66 zenbakidun EHAA, 2000ko apirilaren 4koa) sinatu zuten Preco akordioa Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak handiena duten konfederazio sindikal eta enpresarial guztiek.

Jarraian, lehenik eta behin, 2023an zehar eskatutako prozeduren gaineko informazioa agertzen da. Horrek, Precoren bidez bideratutako laneko gatazken ikuspegi orokorra eskaintzen du. Gero, urte horretan bertan amaitutako prozedurei buruzko informazioa aurkeztuko dugu, eta horien kudeaketa eta emaitzak aztertuko ditugu.

2023an hazi egin ziren Precori aurkeztutako eskaera-kopurua eta eraginpeko pertsonen kopurua

2023an zehar 645 eskaera aurkeztu zizkieten Precori, eta horiek 142.824 pertsonari eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, % 22,9 hazi zen aurkeztutako eskaera-kopurua eta % 33,8 eraginpeko pertsonen kopurua.


2008ko krisiaren ondorengo urteetan eta 2011ko eta 2012ko lan-erreformen ondorengo urteetan, gatazka kolektiboen eskaerak nabarmen ugaitu ziren, eta 2013an goia jo zuten. Urte horretan, gatazka-kopurua 1.349ra arte igo zen; kasu askotan, enpresa askok euren langileei egindako komunikazioen (hitzarmen ugaitzearen aurreraeragina amaitu zela jakinarazteko) aurkako inpugnazio masiboaren ondorioz.

Ordutik aurrera, egoera normaltasunera itzultzen joan zen, eta hiru ekitalditan zehar (2014, 2015 eta 2016) 600 gatazka inguruan kokatu zen zifra. 2017 eta 2019 artean, maila nahiko baxuagoak erregistratu ziren: 500 eskaera baino gutxiago.

Joera hori eten egin zen 2020. eta 2021. urteetan. Izan ere, COVID-19 koronabirusaren agerpenaren eraginez, gatazka-kopurua asko igo zen; kasu askotan, pandemiari aurre egiteko onartutako araudi espezifikoak aplikatzean sortutako desadostasunengatik. Kopuruak igotzen jarraitu zuen 2023an. Urte horretan 645 eskaera egin zituzten: 2014-2022 aldiko batezbestekoa baino gehiago.

2023an 142.824 pertsonari eragin zieten gatazkek, eta 2022an 106.709 pertsonari. Hortaz, aipatu dugun moduan, aurreko urtearekiko hazkundea % 33,8koa izan zen.


4.24. GRAFIKOA
AURKEZTUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOKO ESKAERAK: 2005-2023



Iturria: LHK.

Sektore ekonomikoen arabera, ez dago alde handirik aurreko urtearekiko. Aurkeztutako gatazka guztien % 64 zerbitzu-sektorekoak izan ziren, eta eskaeren % 33,5 industria-sektorekoak.

4.25. GRAFIKOA
PROZEDUREN BANAKETA, EHUNekoETAN, SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA. 2006-2023



Iturria: LHK.

Aurreko txostenetan aipatu dugun moduan, 2006tik aurrera behera egiten hasi ziren industria-sektoreko gatazkek, eta ugaritzen hasi ziren zerbitzu-sektorekoak. Zati batean, eragina izan zuen gure ekoizpen-ehunaren osaeraren aldaketak, zerbitzu-sektorearen pisua gero eta handiagoa baita.

Eskatutako prozedura guztien % 60 baino gehiago hirugarren sektorean aurkeztutako gatazkak dira

4.27. TAULA.

PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOAK

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Gatazka-kopurua	Eraginpeko pertsonak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko pertsonak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko pertsonak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko pertsonak
2005	65	44.212	182	26.137	97	21.839	344	92.188
2006	83	21.004	195	20.438	86	7.044	364	48.486
2007	84	27.033	182	45.349	87	9.225	353	81.607
2008	111	35.484	213	33.630	82	10.678	406	79.792
2009	71	64.749	202	67.675	88	8.889	361	141.313
2010	101	52.787	237	65.326	116	10.351	454	128.464
2011	126	35.605	302	59.386	102	14.641	530	109.632
2012	96	20.760	220	41.477	104	9.796	420	72.033
2013	203	95.109	739	214.253	407	144.457	1.349	453.819
2014	148	59.971	289	85.874	144	14.435	581	160.280
2015	94	34.688	326	138.650	153	13.307	573	186.645
2016	133	38.793	319	143.871	161	17.742	613	200.406
2017	103	36.694	245	45.786	146	51.883	494	134.363
2018	109	55.872	253	46.230	114	12.088	476	114.190
2019	131	40.620	232	62.160	101	15.208	464	117.988
2020	159	113.007	334	105.668	97	11.826	590	230.501
2021	146	44.197	288	178.511	142	36.901	576	259.609
2022	117	28.983	245	50.014	163	27.712	525	106.709
2023	181	55.929	311	70.835	153	16.060	645	142.824

Iturria: LHK.

Lurraldearen arabera, aurreko urtearekin alderatuta, 2023an % 54,7 hazi zen gatazka-kopurua Araban, eta % 26,9 Bizkaiian. Gipuzkoan, berriz, -% 6,1 murriztu zen.

Gatazka motei dagokienez, enpresaren erabaki edo praktikei buruzko gatazkek jarraitzen dute nagusitzen; horien bidez, hainbat motatako neurri enpresarialak inpugnatzen dira. Gatazka horiek, historikoki, prozedura guztien % 50 baino gehiago izan ohi dira eta, 2023an, % 60,3 izan ziren (389 eskaera). Hortaz, ehuneko 6,8 puntu hazi da horien kopurua, 2022an eskatutakoekin alderatuta.


Behera egiten jarraitzen dute arauen eta itun edo hitzarmen kolektiboen interpretazioari edo inaplikazioari buruzko gatazkek. 2023an mota horretako 170 eskaera aurkeztu zituzten (gutzizkoaren % 26,4). 2022an, eskaeren % 28,2 izan ziren mota horretakoak (148 eskaera) eta 2021ean % 39,4, dezente gehiago (227 eskaera). Ohikoa den moduan, mota horretako gatazka gehienak lotuta zeuden hitzarmen kolektiboen interpretazioaren edo betetzearen gaineko desadostasunekin, eta oso gutxi izan ziren legezko arauen interpretazioarekin edo aplikazioarekin lotutako eskaerak.

Halaber, behera egin zuten lan-baldintzei buruzko desadostasunekin edo enpresako hitzarmen edo itunen negoziazioa gelditzearekin lotutako gatazka kolektiboek (2023an % 9), 2022an gora egin ondoren (guztizkoaren % 15,6).

Gainerako gatazkek honela banakatu ziren: 27 eskaera, enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazioaren ehunekoia ziurtatzeko; eta hitzarmen kolektiboen batzorde paritarioek aurkeztutako 1 prozedura, sortutako desadostasun bati buruzkoa.

2023an % 24,7koa izan zen gatazken konpontze-tasa: adostasunen eta laudoen tasa zati eskaera guztiak

4.26. GRAFIKOA PROZEDUREN EMAITZA, OROKORREAN: 2013-2023



Honela kalkulatzen da gatazken konpontze-tasa: adostasunen eta laudoen tasa zati urte horretan amaitutako eskaera guztiak. 2023an gatazken konpontze-tasa apur bat jaitsi zen 2022arekin alderatuta, eta % 24,7an kokatu zen (163 prozedura); zehazki, ehuneko 2,1 puntu jaitsi zen aurreko urtetik (% 26,8), baina 2018-2022 aldiko urteko batezbestekoa (% 23,2) baino 1,5 puntu gorago mantendu zen.

Benetan tramitatutako eskaera-kopuru totalarekin alderatuz gero (tramitera onartu ez izanagatik eta aurkako taldea ez agertzeagatik atzera botatakoak eta artxibatutakoak kenduta), konpondutako gatazken ehunekoia, errealitatetik gertuagokoa, % 27,7koa izango litzateke.

Azkenik, hasierako fasean konpondu gabeko oso prozedura gutxik jarraitu zuten aurrera elkar aditzeko, bitartekaritarako edo arbitrajarako saio gisa, alderdiek aukeratutako kanpoko profesional baten esku-hartzearekin. Ehunekoetan, 2023. urtean amaitutako prozedura guztien % 5,6 izan ziren mota horretako prozedurak (2022an % 4,5).

4.3. ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

4.3.1. SARRERA. ARAU ESPARRUA

Enplegu-erregulazioko espedienteak prozedura administratiboak dira, eta hiru ondorio ezberdin izan ditzakete:

- Lan harremana behin betiko iraungitzea (iraungitze EEEak)
- Lanaldia murriztea.
- Lan harremana aldi baterako etetea.

Ondorioa lanaldia murriztea edo lan harremana aldi baterako etetea denean, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak esaten zaie (ABEEE).

***Enplegu Erregulazioko Espedienteak:** Enpresek edo langileen ordezkari legalek lan-agintaritzaren eskudunarena aurrean aurkeztutako prozedurak, lanaldia murrizteko, aldi baterako eteteko edo lan-harremana iraungitzeko, arrazoi ekonomikoen, teknologikoen edo ezinbesteko arrazoiaren ondorioz, edo kontratatzailearen izaera juridikoa iraungi delako.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Saila

4.3.2. EAE-KO ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

Atal honetan, EAEko administrazioan aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedienteak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Izan ere, txosten hau egiteko unean, ezin izan dugu eskuratu EAEn lantokiak dituzten enpresek Administrazio Zentralari bidalitako espedienteen gaineko informazio zehatzik²².

Halaber, ez ditugu analisi honetan aztertuko Lehiaketen Legearen (22/2003 Legea, uztailaren 9koa) 64. artikuluan erregulatutako lehiaketa-prozeduren esparruan merkataritza arloko epaitegietan izapidetutako espedienteak.

Lehenik eta behin, nabarmendu beharrekoa da enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua eta horien eraginpeko pertsonen kopurua estu lotuta daudela ekonomiaren martxarekin.

Pandemiaren agerpenak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eskaintzen zituzten barneko malgutasun-neurrietara jo zuten enpresa askok uneren batean. Hala, aurreko urteetako datuak baino askoz ere handiagoak dira 2020. urteari dagozkionak. Hain zuzen ere, 2020.

²² Espedienteak autonomia-erkidego batean baino gehiagotan kokatuta dauden lantokiei edo pertsoneri eragiten badie, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioko Enpleguaren Zuzendaritza Nagusiak jasoko du enplegu-erregulazioko prozeduraren berri. Dena den, enpresako langileen ehuneko 85, gutxienez, autonomia-erkidego bateko lurralde eremuan kokatuta badaude eta eremu horretan espedientearen eraginpeko langileak badaude, erkidegoko lan-agintaritzan aurkeztu behar da prozedura.

urtean, EAEko sektore pribatuko soldatapeko langileen ia heren bati²³ (% 30,7) eragin zion enplegu-erregulazioko espediente batek uneren batean.

Jarduera pixkanaka normalizatzen joan zenez eta ezarritako murrizketak amaitu zirenez, hurrengo urteetan modu drastikoan jaitsi zen enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua.

EAEko Administrazioan aurkeztutako espediente guztien artetik, % 24 artxibatu edo baztertu egin zituzten, eta % 1,6 ez zituzten baimendu

4.28. TAULA

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK				
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea	
2021	EAEko administrazioak tramitatuak	3.322	43.430	4.839	37.496	1.095
	Baimenduak edo komunikatuak	1.858	32.723	3.332	28.477	914
	Atzera botatakoak eta/edo artxibatutakoak	1.351	9.910	1.129	8.602	179
	Baimendu gabeak	113	797	378	417	2
2022	EAEko administrazioak tramitatuak	822	27.109	2.181	24.218	710
	Baimenduak edo komunikatuak	565	19.772	1.265	18.070	437
	Atzera botatakoak eta/edo artxibatutakoak	239	7.239	908	6.063	268
	Baimendu gabeak	18	98	8	85	5
2023	EAEko administrazioak tramitatuak	371	9.731	1.039	7.704	988
	Baimenduak edo komunikatuak	276	7.404	525	6.051	828
	Atzera botatakoak eta/edo artxibatutakoak	89	2.287	512	1.615	160
	Baimendu gabeak	6	40	2	38	0

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2023an zehar enplegu-erregulazioko 371 espediente aurkeztu zituzten. Horietatik % 74,4 baimendu edo komunikatu zituzten (276 espediente) eta % 24 (89 espediente) artxibatu edo baztertu egin zituzten. Gainera, 6 espediente, % 1,6, ez zituen baimendu EAEko Administrazioak.

Eraginpeko langileei dagokienez, 2023an 9.731 pertsonarentzat eskatu ziren enplegu-erregulazioko espedienteak, hasiera batean. Horietatik, % 76,1ek EEE motaren baten estaldura izan zuten. Aldiz, baztertutako edo artxibatutako espedienteek 2.287 pertsonari (% 23,5) eragin zieten, eta baimendu gabeko espedienteek 40 langileri (guztizkoaren % 0,4).

²³ Honela kalkulatu da ehunekoak: enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko pertsona guztiak zati EAEko sektore pribatuko soldatapeko pertsonak 2020an, BJaren arabera. EEE-en eraginpeko pertsona kopurua kalkulatzeko, baimendutako edo komunikatutako espediente guztietako langileak batzen dira. Hortaz, baliteke pertsona bat behin baino gehiagotan zenbatuta egotea, baldin eta enpresak enplegu-erregulazioko espediente bat baino gehiago aurkeztu bazituen 2020an zehar.

4.3.3. EAE-KO ADMINISTRAZIOK BAIMENDUTAKO EDO HARI KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK


Aurrerantzean, EAEko Administrazioak baimendutako edo hari komunikatutako espedienteak bakarrik aztertuko ditugu, eta alde batera utziko ditugu artxibatutakoak edo baztertutakoak, baita baimendu gabeak ere.

Lehenik eta behin, 2020an, pandemiaren ondorioz, enplegu-erregulazioko espedienteen (gehienak ezinbesteko arrazoiengatik aurkeztuak) eraginpeko pertsona kopurua asko hazi zen aurreko krisiekin alderatuta. Hala, 210.019 pertsonari eragin zieten, 2009an (68.722 pertsona) halako hiruri eta 1993an erregistratutako kopuruaren bikoitzari baino gehiagori (86.166 pertsona)

2023an zehar, enplegu-erregulazioko 276 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 7.404 pertsonari eragin zieten; zifra horiek -% 51,2 eta -% 62,6 jaitsi ziren aurreko urtetik, hurrenez hurren

4.27. GRAFIKOA

EAE-N BAIMENDUTAKO EDO KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO PERTSONA KOPURUAREN BILAKAERA. 1993-2023.



Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2021. urtean, pandemiaren faserik gogorrena gainditu ondoren, EEE-en eraginpeko pertsona kopurua nabarmen jaitsi zen, 32.723 pertsonara. Eta, 2022an, murrizketen amaiera erabakigarria izan zen kopuru hori 19.772 pertsonara arte jaisteko.

2023an zehar, enplegu-erregulazioko 276 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 7.404 pertsonari eragin zieten; zifra horiek -% 51,2 eta -% 62,6 jaitsi ziren aurreko urtetik, hurrenez hurren.

Arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa-arrazoiengatik edo ekoizpen-arrazoiengatik aurkeztutako espedienteek 7.190 pertsonari eragin zieten, guztizkoaren % 97,1i. Gainerako % 2,9ari (214 pertsona) ezinbesteko arrazoiengatik espedienteek eragin zien.

4.29. TAULA

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ARRAZOIAREN ARABERA. 2023. URTEA

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa- arrazoiak edo ekoizpen-arrazoiak	231	7.190	497	5.887	806
Ezinbestekoak	45	214	28	164	22
Guztira	276	7.404	525	6.051	828

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Pertsonen % 88,8ri aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragin zieten, eta gainerako % 11,2ri lan-harremana iraungitzeko espedienteek eragin zioten

Aurreko urteetan bezala, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek (ABEEE) eragin zieten pertsona gehienei (2023an % 88,8), eta 828 langileri eragin zieten lan-harremana iraungitzeko espedienteek, guztizkoaren % 11,2ri.

Hala, nabarmendu beharrekoa da lan-harremana iraungitzeko espedienteen eraginpeko pertsona kopurua % 89,5 hazi zela aurreko urtetik: 2022an 437 pertsona ziren eraginpekoak, eta 2023an 828.

Sektorekako analisia

2023an, enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko pertsonen ia hiru laurdenek industria-sektorean lan egiten zuten (% 74,3)

EEE-en eragina jarduera-sektorearen arabera aztertuta, industria-sektorekoak izan ziren espedienteen % 44,9 eta eraginpeko pertsonen % 74,3; hirugarren sektorea izan zen hurrengoa, espedienteen % 42,8rekin eta langileen % 21,2rekin. Eraikuntza-sektoreko enpresek aurkeztutako espedienteak guztizkoaren % 3,6 izan ziren, eta eraginpeko langileak, % 3,7. Aldiz, lehen sektorekoak izan ziren espedienteen % 8,7 eta eraginpeko langileen % 0,8.

4.30. TAULA**ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA**

		ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
			Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2020	Guztira	30.690	210.019	26.243	182.463	1.313
	Lehen sektorea	94	381	144	237	0
	Industria	2.971	63.267	9.777	52.886	604
	Eraikuntza	1.212	6.335	828	5.262	245
	Zerbitzuak	26.413	140.036	15.494	124.078	464
2021	Guztira	1.858	32.723	3.332	28.477	914
	Lehen sektorea	25	64	10	54	0
	Industria	430	22.476	1.513	20.449	514
	Eraikuntza	46	357	54	281	22
	Zerbitzuak	1.357	9.826	1.755	7.693	378
2022	Guztira	565	19.772	1.265	18.070	437
	Lehen sektorea	27	55	0	50	5
	Industria	183	13.011	702	12.158	151
	Eraikuntza	28	522	28	459	35
	Zerbitzuak	327	6.184	535	5.403	246
2023	Guztira	276	7.404	525	6.051	828
	Lehen sektorea	24	64	0	64	0
	Industria	124	5.498	366	4.907	225
	Eraikuntza	10	273	1	205	67
	Zerbitzuak	118	1.569	158	875	536

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Plantillaren tamainaren araberako analisisia

Aurreko urtean bezala, 2023an ere 25 pertsonatik beherako enpresek tramitatu zituzten espediente gehienak (guztizkoaren % 72,8). Dena den, eraginpeko pertsonen kopurua kontuan hartuta, enpresa txiki horietan lan egiten duten pertsonak (1.536) eraginpeko pertsona guztien % 20,7 baino ez dira. Bestalde, 101 langiletik gorako enpresek 27 espediente aurkeztu zituzten, 2023ko espediente guztien % 9,8 bakarrik, baina eraginpeko pertsonen % 52,8 zegozkien.

4.31. TAULA**ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, PLANTILLAREN TAMAINAREN ARABERA. 2023. URTEA**

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
25 langiletik beherako plantilla	201	1.536	194	939	403
25 eta 50 pertsona arteko plantilla	30	925	42	722	161
51 eta 100 pertsona arteko plantilla	18	1.035	0	771	264
101 eta 250 pertsona arteko plantilla	22	2.947	289	2.658	0
250 langiletik gorako plantilla	5	961	0	961	0
GUZTIRA	276	7.404	525	6.051	828

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Analisia, lurralde historikoaren arabera

**4.32. TAULA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK ARABAN**

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2020	4.368	43.821	4.144	39.590	87
2021	273	12.021	429	11.385	207
2022	90	7.496	149	7.327	20
2023	47	2.076	61	1.871	144

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

**4.33. TAULA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK BIZKAIAN**

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2020	14.988	95.916	10.996	84.037	883
2021	933	13.230	1.746	10.951	533
2022	291	6.827	602	5.928	297
2023	132	3.252	155	2.641	456

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

**4.34. TAULA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK GIPUZKOAN**

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2020	11.334	70.282	11.103	58.836	343
2021	652	7.472	1.157	6.141	174
2022	184	5.449	514	4.815	120
2023	97	2.076	309	1.539	228

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Beste behin, Bizkaia izan zen 2023an espediente gehien komunikatu eta/edo baimendu ziren lurraldea, 132 espedienterekin (guztizkoaren % 47,8). Gipuzkoa izan zen hurrengoa, 97 espedienterekin (% 35,2), eta gero Araba, 47 espedienterekin (% 17).

2023an EEE-ek eragin zieten langileei dagokienez, Bizkaian izan ziren eraginpeko gehien: 3.252 pertsona, guztizkoaren % 44. Hurrengoak Gipuzkoa eta Araba izan ziren, biak 2.076 pertsonarekin, guztizkoaren % 28.

4.4. LANEKO EZBEHAR TASA

4.4.1 LANEKO EZBEHAR TASAREN BILAKAERA HISTORIKOA (EAE ESTATUA; 2013-2022)

Txosten honen aurreko edizioetan bezala, lehenik eta behin, laneko ezbehar-tasaren bilakaera historikoa aztertuko dugu, bai EAEn, bai Estatuan. Horretarako, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak argitaratutako informazioa erabiliko dugu.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Ministerioak 2023ko datuen aurrerapena argitaratu duen arren (hurrengo atalean jasota dago), indizeen analisi konparatibo homogeneoa behin-betiko datuekin egiten dela. Hortaz, kasu honetan, 2022a da aztertutako azken ekitaldia.

2022an behera egin zuten EAEko intzidentzia- eta maiztasun-indize globalak, aurreko ekitaldiarekiko

Intzidentzia-indizea: Istripu kopurua eta erreferentziazko aldiaren arriskuan egon den batez besteko pertsona kopurua lotzen ditu.

Maiztasun-indizea: Istripu kopurua eta benetan lan egindako ordu kopuru osoa lotzen ditu.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

4.35. TAULA

LANALDIAN GERTATU DIREN ETA BAJA ERAGIN DUTEN LANEKO EZBEHARREN INDIZEAK (EAE, ESTATUA)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Intzidentzia-indizea*										
EAE	32,4	32,4	34,1	34,8	36,0	33,9	32,5	27,3	32,0	31,3
Estatua	30,1	31,1	32,5	33,6	34,1	34,1	30,2	24,6	28,1	29,5
Maiztasun-indizea										
EAE	21,8	21,7	23,2	23,9	24,6	23,2	21,9	20,0	21,2	20,5
Estatua	19,3	20,0	21,0	21,7	22,0	22,0	18,8	16,9	18,0	18,2
Intzidentzia-indizea** (istripu hilgarriak)										
EAE	3,6	3,6	2,7	4,9	3,5	4,5	1,9	3,6	3,0	3,1
Estatua	3,3	3,4	3,7	3,8	3,7	3,7	3,0	3,5	3,3	3,7
Maiztasun-indizea (istripu hilgarriak)										
EAE	2,5	2,4	1,9	3,4	2,4	3,0	1,3	2,7	2,0	2,0
Estatua	2,1	2,2	2,4	2,5	2,4	2,4	1,9	2,4	2,1	2,3

* Istripuak, mila langileko. ** Istripuak, ehun mila langileko.

2016tik aurrera, istripu hilgarri gisa sailkatzen dira laneko istripua gertatu den egunetik urtebeteko epean gertatutako heriotza guztiak, hasierako larritasun maila edozein izanik ere. Hortaz, 2015 eta 2016 artean haustura bat dago istripu hilgarrien intzidentzia- eta maiztasun-indizeen datuei dagokienez.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da intzidentzia-indize eta maiztasun-indize globalak, tradizionalaki, Estatuan baino altuagoak izan ohi direla EAEn. Izan ere, kontuan izan behar da bi ekonomien osaera sektoriala desberdina dela, eta gure Erkidegoan pisu erlatibo handiagoa duela industria-sektoreak.

2020an asko jaitsi zen ezbehar-tasa, pandemiaren eraginez erori egin baitzen

jarduera ekonomikoa. 2021ean, jarduera ekonomikoa berreskuratu ahala, gora egin zuten intzidentzia-indize eta maiztasun-indize globalek.

2022ko datuek erakusten dutenez, ordea, indize globalek behera egin zuten EAEn, eta gora egiten jarraitu zuten Estatuan.

EAEko intzidentzia- eta maiztasun-tasak honela jaitsi ziren: 2021ean 32 istripu erregistratu ziren mila langileko, eta 21,2 istripu lan egindako milioi bat orduko; aldiz, 2022an, 31,3 eta 20,5era jaitsi ziren indizeak, hurrenez hurren. Aitzitik, Estatuan mila langileko 29,5 istripura eta lan egindako milioi bat orduko 18,2 istripura igo ziren indizeak 2022an (28,1 eta 18 aurreko ekitaldian).

4.4.2 LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N ETA ESTATUAN 2023AN: ALDERDI NAGUSIAK

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2023an -% 0,8 jaitsi zen baja eragin zuten laneko ezbeharren tasa EAEn

Osalanek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, emandako datuen arabera, 2023an 37.648 pertsonak izan zituzten laneko ezbeharrek EAEn (lanaldiko istripuen, "in itinere" istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioz laneko bajaran dauden pertsonak).

Baja horien % 85,3 lanaldiaren barruko istripuek eragin zituzten, % 10,7 "in itinere" istripuek eta gainerako % 4a gaixotasun profesionalek. Ehunekoen banaketa hori 2022koaren eta 2019koaren (pandemia agertu aurretik) antzekoa da.

4.36. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N (BAJA HARTU ZUTEN ERAGINPEKO PERTSONAK)

	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian								In itinere	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian + In itinere		Gaixotasun profesionala	Guztira
	Guztira	Larritasunaren arabera			Sektorearen arabera					Traumatikoak	Ez traumatikoak		
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak					
2010	34.106	33.846	225	35	667	12.454	5.769	15.216	4.002	--	--	1.042	39.150
2011	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.379	14.124	3.384	--	--	1.028	35.040
2012	25.604	25.412	160	32	616	9.320	3.143	12.525	3.324	28.858	70	860	29.788
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	27.881	79	777	28.737
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.045	50	895	28.990
2015	26.641	26.460	153	28	659	9.094	2.555	14.333	3.580	30.161	60	999	31.220
2016	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	31.534	68	1.145	32.747
2017	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	33.500	64	1.445	35.009
2018	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	33.901	71	1.512	35.484
2019	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	37.044	62	1.520	38.626
2020	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	30.128	74	1.242	31.444
2021	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	34.780	71	1.347	36.198
2022	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	36.509	64	1.360	37.933
2023	32.099	31.925	148	26	497	10.523	4.076	17.003	4.029	36.057	71	1.520	37.648

Iturria: Osalan (2009tik 2011ra arteko ekitaldiak: Laneko ezbehar-tasaren laburpen estatistikoa. 2012tik aurrera: abenduko hileko txostenak, datu metatuak).

2020an urte arteko jaitsiera handia izan zuen baja eragin zuten laneko ezbeharren tasak, pandemiaren harira (-% 18,6). Hurrengo bi ekitaldietan, ordea, jarduera progresiboki berreskuratu ahala, asko hazi zen aipatutako tasa (2021ean +% 15,1 eta 2022an +% 4,8). Baja eragin zuten ezbeharrek urte arteko -% 0,8ko jaitsiera izan zuten 2023an, eta 37.648 pertsonari eragin zieten guztira, 2019an (38.626 pertsona) baino gutxiagori.

Urte arteko terminoetan, behera egin zuten lanaldian zehar gertatutako istripuen eraginpeko pertsonak (-% 1,7). Aldiz, gora egin zuten "in itinere" istripuen (+% 2,7) eta gaixotasun profesionalen (+% 11,8) eraginpekoak.

Pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta, baja eragin zuten lanaldiko istripuen kopurua -% 2,8 jaitsi zen eta "in itinere" istripuen kopurua -% 1,7. Gaixotasun profesionalen ondorioz bajaran zeuden pertsonen kopurua, berriz, konstante mantendu zen.

Laneko istripua: langile batek besterentzako lanean ari dela edo besterentzako lanaren ondorioz jasandako gorputzeko lesio oro, langileak lantokira bidean edo lantokitik bueltan jasandakoak barne.

Gaixotasun profesionala: besteren kontura egindako lanaren ondorioz harrapatutako gaixotasuna.

Iturria: Gizarte Segurantzako Lege Orokorra (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa).

Sektorearen arabera, 2023an EAEn zerbitzuetan gertatu ziren baja eragin zuten lanaldiko istripu gehienak: 17.003 istripu, lanaldiko istripu guztien % 53.

4.37. TAULA**EAE-N GERTATUTAKO LANEKO ISTRIPU TRAUMATIKOAK ETA EZ-TRAUMATIKOAK (LANALDIAN ETA "IN ITINERE"), LARRITASUNAREN ARABERA**

	ISTRIPU TRAUMATIKOAK				ISTRIPU EZ-TRAUMATIKOAK			
	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Guztira	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Guztira
2019	36.838	189	17	37.044	32	17	13	62
2020	29.937	169	22	30.128	42	27	5	74
2021	34.564	197	19	34.780	42	13	16	71
2022	36.251	240	18	36.509	40	12	12	64
2023	35.882	158	17	36.057	42	16	13	71

Iturria: Osalan.

Larritasunaren arabera, 2022arekin alderatuta, behera egin zuten laneko istripu (lanaldian eta "in itinere") arinek (-% 1) eta larriek (-% 31), eta aldaketarik gabe mantendu zen istripu hilgarrien kopurua. 2023an baja eragin zuten lanaldiko istripuen eta "in itinere" gertatutako istripuen % 99,4 arinak izan ziren, % 0,5 larriak eta gainerako % 0,1a hilgarriak.

2023an 30 pertsona hil ziren EAEn laneko istripu baten ondorioz: 2022ko eta 2019ko kopuru bera

Erregistratutako istripu hilgarri gehienak (lanaldian edo "in itinere" gertatuak) traumatikoak izan ziren. Hain zuzen ere, 2023an 17 laneko istripu hilgarri traumatikoak izan ziren (2022an 18), eta 13 istripu hilgarri ez traumatikoak (2022an 12).

Lanaldian gertatutako istripu hilgarri dagokienez, 2023an 26 zenbatu ziren (2022an baino bat gehiago eta 2019ko kopuru bera). Horiei, "in itinere" gertatutako 4 istripu hilgarri gehitu behar zaizkie (2022an baino bat gutxiago eta 2019ko kopuru bera). Hala, 2023an 30 pertsona hil ziren EAEn laneko istripu baten ondorioz: 2022ko eta 2019ko kopuru bera.

Estatu-mailan, laneko ezbehar-tasa -% 0,9 murriztu zen 2023an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta

Estatu osoa kontuan hartuta, baja eragin zuten laneko ezbeharren tasa izugarri jaitsi zen 2020an, pandemiaren ondoriozko geldialdi ekonomikoa zela eta, eta 2021ean eta 2022an gora egin zuen berriz. 2023an, ordea, -% 0,9 jaitsi zen, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Istripu motaren arabera, bilakaera modu batekoa edo bestekoa izan zen. Baja eragin zuten laneko istripuak -% 2,3 murriztu ziren. Aldiz, "in itinere" istripuen eta gaixotasunen profesionalen eraginpeko pertsona kopurua % 7,3 eta % 13,5 hazi ziren, hurrenez hurren.

Estatu osoan, 2023an zehar, lanaldiko 581 istripu hilgarri zenbatu zituzten. Zifra hori nabarmen jaitsi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2022an 679 istripu hilgarri gertatu ziren lanaldian; azken urteetako erregistrorik altuena izan zen), baina pandemiaren aurrekoa baino dezente handiagoa izan zen (2019an 542 istripu hilgarri gertatu ziren lanaldian).

Istripu traumatikoak: kanpoko agente batek eraginak dira eta, normalean, bat-bateko ekintza bortitz baten ondoriozkoak izaten dira (kolpeak, erredurak, zauriak, hausturak...).

Istripu ez-traumatikoak: gaixotasun profesional gisa sailkatzen ez diren patologia endogenoak, hala nola bihotzkeoak edo garuneko isuriak, non lan-baldintzek eragina izan dezaketen.


4.38. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA ESTATUAN* (BAJA HARTU ZUTEN ERAGINPEKO PERTSONAK)

	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian								In itinere	Gaixotasun profesionala	Guztira
	Guztira	Larritasunaren arabera			Sektorearen arabera						
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2010	569.523	564.019	4.935	569	27.487	130.321	100.542	311.173	76.441	8.765	654.729
2011	512.584	507.637	4.396	551	28.059	115.440	78.966	290.119	68.566	8.805	589.955
2012	408.537	404.347	3.738	452	25.358	88.642	51.327	243.210	62.686	7.466	478.689
2013	404.284	400.447	3.390	447	27.695	83.623	41.994	250.972	63.746	7.599	475.629
2014	424.625	420.829	3.329	467	30.250	87.188	43.043	264.144	66.474	8.112	499.211
2015	458.023	454.029	3.479	515	32.577	94.923	48.813	281.710	71.225	9.073	538.321
2016	489.065	484.912	3.657	496	33.144	101.588	53.579	300.754	77.170	9.886	576.121
2017	515.082	510.682	3.904	496	35.512	107.141	61.375	311.054	81.524	10.140	606.746
2018	532.977	528.412	3.991	574	35.400	113.162	69.420	314.995	84.511	11.382	628.870
2019	549.569	544.820	4.207	542	36.329	118.510	80.102	314.628	85.658	12.877	648.104
2020	428.474	424.374	3.505	595	30.838	95.936	67.387	234.313	56.891	8.669	494.034
2021	497.735	493.458	3.702	575	30.885	97.263	78.264	291.323	74.713	9.342	581.790
2022	552.173	547.693	3.801	679	29.079	101.919	81.525	339.650	79.551	9.626	641.350
2023	539.584	535.244	3.759	581	28.779	105.761	83.966	321.078	85.327	10.929	635.840

(* Aldakuntzak zuhurtziaz interpretatu behar dira, 2023ko datuak behin-behinekoak baitira. Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. (2024ko otsaileko datuak).

Lanaldian ezbeharra izan zuten eta baja hartu zuten pertsonen ratioak (okupatutako mila pertsonako) urte arteko jaitziera izan zuen, bai EAEn, bai Estatuan. Bi kasuetan, 2023an erregistratutako maila baxuagoa izan zen 2019koa baino.

4.28. GRAFIKOA**LANEKO EZBEHAR TASAREN INTZIDENTZIAREN BILAKAERA (EAE ETA ESTATUA)**

(Lanaldian ezbeharra izan duten pertsonak/okupatu kopurua) x 1.000

Iturria: Geuk egina, Osalaneak, Eustatek, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak eta EINEk emandako datuetan oinarrituta.

* Behin-behineko datua. 2024ko urtarrilean argitaratutako datuak.

EAEn, mila pertsona okupatuko 33,9 pertsonak izan zuten istripua 2022an, eta 33 pertsonak 2023an, hau da, 2019an (34,7) baino 1,7 puntu gutxiagok. Estatuan berriz, mila pertsona okupatuko 26,9 istripu gertatu ziren 2022an, eta 25,5 2023an; kasu honetan ere, 2019an baino gutxiago izan ziren (27,8).

4.4.3 LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA, SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

Sektoreka, aipatu beharrekoa da baja eragin zuten lanaldiko istripuek urte arteko jaitziera izan zutela EAEn, bai lehen sektorean (-% 13,3), bai zerbitzuetan (-% 4,1), bai eraikuntzan (-% 0,4). Aldiz, ugaritu egin ziren industria-sektorean (% 2,6).

Aurreko urteetan bezala, hirugarren sektorean gertatu ziren baja eragin zuten lanaldiko istripuen erdiak baino gehiago (guztizkoaren % 53). Industria-sektorea izan zen hurrengo (% 32,8), eraikuntza gero (% 12,7) eta, azkenik, lehen sektorea (% 1,5).

2022arekin alderatuta, baja eragin zuten lanaldiko ezbeharrek ugaritu egin ziren industrian (+% 2,6), eta behera egin zuten gainerako sektoreetan

2023an, baja eragin zuten lanaldiko ezbeharren ratioa, okupatutako mila pertsonako, hazi egin zen industrian eta eraikuntzan aurreko ekitaldiarekiko. Aldiz, behera egin zuen lehen sektorean eta zerbitzuetan.

4.39. TAULA ENPLEGUA ETA EZBEHAR TASA EAE-N

		GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Lanaldiko istripuak, bajarekin						
2021	EAE	31.232	578	9.867	3.749	17.038
	Araba	5.791	116	1.947	515	3.213
	Bizkaia	15.640	302	4.306	2.085	8.947
	Gipuzkoa	9.801	160	3.614	1.149	4.878
2022	EAE	32.651	573	10.253	4.093	17.732
	Araba	5.680	90	2.039	572	2.979
	Bizkaia	16.891	322	4.540	2.286	9.743
	Gipuzkoa	10.080	161	3.674	1.235	5.010
2023	EAE	32.099	497	10.523	4.076	17.003
	Araba	4.763	63	1.707	431	2.562
	Bizkaia	17.137	286	4.925	2.487	9.439
	Gipuzkoa	10.199	148	3.891	1.158	5.002
Langile okupatuak (milaka) (1)*						
2021	EAE	940,4	7,4	200,3	53,0	679,8
	Araba	144,2	2,1	37,8	6,9	97,5
	Bizkaia	481,1	3,4	84,0	29,3	364,3
	Gipuzkoa	315,1	1,9	78,5	16,8	218,0
2022	EAE	962,2	8,7	195,3	57,7	700,6
	Araba	144,2	2,1	37,5	8,9	95,6
	Bizkaia	495,7	3,8	79,8	31,0	381,1
	Gipuzkoa	322,3	2,8	78,0	17,7	223,8
2023**	EAE	971,3	8,2	195,1	55,8	712,1
	Araba	146,8	1,5	37,0	8,0	100,3
	Bizkaia	500,9	3,9	79,4	31,8	385,8
	Gipuzkoa	323,6	2,8	78,7	16,0	226,0
(Istripuak/Okupatuak) x 1.000						
2021	EAE	33,2	78,1	49,3	70,7	25,1
	Araba	40,2	55,2	51,5	74,6	33,0
	Bizkaia	32,5	88,8	51,3	71,2	24,6
	Gipuzkoa	31,1	84,2	46,0	68,4	22,4
2022	EAE	33,9	65,9	52,5	70,9	25,3
	Araba	39,4	42,9	54,4	64,3	31,2
	Bizkaia	34,1	84,7	56,9	73,7	25,6
	Gipuzkoa	31,3	57,5	47,1	69,8	22,4
2023**	EAE	33,0	60,6	53,9	73,0	23,9
	Araba	32,4	42,0	46,1	53,9	25,5
	Bizkaia	34,2	73,3	62,0	78,2	24,5
	Gipuzkoa	31,5	52,9	49,4	72,4	22,1

(1) BJA (Eustat).

* 2024ko urtarrilean argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: Geuk egina, Osalanen eta Eustaten datuetan oinarrituta.

Urte arteko hazkunderik handiena eraikuntzak izan zuen (+2,1 puntu), eta ondoren industria-sektoreak (+1,4 puntu). Beherakada handiena, berriz, lehen sektoreak izan zuen (-5,3 puntu), eta gero zerbitzuek (-1,4 puntu).

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 2023an eraikuntzak izan zuela intzidentzia-indizerik altuena (baja eragin zuten 73 lanaldiko istripu, okupatutako mila pertsonako). 2021ean izan ezik, tradizioz, sektore horretan izan ohi da altuena lanaldiko istripuen intzidentzia. Bigarren postuan lehen sektorea kokatu zen 2023an, 60,6 istripurekin.

4.40. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (BAJA HARTU ZUTEN ERAGINPEKO PERTSONAK)

		Baja eragin zuten istripuak, lanaldian								In itinere	Gaixotasun profesionala	Guztira	
		Guztira	Larritasunaren arabera				Sektorearen arabera						
			Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak				
2012	EAE	25.604	25.412	160	32	616	9.320	3.143	12.525	3.324	860	29.788	
	Araba	4.705	4.659	40	6	84	1.928	500	2.193	602	99	5.406	
	Bizkaia	12.968	12.886	68	14	346	4.221	1.741	6.660	1.761	380	15.109	
	Gipuzkoa	7.931	7.867	52	12	186	3.171	902	3.672	961	381	9.273	
2013	EAE	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	777	28.737	
	Araba	4.514	4.487	23	4	88	1.859	358	2.209	601	89	5.204	
	Bizkaia	12.344	12.263	66	15	306	3.775	1.407	6.856	1.801	307	14.452	
	Gipuzkoa	7.753	7.695	49	9	180	2.977	797	3.799	947	381	9.081	
2014	EAE	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	895	28.990	
	Araba	4.764	4.744	16	4	121	1.884	375	2.384	653	98	5.515	
	Bizkaia	12.262	12.189	59	14	350	3.884	1.380	6.648	1.639	416	14.317	
	Gipuzkoa	7.790	7.718	62	10	168	3.024	772	3.826	987	381	9.158	
2015	EAE	26.641	26.460	153	28	659	9.094	2.555	14.333	3.580	999	31.220	
	Araba	4.963	4.927	33	3	86	1.992	322	2.563	759	142	5.864	
	Bizkaia	13.414	13.333	67	14	373	4.007	1.479	7.555	1.826	453	15.693	
	Gipuzkoa	8.264	8.200	53	11	200	3.095	754	4.215	995	404	9.663	
2016	EAE	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	1.145	32.747	
	Araba	5.251	5.217	30	4	122	2.102	371	2.656	613	147	6.011	
	Bizkaia	14.437	14.349	65	23	365	4.421	1.595	8.056	1.786	562	16.785	
	Gipuzkoa	8.402	8.352	43	7	186	3.338	674	4.204	1.113	436	9.951	
2017	EAE	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	1.445	35.009	
	Araba	5.299	5.257	41	1	113	2.184	392	2.610	723	196	6.218	
	Bizkaia	15.443	15.366	62	15	347	4.664	1.721	8.711	2.073	713	18.229	
	Gipuzkoa	8.887	8.820	58	9	204	3.433	785	4.465	1.139	536	10.562	
2018	EAE	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	1.511	35.483	
	Araba	5.490	5.435	50	5	104	2.207	444	2.735	715	193	6.398	
	Bizkaia	15.485	15.394	70	21	353	4.726	1.740	8.666	2.009	766	18.260	
	Gipuzkoa	9.140	9.083	49	8	184	3.591	814	4.551	1.133	552	10.825	
2019	EAE	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	1.520	38.626	
	Araba	6.145	6.112	27	6	115	2.454	496	3.080	802	192	7.139	
	Bizkaia	16.829	16.738	79	12	387	5.270	2.188	8.984	2.039	759	19.627	
	Gipuzkoa	10.033	9.969	56	8	177	4.070	1.082	4.704	1.258	569	11.860	
2020	EAE	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	1.242	31.444	
	Araba	4.730	4.693	33	4	98	1.846	465	2.321	623	160	5.513	
	Bizkaia	13.638	13.531	93	14	323	3.948	1.902	7.465	1.611	660	15.909	
	Gipuzkoa	8.590	8.544	43	3	141	3.339	1.059	4.051	1.010	422	10.022	
2021	EAE	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	1.347	36.198	
	Araba	5.791	5.745	37	9	116	1.947	515	3.213	771	198	6.760	
	Bizkaia	15.640	15.543	86	11	302	4.306	2.085	8.947	1.693	619	17.952	
	Gipuzkoa	9.801	9.729	61	11	160	3.614	1.149	4.878	1.155	530	11.486	
2022	EAE	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	1.360	37.933	
	Araba	5.680	5.635	41	4	90	2.039	572	2.979	810	162	6.652	
	Bizkaia	16.891	16.778	106	7	322	4.540	2.286	9.743	1.901	727	19.519	
	Gipuzkoa	10.080	9.997	69	14	161	3.674	1.235	5.010	1.211	471	11.762	
2023	EAE	32.099	31.925	148	26	497	10.523	4.076	17.003	4.029	1.520	37.648	
	Araba	4.763	4.741	17	5	63	1.707	431	2.562	747	182	5.692	
	Bizkaia	17.137	17.048	78	11	286	4.925	2.487	9.439	1.975	844	19.956	
	Gipuzkoa	10.199	10.136	53	10	148	3.891	1.158	5.002	1.307	494	12.000	

Iturria: Osalan. Osalanez argitaratutako hileko txostenetatik (urte bakoitzeko abendukoak) hartutako datuak.

Industria, 53,9 istripuko ratioarekin, tarteko posizio batean kokatu zen. Aldiz, hirugarren sektoreak izan zuen intzidentziarik txikiena, ohiko moduan, 23,9 istripurekin.

Lurraldearen arabera, 2023an, aurreko ekitaldian bezala, EAEn laneko baja eragin zuten istripuen erdiak baino gehiago Bizkaian gertatu ziren (guztizkoaren % 53,4), % 31,8 Gipuzkoan eta gainerako % 14,8a Araban.

Hirugarren sektorean 23,9 istripu gertatu ziren okupatutako 1.000 pertsonako; ohiko moduan, ezbeharren intzidentzia baxuena izan zuen sektorea izan zen

2022arekin alderatuta, baja eragin zuten lanaldiko istripuak ugartu egin ziren 2023an Bizkaian eta Gipuzkoan (+% 1,5 eta +% 1,2, hurrenez hurren), eta behera egin zuten Araban (-% 16,1).

Hala, baja eragin zuten lanaldiko ezbeharren ratorik handiena, 1.000 pertsona okupatuko, Bizkaiak izan zuen (34,2); Araba izan hurrengoa (32,4) eta Gipuzkoa (31,5) azkena.

4.4.4 LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA, SEXUAREN ARABERA

2023an, baja eragin zuten lanaldiko ezbeharrek emakumezko 1.000 langiletik 17,6ri eragin zieten, eta gizonezko 1.000 langiletik 47,2ri

Baja eragin zuten lanaldiko ezbeharrek emakumezko 1.000 langiletik 17,6ri eragin zieten 2023an, gizonen kasuan baino askoz ere gutxiagori (1.000tik 47,2).


2022an, lanaldiko ezbeharrek emakumezko 1.000 langiletik 19,1i eragin zieten, eta gizonezko 1.000 langiletik 47,5i.

Horrekin lotuta, hainbat faktore nabarmentzen dira. Adibidez, emakumeek presentzia handiagoa dute zerbitzuen sektorean eta, aurrez ikusi dugun moduan, sektore horrek du ezbehar-tasarik txikiena. Bestalde, lanbide batzuk maskulinizatuta daude; esaterako, eraikuntza. Nolanahi ere, ezbehar-indizeak datu erlatiboak eskaintzen ditu eta, haren arabera, sektore guztietan, intzidentzia-indizea altuagoa da gizonen artean, bai 2022an, bai aurreko ekitaldian.

2023an laneko istripuetan hil ziren 30 pertsonetatik 26 gizonak izan ziren

4.29. GRAFIKOA

EAE-N 2023AN BAJA ERAGIN ZUTEN LANALDIKO EZBEHARREN INTZIDENTZIA*, SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERA



* Eustatek EAeko biztanleria okupatuaren gainean argitaratzen dituen datuetan oinarrituta kalkulatu dira intzidentzia-indizeak.

Iturria: Geuk egina, Osalaren eta Eustaten datuetan oinarrituta.

2023an EAEn hildako 30 pertsonetatik (26 lanaldian, 4 "in itinere"), 26 gizonak izan ziren (22 lanaldian hil ziren, eta 4 "in itinere") eta 4 emakumeak (denak lanaldiak hil ziren).


Istripu larri eta arinen kasuan (lanaldian zein "in itinere"), 2023an gizonak izan zituzten gehienak (guztizkoaren % 83,3 eta % 71,1, hurrenez hurren).

2023an erregistratutako 4.029 "in itinere" istripuen artetik, emakumeei gertatu zitzaizkien % 54,3, eta gizonei gainerako % 45,7a. Aitzitik, lanaldian gertatutako istripuen kasuan (32.099), gizonei gertatu zitzaizkien % 74,4 eta emakumeei % 25,6.

Azkenik, 2023an emakumeek jasandako 10.400 istripuen artetik, % 79 lanaldian gertatu ziren eta % 21 "in itinere". Gizonek jasan zituzten 25.728 istripuen artetik, berriz, % 92,8 gertatu ziren lanaldian eta gainerako % 7,2a "in itinere".

4.30. GRAFIKOA

BAJA ERAGIN ZUTEN ISTRIPUEN BANAKETA, SEXUAREN ETA GERTATU ZIREN UNEAREN ARABERA. EAE 2023



Iturria: Geuk egina, Osalaren datuetan oinarrituta.

4.5. HAUTESKUNDE SINDIKALAK

1994eko lan-erreformarekin bat etorriz, hauteskunde sindikalen sistema prozesu jarraitua da, eta ez dago hauteskunde-aldi jakin baten mende.

Dena den, hauteskunde sindikalen prozesuak lau urtetik behin pilatzen dira oraindik ere. Izan ere, hori da langileen ordezkariak, batzordeetako kideak eta langileen batzarretako kideak (funtzionarioen kasuan) izateko aukeratutako pertsonen hauteskunde-agintaldiaren iraunaldi arrunta. Hala, azken prozesu pilatua 2022aren amaieraren eta 2023aren hasieraren artean gertatu zen.

Garrantzitsua da langileen ordezkariak aukeratzea. Izan ere, hauteskunde sindikalen emaitzak negoziaketa eremuen arabera banakatuta eta dagokion araudiaren arabera, langileen ordezkariak negoziazio-mahaietan zer banaketa izango duten erabakitzen da, bai sektoreko hitzarmenetako negoziazio kolektiboaren kasuan, bai funtzionarioen lan-baldintzen negoziazioaren kasuan.

Halaber, hauteskunde horiek egiten dituen enpresa bakoitzean, ordezkariak eta, hala dagokionean, enpresa-batzordeak aukeratzen dira. Negoziazio kolektiboa garatzea eta laneko gatazkak mahaigaineratzen eta konpontzen parte hartzea dira horien funtzioetako batzuk.

2023ko abenduaren 31ra arte egindako hauteskundeetako emaitzek adierazten dutenez, 18.461 pertsona aukeratu dituzte; horietatik 17.261 langileek aukeratutako ordezkariak dira eta, 1.200 Euskadiko administrazio publikoetako funtzionarioen artean aukeratutako pertsonak.

2022a amaitzean, ordezkari gisa aukeratutako pertsonak 17.944 ziren. Horien artetik, 16.708 langileak ziren, eta 1.236 Euskadiko administrazio publikoetako funtzionarioen artetik aukeratuak. Hortaz, hazkundera eremu pribatuan gertatu zen, non ordezkari kopurua 553 pertsona handitu zen. Izan ere, funtzionarioen artean aukeratutako ordezkari kopurua 36 pertsona murriztu zen.


ELAk eskuratu zituen ordezkarien % 41,03, eta LAB (% 20,17), CCOO (% 17,98) eta UGT (% 10,53) izan ziren hurrengoak

2023ko abenduaren 31ko hauteskundeek emaitzek erakusten dutenez, ELAri dagozkio aukeratutako ordezkarien % 41,03, eta LAB da hurrengoa, ordezkarien % 20,17rekin. Hirugarren lekuan CCOO dago, % 17,98rekin, eta laugarren UGT, % 10,53rekin. Datu horiek azken urteetako datuekin alderatuz gero, aldakuntzak oso txikiak direla ikus dezakegu, ELAren eta LABen ordezkariak apur bat handitu bazen ere aurreko urtearekiko.

2022ko abenduaren 31eko hauteskundeek erakusten dutenez ere, ELA zegoen lehen postuan, aukeratutako ordezkarien % 40,79rekin. LAB (% 19,59) eta CCOO (% 18,54) izan ziren hurrengoak, eta UGT (% 10,71) laugarrena. Hori dela eta, sindikatuek gure enpresetan duten ordezkariak egonkorra dela ikus daiteke.

Lurralde historikoaren araberrako analisiak erakusten duenez, erkidegokoaren antzekoa da egoera, baina berezitasun batzuekin.

4.31. GRAFIKOA HAUTESKUNDE SINDIKALEN PROZESUEN EMAITZA METATUAK 2023/12/31N (EAE). BANAKETA EHUNEKOTAN.



SG: Sindikatu gabeak
Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

ELAk eskuratu zituen ordezkari gehien hiru lurraldeetan. Araban eta Bizkaian CCOO izan zen hurrengoa, eta Gipuzkoan LAB.

ELA kokatu zen lehen postuan, bai langileen artean, bai funtzionarioen artean. Dena den, ordena orokorrean desberdintasun batzuk daude aztertutako eremuaren eta lurraldearen arabera.

Langileen artean, Araban laugarren ordezkaria izan zen LAB, bigarrena CCOO eta hirugarrena UGT. Bizkaian ere ezberdina izan zen ordena. Izan ere, bigarren postuan kokatu zen CCOO, hirugarrenean LAB eta azkenik UGT. Gipuzkoan dagoeneko aipatu dugun ordena orokorra errepikatu zen.

Funtzionarioen artean, EAE osoko ordena berdina gertatu zen. Dena den, "beste sindikatu batzuk" multzoak ordezkari handia eskuratu zuen (% 19,25), aurreko urteetan bezala. Hala, handitu egin zen haren ehunekoa 2022arekiko, orduan % 15,03ko ordezkari baitzuen. "Beste sindikatu batzuk" multzoan honakoak nabarmentzen dira: STEE/EILAS, irakaskuntzakoak; CSI-CSIF eta INTERINOK, funtzionarioenak; eta ERNE eta ESAN, euskal poliziarenak.

4.41. TAULA
HAUTESKUNDE SINDIKALEN PROZESUEN EMAITZA METATUAK 2023/12/31N:
EAE ETA LURRALDE HISTORIKOAK

		GUZTIRA		FUNTZIONARIOAK		LANGILEAK	
		ORDEZKARIAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	ORDEZKARIAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	ORDEZKARIAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO %
EAE	GUZTIRA	18.461	% 100,00	1.200	% 100,00	17.261	% 100,00
	ELA	7.575	% 41,03	446	% 37,17	7.129	% 41,30
	LAB	3.723	% 20,17	283	% 23,58	3.440	% 19,93
	CCOO	3.319	% 17,98	161	% 13,42	3.158	% 18,30
	UGT	1.944	% 10,53	52	% 4,33	1.892	% 10,96
	SG	409	% 2,22	9	% 0,75	400	% 2,32
	LSB-USO	321	% 1,74	7	% 0,58	314	% 1,82
	ESK	266	% 1,44	11	% 0,92	255	% 1,48
BESTE BATZUK	904	% 4,89	231	% 19,25	673	% 3,89	
ARABA	GUZTIRA	3.524	% 100,00	286	% 100,00	3.238	% 100,00
	ELA	1.302	% 36,95	79	% 27,62	1.223	% 37,77
	LAB	546	% 15,49	68	% 23,78	478	% 14,76
	CCOO	708	% 20,09	50	% 17,48	658	% 20,32
	UGT	516	% 14,64	21	% 7,34	495	% 15,29
	SG	66	% 1,87	1	% 0,35	65	% 2,01
	LSB-USO	112	% 3,18	4	% 1,40	108	% 3,34
	ESK	71	% 2,01	9	% 3,15	62	% 1,91
BESTE BATZUK	203	% 5,77	54	% 18,88	149	% 4,60	
BIZKAIA	GUZTIRA	9.098	% 100,00	549	% 100,00	8.549	% 100,00
	ELA	3.663	% 40,26	230	% 41,89	3.433	% 40,16
	LAB	1.456	% 16,00	94	% 17,12	1.362	% 15,93
	CCOO	1.859	% 20,43	76	% 13,84	1.783	% 20,86
	UGT	1.125	% 12,37	29	% 5,28	1.096	% 12,82
	SG	221	% 2,43	7	% 1,28	214	% 2,50
	LSB-USO	178	% 1,96	3	% 0,55	175	% 2,05
	ESK	134	% 1,47	0	% 0,00	134	% 1,57
BESTE BATZUK	462	% 5,08	110	% 20,04	352	% 4,11	
GIPUZKOA	GUZTIRA	5.839	% 100,00	365	% 100,00	5.474	% 100,00
	ELA	2.610	% 44,70	137	% 37,53	2.473	% 45,18
	LAB	1.721	% 29,47	121	% 33,15	1.600	% 29,23
	CCOO	752	% 12,88	35	% 9,59	717	% 13,10
	UGT	303	% 5,19	2	% 0,55	301	% 5,50
	SG	122	% 2,09	1	% 0,27	121	% 2,21
	LSB-USO	31	% 0,53	0	% 0,00	31	% 0,57
	ESK	61	% 1,04	2	% 0,55	59	% 1,08
BESTE BATZUK	239	% 4,10	67	% 18,36	172	% 3,13	

SG: Sindikatu gabeak
 Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Azkenik, kontuan izan behar da, legalki konfiguratuta dagoen moduan, sistemak kanpoan uzten dituela unitate txikiak (sei langiletik beherako enpresak); hortaz, ehun mila pertsona baino gehiago (soldatapeko langileen guztizkoaren % 14 inguru) hauteskunde-prozesuetatik kanpo geratzen dira.

ONDORIOAK

- EAEko negoziazio kolektiboak 610.000²⁴ pertsonari baino zerbait gutxiagori eragiten die; % 55,8 gizonak dira eta % 44,2 emakumeak.
- Sektore pribatuan besteren kontura lan egiten duten 55.000 pertsona inguruk, hitzarmen baten bidez erregulatu gabeko jarduera batean lan egiten dute EAEn. Gehienak emakumeak dira, eta etxeke langileen kolektiboa nabarmentzen da, duen pisuagatik.
- Langileen % 74,6 sektoreko negoziazioaren mende daude haien lan-baldintzak zehazteko; gainerako % 25,4ak, berriz, enpresa barruan negoziatzen ditu hitzarmenak.
- 2023aren amaieran langileen % 63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak eta % 5,6k bakarri zituzten hitzarmenak iraungita. 2012ko lan-erreforma onartu zenetik eskuratutako daturik onenak dira.
- Urtearen hasieran, hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehuneko aurreko urtekoaren antzekoa zen, baina urtearen amaieran hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoak % 60 gainditzea ahalbidetu zuten 2023an zehar lortutako akordioek.
- 2023an Gipuzkoako Sukaldaritza arloko Enpresen Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten, iraungita baitzeuden. Horri esker, hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoak % 5,6ra jaitsi zen ekitaldiaren amaieran (34.424 pertsona).
- Dena den, sektore-hitzarmenen eremukoak dira hitzarmenak iraungita dituzten ia pertsona guztiak, horien kopurua asko murriztu bada ere.
- 2023an hitzarmena indarrean zuten soldatapeko langileen % 91,5ek hiru urteko edo gehiagoko indarraldiko hitzarmenak negoziatu zituzten.
- EAEn negoziatutako eta 2023an erregistratutako hitzarmenen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena hazi egin zen eta 313 egunera iritsi zen.
- 2023an hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera (% 4,22) altuagoa izan zen EAEko abenduko urte arteko inflazioa baino (% 3,1) eta batez besteko inflazioa baino (% 3,6).
- 2023an erregistratutako hitzarmenek 2023rako aurreikusitako batez besteko igoera (% 4,66) handiagoa da aurreko urteetan erregistratutako hitzarmenek urte bererako aurreikusitako igoera (% 3,64) baino.
- CCOO eta UGTk jarraitzen dute hitzarmen gehien sinatzen dituzten sindikatuak izaten, negoziazio-mahaietan duten presentzia kontuan hartuta.

²⁴2021eko Negoziazio Kolektiboaren Egituraren azterketan oinarritutako datuak, 2023/12/31koak.

- 2023an aurkeztutako inaplikazio-kopuruak (12) eta horien eraginpeko pertsonen kopuruak (178 pertsona) oso txikiak izaten jarraitzen dute, hitzarmenak indarrean (indarraldi betean eta luzatuta) dituzten langileen kopurua kontuan hartuta: 575.000 pertsona baino gehiago.
- 2023an, aurreko urtearekin alderatuta, greba-kopurua -% 5 murriztu zen, horien eraginpeko langileen kopurua -% 45,5 jaitsi zen eta lan egin gabeko lanaldien kopurua -% 55,8 gutxitu zen.
- 2023an gora egin zuen Precori aurkeztutako eskari kopuruak, eta 2014-2022 aldiko batez besteko kopuruaren gainetik kokatu zen.
- 2023an zehar, enplegu-erregulazioko 276 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 7.404 pertsonari eragin zieten; zifra horiek -% 51,2 eta -% 62,6 jaitsi ziren aurreko urtetik, hurrenez hurren.
- Pertsonen % 88,8ri aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek eragin zieten, eta gainerako % 11,2ri lan-harremana iraungitzeko espedienteek.
- Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2023an -% 0,8 jaitsi zen baja eragin zuten laneko ezbeharren tasa EAEn. Ezbeharrak ugartu egin ziren industrian (+% 2,6), eta behera egin zuten gainerako sektoreetan.
- 2023an 30 pertsona hil ziren laneko istripuetan, aurreko urteko kopuru bera, eta horietatik 26 gizonak izan ziren.

ERANSKINA.

EAE-KO SEKTOREKO HITZARMENEN ZERRENDA ETA HORIEN EGOERA 2023KO ABENDUAREN 31N²⁵

ARABA

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Ardoaren industria eta salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Industria siderometalurgikoa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Eraikinen eta lokalen garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Esku-hartze soziala	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Mendekotasuna duten pertsonen arretarako zentroak eta zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Oinetakoen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eraikuntza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Zementuaren deribatuak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Hirugarrenentzako kirol-jarduerak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Egurraren industrien hitzarmena	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ehunen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Aisialdi hezigarria eta animazio soziokulturala	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Altzarien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ostalaritza	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Etxeko laguntza-zerbitzua	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Merkantzien errepide bidezko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Ogiaren industria eta salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako sasoikako lana	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Luzatuta
Bidaiarien errepide bidezko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Luzatuta
Ile-apaindegiak eta apaindegiak	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Luzatuta
Elikagaien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Iraungita
Gozen, pastelen, bonboien eta karameluen industria	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Iraungita
Metalaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Emanaldi zinematografikoak	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Iraungita

²⁵ Iraungitako sektore-hitzarmenak ere sartu ditugu zerrenda honetan, baldin eta horien eraginpeko langileak goragoko hitzarmen batek babesten baditu. 2023ko abenduaren 31ko datuak. Baliteke aurreraeragineko egoeran edo iraungita zeuden hitzarmen batzuk 2024aren hasieran berritu izana.

BIZKAIA

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Etkez etxeko laguntza (sektore publikoa)	Hitzarmen kolektiboa	2027/12/31	Indarrean
Bilboko portuko zamaketariak	Hitzarmen kolektiboa	2027/12/31	Indarrean
Merkataritza orokorra	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Ehunen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Bidaiarien errepide bidezko garraioak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Hirugarren adinekoen zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Industria siderometalurgikoa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Merkantzien errepide bidezko garraioak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Eraikinen eta lokalen garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Autoeskolak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Eraikuntza	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Farmazia-bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Bilboko portuko zamaketarien enpresak (zamaketariak ez diren langileak)	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Arrain-kontserbak eta arrain gazituak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Butano-banatzailak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Etkez-etxeko banaketa elikagaien salerosketa-sektorean	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Fruta, barazki eta bananen biltegiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Elikagaien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Gasolindegia	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Kirol arloko lokalak eta zelaiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Esku-hartze soziala	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ostalaritza	Hitzarmen kolektiboa	2021/06/30	Luzatuta
Likoreen fabrikazioa, botilaratzaileak eta ardo-biltegiak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Metalaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Altzarien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Okindegia	Hitzarmen kolektiboa	2014/12/31	Luzatuta
Freskoko arraste-arrantza	Hitzarmen kolektiboa	2013/12/31	Luzatuta
Arte grafikoak, paper- eta kartoi-maneatzaileak eta argitaletxeak	Hitzarmen kolektiboa	2011/12/31	Luzatuta
Gozogintza eta pastelgintza artisaua	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Iraungita
Harria eta marmola	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Iraungita
Bulegoak eta despatxuak	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Iraungita
Mercabilbaoko arrainen handizkariak	Hitzarmen kolektiboa	2011/12/31	Iraungita
Hormigoia eta harrobiak	Hitzarmen kolektiboa	2011/12/31	Iraungita
Kafe-txigortzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Iraungita
Kontsignatarioak, zamaketariak eta garraio-kudeatzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Bingoak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Berokuntza, aireztatze eta aire egokituko instalazioak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Ondarroako itsasoko arrantzako saregileak	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Iraungita
Larruaren eta oinetakoen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2007/04/30	Iraungita
Larrugintzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita
Tindategiak eta garbitegiak	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita
Ospitaleratzeko osasun-establezimendu pribatuak	Hitzarmen kolektiboa	2005/12/31	Iraungita
Zinema-banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Iraungita
Egurraren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Iraungita
Ile-apaindegia eta apaindegia	Hitzarmen kolektiboa	2001/12/31	Iraungita
Garajeen taldea (ibilgailuen aparkalekua)	Hitzarmen kolektiboa	2001/12/31	Iraungita
Beira lauaren manufakturak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Eraikuntzarako materialak eta prefabrikatuak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Abokatu, prokuradore eta gizarte-graduatuak	Hitzarmen kolektiboa	1997/12/31	Iraungita
Aholkulari fiskalen eta kontularien bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	1994/12/31	Iraungita

GIPUZKOA

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Titulartasun publikoko kirol-instalazioak	Hitzarmen kolektiboa	2027/12/31	Indarrean
Industria siderometalurgikoa	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Eraikinen eta lokalen garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Sukaldaritza-enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Arte grafikoak, paper- eta kartoi-maneatzaileak eta argitaletxeak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Ehunen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Elikaduraren industria eta merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Arrain eta itsaski freskoen eta izoztuen handizkariak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Enpresa trantsitarioak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Eraikuntza eta herri-lanak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Gasolindegiak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Ostatuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Gozokien industria eta merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Informazioaren eta dokumentazioaren kudeatzaileak (artxibategiak eta liburutegiak)	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Bide-garbiketa publikoa eta hiriko hondakin solidoen bilketa	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Gipuzkoako esku-hartze soziala	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Aparkalekua eta trafikoaren antolakuntza	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Errenteriako garbiketako eta gizarte- eta osasun-laguntzako zerbitzuen enpresa emakidadunak	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Bidaiarien errepide bidezko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Emakumeen ile-apaindegiak, mistoak eta gimnasioak	Hitzarmen kolektiboa	2016/12/31	Luzatuta
Okindegiak	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Luzatuta
Merkataritza orokorra	Hitzarmen kolektiboa	2014/12/31	Luzatuta
Ikuskizun- eta kirol-lokalak	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Autoeskolak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Luzatuta
Adinekoen egoitzak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Luzatuta
Pasaiako zamaketa-lanak		2004/12/31	Luzatuta
Zeramikaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Luzatuta
Beiraren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Luzatuta
Frueten eta baratzekeko produktuen handizkariak	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Iraungita
Irungo Udalaren etxez etxeko laguntza	Hitzarmen kolektiboa	2013/12/31	Iraungita
Larruaren merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Bulegoak eta despatxuak	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Salgaien errepideko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Metalaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Jostailuen merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita
Hortz-protesiak	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Iraungita
Bingo-aretoak	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Iraungita
Donostiako zinema-emanaldiak	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Iraungita
Eguraren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Iraungita
Edari freskagarrien industria	Hitzarmen kolektiboa	2002/12/31	Iraungita
Farmazia-bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2002/12/31	Iraungita
Ospitaleratzea eta klinikak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Zementuaren industria eratorriak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Altzarien industria eta lagungarriak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Bakailao-ontzi bikoteak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Tindategiak, garbiketa, lisatzea eta ikuzketa	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Mahats, garagardo eta edarien industria eta merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Altzarien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	1999/12/31	Iraungita

LURRALDE ARTEKOAK

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Arte eszenikoak	Hitzarmen kolektiboa	2025/06/30	Indarrean
Eskola-garraioko monitoreak eta jolastokiko zaintzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta UPV-EHUREn garbiketa-kontratak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Osakidetzaren garbiketako emakidadunak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eusko Jaurlaritzako ikastetxeetako eskola-jantokietako kolektibitateak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ikastolak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Gizarte-ekimeneko irakaskuntza arautuko ikastetxeak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Osasungintzako errepideko garraioa anbulantzian	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ingurumen-hezkuntzako zentroak. Baserri-eskolak	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Luzatuta

ESTATU MAILAKOAK

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Estatuko eraikuntza (merkataritza)	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Contact Center (telemarketina)	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Saltoki handiak	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Aseguru pribatuen bitartekotza	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Zaintza eta segurtasun pribatua	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Futbol profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2026/06/30	Indarrean
Argazkigintzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Kirol-instalazioak eta gimnasioak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Oinetakoen industria	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Lurringintza eta antzekoak, Estatu	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Arte grafikoak, paper- eta kartoi-maneiatzea, argialetxeak eta industria lagungarriak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Orea, papera eta kartoia	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Trenbideko kontratak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Uren eta ontziratutako edarien industria	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Mendeko pertsonen arretarako zerbitzuak eta autonomia pertsonalaren sustapenaren garapena	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Publizitate-enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Lurreko laguntza-zerbitzuak aireportuetan	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Urpekaritza profesionala eta baliabide hiperbarikoak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Elikagai konposatuen fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Zezenketa-ikuskizunak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Hegazti-eta untxi-hiltegiak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Adingabeen erreforma eta babesa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Kontserba begetalak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Larru-zurratzeak eta industriarako uhalak eta larruak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Jai-, dantza- eta diskoteka-aretoak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Teilak, adreiluak eta buztin egosizko pieza bereziak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Albaitaritza-zentroak eta -zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Sukaldaritza modernoko marken sektore-hitzarmena	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Lorezaintza	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Trenbidearen kanpoko zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Arrain eta itsaskien kontserba, erdi-kontserba eta gazituak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Gasolindegia	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Unibertsitateko ikastetxe nagusi pribatuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Erauzketa, beira eta zeramikaren industriak eta horien merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Bingo-jokoak antolatzen dituzten enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Ingeniaritza-enpresak eta azterlan teknikoetako bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten aseguruak, berraseguruak eta mutualitateak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Besteren prebentzio-zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Farmazia-bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Zerga-teknikari eta -aholkularien bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Aholkularitza eta merkatu-azterlanak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Esneen eta esnekien industriak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Egunerokoa ez den prentsa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Etkez etxe saltzeko jaki prestatuen egileak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Hondakinen eta bigarren mailako lehengaien berreskurapena eta birziklapena	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Bidaia-agentziak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Kortxoaren sektorea	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Mendekotasuna duten pertsonen arretarako zentroak eta zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Zementuaren fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Itsasoko produktuen prestaketa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Otordu-zerbitzu kolektiboak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Ikus-entzunezko lanen produktoreak eta figuranteak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Komenientziako denden kateak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Arautu gabeko irakaskuntza eta prestakuntza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Industria kimikoa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Uraren ziklo integrala	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Hotz industrialaren industriak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Kreditu-sozietate kooperatiboak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Banka pribatua	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Aurrezki-kutzak eta finantza-erakundeak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Haragi-industriak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ehungintzaren eta jantzigintzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Loreen eta landareen merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Kredituko finantza-establezimenduak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Birjartze-jardueretarako tokian tokiko zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Desinfekzioa, intsektu-kentzea eta arratoi-garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Unibertsitate pribatuak eta graduondoko ikasketen prestakuntza-zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Industria metalgrafikoa eta ontzi metaliko arinen fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Aisialdi hezigarria eta animazio soziokulturala	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Estatuko notariotzak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Entzunezko merkataritzako irratidifusioa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Farmaziako espezialitateen eta produktuen handizkako merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ikus-entzunezko lanen produktoreak eta aktoreak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Jabegoaren eta merkataritzaren erregistratzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ile-apaindegiak, apaindegiak eta gimnasioak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Autoeskolak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Informazioa, harrera, sarbideen kontrola eta instalazioen egiaztatpena	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Industriako, drogeriako, lurringintzako eta antzeko produktu kimikoen handizkariak eta inportatzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/30	Indarrean
Lorezaintzako zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Haurren laguntza eta heziketarako zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Ogitarako irinak eta semolak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Hegaztien eta beste animalia batzuen haztegiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Perrailaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Higiezin kudeaketa eta bitartekotza	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Administrazio-gestoriak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Itsas-akuikultura nazionala	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
Paperaren eta arte grafikoen merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Luzatuta
ACBko saskibaloia profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2022/06/30	Luzatuta
Ur-instalazioen mantentzea eta kontserbazioa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ile-apainketaren, musikaren eta arte aplikatuen irakaskuntza	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Drogeria eta lurrin-dendetako txikizkako merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Eguneroko prentsa eta albiste-agentziak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Aparkalekuak eta garajeak, Estatuak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ikus entzunezkoen ekoizpen-industria (teknikariak)	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Baso-jarduerak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Aldi baterako laneko enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Unibertsitate-hezkuntzako eta ikerketako zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Eskubaloia profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2020/06/30	Luzatuta
Lehen mailako klubetako emakumezko futbol-jokalariak	Hitzarmen kolektiboa	2020/06/30	Luzatuta
Autotaxiak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Loteria-administrazioak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Bide-garbiketa publikoa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Naturopatia eta profesional naturopatak	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Herri-bideetako aparkaleku mugatua	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Garabi higikor autopropultsatuak	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Ortopedien eta laguntza teknikoen txikizkako merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Etkez etxeko banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2014/12/31	Luzatuta
Egurra	Hitzarmen kolektiboa	2013/12/31	Luzatuta
Helbiderik gabeko banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Txirrindularitza profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Zinema-banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Luzatuta
Jostuntza, alkandoragintza, joskintza eta antzekoak	Hitzarmen kolektiboa	2002/12/31	Luzatuta
Emanaldi zinematografikoak	Hitzarmen kolektiboa	2001/12/31	Luzatuta
Aireko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Luzatuta
Gatzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Iraungita
Izozkien fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Iraungita
Mezularitza	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Iraungita
Zuntz optikoko kablearen enpresa emakidadunak	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita